

Goienkaria

2009ko uztailaren 24a > Egubakoitza > IX. urtea > 386. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Egoera ekonomikoa dela-eta zaila da esatea aurten zelako uda izango den"

Ana Eriz
Mankomunitateko Turismo teknikaria > 05



G2a

Elkano Browning
Cream zapatuan Eskoriatzan > 31

ARRASATE
Kanpatorpeko galtzada-harriak salgai jarri ditu Udalak > 12

OÑATI
Abuztuaren zabalteagatik Udaletik laguntza jasoko dute dendek > 22

KIROLA
Bergarak zain du Euskal Herriko pilota txapela bihar, Zornotzan > 28

AZPIEGITURAK > KIROLDEGIA


Kiroldegiko lanak hastear Aretxabaletan

Irailean hasiko dira eta egingo ditu Galdiano enpresak, 11,3 milioi eurotan > 11

KIROLA > EUSKAL SELEKZIOA

ESAITen mendi martxa Arrasatera

Abuztuaren 4an iritsiko da Arrasatera euskal selekzioa aldarrikatzeko mendi martxa. Fagor Elektronikako biribilgunean egingo diote ongie-torria arrasatearrek, eta handik herrira sartuko da, kalejiran. 19:00etan hasita hainbat ekitaldi egingo dira erdigunean. > 15



Irailera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 27ra arte. Hala, GOIENKARIAREN hurrengo zenbakia irailaren 4an argitaratuko dugu. Edozelan ere, *Asteleheneko Goienkaria* kalean izango da hilaren 27an. Ordu-ra arte, ondo izan.



KALEAN Goienako hedabideetan elkarrizketa egitera etorri da Markel Olano ahaldu nagusia Debagoienara. Argazkian, Arrasateko Arbolapetan. XABIER URTZELAI

ELKARRIZKETA > MARKEL OLANO, GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

"Errauste planta ezinbestekoa da zaborrak ondo kudeatzeko"

BIRZIKLAPENA Olanok dio zaborraren %57 birziklatzea edo konpostatzea lortuko dela

OGASUNA "Sagar ustel bat eduki dezakezu, saski osoa ustela ez egon arren"

GARRAIOAK "Debagoienarako lehentasuneko bada, dirua jarriko dugu tranbiarako" > 06-07

AURKIBIDEA


Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06-07
Iritzia > 08
Gutunak > 10
Herriak > 11-27
Kirola > 28-30
Kultura > 32
Sailkatuak > 34
Berri-zakua > 35
Eskelak > 35
Gazteak > 36
Telebista-Irratia > 37
Non-zer > 38-39

KOMUNIKAZIOA > TOKIKO.TV

Abian da Tokiko.tv, euskarazko toki-telebisten sarean duten telebista

Euskarazko tokiko telebisten Interneteko telebista jarri dute sarean. Hala, *www.tokiko.tv* helbidean munduan barreneko euskaldun guztien eskura jarri nahi izan dituzte albisteak eta edukiak.

Gaur egun proiektuko partaide dira, Goiena Telebista (GOITB), 28 Kanala, Erlo Telebista, Goierri Telebista, Oizmendi Telebista, Ttipi Ttapa fundazioa, Topagunea elkarte eta Xalao Telebista. > 05



www.tokiko.tv da helbidea. GOIENKARIA

INGURUMENA > ZABORRA

Zaborra: bi sistema aurrez aurre

Mankomunitateak atez ateko eredua eta edukiontzi marroia alderatu nahi ditu > 02-03

INGURUMENA > ZABORRA

"Zabor-gestio sistema biak konparatu behar dira"

ATEZ ATEKOA Usurbilgo atez ateko hondakin-batze sistema bailaran ezar daitekeen jakiteko ikerketa egingo du Mankomunitateak

ERRAUSTEGIA Foru Aldundiaren esanetan, zabortegien sistema da txarrena, baina, hori ixteko, "ezinbestekoa da erraustegia"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Zaborra batzeko eta kudeatzeko dauzkagun ereduak zalantzan jartzeko unea iritsi dela diote gertakizunek; hori aldatzeko edo, gutxienez, fintzeko. Hainbat lekutan, beste eredu batzuen bila hasi dira; Europako zenbait herrialdetan, Katalunian eta, gertuago, Usurbilen, etxez etxeko zabor biltzeko sistema dute, eta orain, Debagoienean, eredu horren gaineko ikerketa eskatu du Mankomunitateak.

Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak iaztik dauka materia organiko batzeko plan pilotu bat, edukiontzi marroien bitartez, eta Aretxabaletan egiten dihardu. Joan den astean, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak ardura berriak hartu zituen, eta beste bultzada bat eman dio bere ereduari: birziklatzea eta konposta sortzea, orain arteko bost edukiontziok; hondakinak tratamendu-guneetara eraman -Lapatx kasu- eta han kudeatu; eta geratzen dena, birzikla ezin daitekeena, egin nahi duten erraustegira eraman. Eredu horrekin, gaur egungo zabortegiak itxi egingo dira; San Markoskoa itxi dute dagoeneko. Diputazioaren helburua da 2016rako %57 birziklatzea.

Orain, Debagoieneko Mankomunitateak interesa agertu du atez ateko sistemarekiko, izan ere, joan den asteko batzarrean, herri guztietako ordezkarien aldeko botoarekin, sistema horrek ibarrean izan ditzakeen aukeren gaineko azterketa enkargatzea erabaki zuen. Jordi Colomer Misse aditu katalanari enkargatu zion. Irailean hasiko du, eta azarorako gertu izango dela aurreikusten da.

Usurbilen martxoan ezarri zen atez ateko zabor biltzeko sistema, eta nahiko eztabaida sortu da haren inguruan; baina Debagoieneko Mankomunitateak hortik urruti, naturaltasunez

planteatzen du ikerketa. Pedro Lasagabaster Ingurumen batzordeburuaren esanetan, "bi ereduak, atez atekoa eta edukiontzi marroienarena, konparatzea interesgarria dela iruditzen zait". Berak bertatik bertara ezagutzen du atez ateko biltzeko metodoa.

EGUNERO HONDAKIN MOTA BAT

Usurbilgo atez ateko biltzeko sistema martxoan ezarri zuten; Udaleko 13 zinegotzitik, hamarrek alde bozkatu zuten, eta hiruk, aurka. San Markosko Mankomunitatearen babesa ere bazuen proiektuak. Herritarrekin batzarrak ere egon ziren erabakia hartu aurretik eta ondoren, eta haiek

Atez ateko biltzekaren bidez, asteko egun bakoitzean hondakin mota bat utzi behar da dagokion biltzekan, ordutegi baten barruan

Foru Aldundiaren nahia da gaur egun, besteak beste, Aretxabaletan dagoen edukiontzi marroia Gipuzkoa osora zabaltzea

ere parte hartu zuten erabakian. Horren ondoren, familien artean hondakin organikoetarako kubo marroiak banatu zituzten, eta informazio zerbitzu bat ipini zuen Udalak. Udal webgunean ere atal berezia du: www.usurbil.net/atezate.

Sistema horren bidez, hondakinak motaren arabera batzen dira, egun bakoitzean mota bat: astelehen, eguen eta zapatuetan, organikoak; martitzen eta egubakoitzetan, ontziak; eguaztenetan, papera eta kartoia; eta domeketan, gainerako hondakinak. Herritarrek erabaki zuten egun bakoitzean ze batu. Etxe kanpoaldean zintzilikario batzuk daude, eta herritarrek han utzi behar dituzte hondakinak, 06:30etik 08:30era bitartean.

Berezitasunetako bat da hondakin organikoek ematen zaien garrantzia. "Organikoa da frakzio edo hondakin mota handiena", diote arduradunek. Kontuan hartu behar da ere Usurbilgo 400 familia dabilzala norberak etxean konposta egiteko programan, eta urtean 120,45 kilo konpost sortzen dutela.

Eztabaida izan du beti bide lagun Usurbilgo esperientziak -horren aurkako herri-plataforma bat sortu da herrian. Modu batera edo bestera, lau hilabeteko ibilbidea egin du. San Markos Mankomunitateko presidenteordeak, Imanol Azpiroz, jakinarazi du 2008ko apirilean Usurbilek 173 tona zabor eraman zituela zabortegira; eta aurtengo apirilean, 25 tona besterik ez; horrek esan nahi du Usurbilen %80tik gora birziklatzen dela.

Sistema horrekin, edukiontzi guztiak edo gehienak -herriaren arabera- kendu egiten dira. Usurbilen kasuan, beirarena bakarrik geratu da. Beirarena utzi zuten "lehendik ere emaitza onenak zituelako, eta baita segurtasun aldetik ere", azaltzen dute arduradunek.



Atez ateko biltzekaren ongi-etorri jaialdia egin zuten Usurbilen, eta edukiontziak kendu zituzten.

EDUKIONTZIEN ALDE

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, berak mankomunitateen batzarrarekin adostutako sistema bultzatzen dihardu. Joan den astean, Partzuergoak bere gain hartu du zaborrak kudeatzeko prozesuaren zati bat: orain arte, herri bakoitzak bere hondakinak batu eta, Debagoienaren kasuan, Akeira eramaten ziren; han sailkatu eta gero, Mankomunitateak berak Sasietako zabortegira edo, hondakin organikoaren kasuan, Azpeitiko Lapatxera eramaten zituen. Bada, orain, Partzuergoak egiten du bigarren zati hori, Akeitik aurrerakoa, alegia.

Bide horretatik jarraituta, bere egunean Gipuzkoako man-

komunitateen biltzarrak onartutako sistema ezarri nahi du Diputazioak. Markel Olano ahal-dun nagusiaren esanetan, "geroz eta edukiontzi gehiago jartzeko erabakia hartu dugu; batetik, geroz eta zabor gutxiago sortzeko eta, bestetik, birziklapena eta konposta bultzatzeko. Datorren urtera begira nahiko genuke bosgarren edukiontzi lurralde osora zabaltzea. Hori lortzen badugu, izango gara Europa mailan zabor gehien birziklatzen duen herrialdea, lortuko dugu zabor guztia- ren %57a birziklatzea edo konpostatzea. Sistema horren itxiera izango litzateke Zubietako errauste plantara eroatea gainerrako zaborra". Olanoren esane-



Hondakin organikoetarako edukiontzi Aretxabaletan.

MIRARI ALTUBE

Ekainean, 5.257 kilo organiko Aretxabaletan

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, Mankomunitateak, hainbat udalek eta Foru Aldundiak elkarlanean antolatu zuten gai organiko bosgarren edukiontzi baten, marroian, batzeko plan pilotu bat, tartean, Aretxabaletan. Emaitza berrienak ekainekoak dira: hil horretan, 5.257 kilo batu ziren, biztanleko eta eguneko 166,98 gramo. Gehien martxoan batu zen: 193. Parte-hartzea borondatezkoa da. 2008ko irailean ezarri zenetik urtarrilera arte, Aretxabaletako 333 familiak hartu zuten parte, eta 20.910 kilo materia organiko batu zuten. Materia hori zen landare jatorrizko gai organiko gordina bakarrik. Bigarren fasean, animalia eta landare jatorrizko gai organiko guztiak -sukaldatutakoak ere- batzen hasi ziren; horretan, beste 13 familiak egin dute bat plan pilotuarekin.



HARMAN

tan, "sistema ixteko, ezinbestekoa da erraustegia".

Partzuergoaren ardura berriekin bat etorri da gipuzkoar guztiok igarri duten %30eko igoera zabor tasan. San Markosko Mankomunitateak jakinarazi duenez, "orain arte Lapatxen, Sasietan eta Urtetan hondakinak jaurtitzea 65,55 euro/t, 75 euro/t eta 74 euro/t kostatzen bazen, hurrenez hurren, Partzuergoaren garaia hastean 125,74 euro/t kostako da". Horren aurrean, Usurbilgo sistemak abantaila handia duela esaten dute arduradunek: "Tasak hondakinak, zaborraren araberakoak dira, eta Usurbildik ez doa ontzi, paper edo hondakin organiko gramo bat ere; organikoa konpostatzera eramaten da, ez zabortegira".

ZABOR GUTXIAGO SORTZEA

Atez ateko zabor bilketa eredu- ra bueltatuz, hiru helburu bete nahi dira, Pedro Lasagabasterrek azaltzen duen moduan: "Batetik, zabor gutxiago sortzen da, jendeak gehiago begiratzen duelako zer erosten duen eta horrek ze hondakin sortuko duen. Bigarren helburua da birziklatze tasak igotzea; eta hirugarrena, zabortegira askoz gutxiago botatzea". Debagoiengan, gaur egun,



Hondakin organikoak, batzeko gertu, Usurbilen.

HARMAN

DATUA

%85

ZABOR GUTXIAGO

San Markosko zabortegira 173 tona zabor bidali zituen Usurbilek 2008ko apirillean, eta aurtan, atez ateko bilketa ezarri eta gero, 25; hortaz, %85,35 zabor gutxiago bota du Usurbilek.

DATUA

%30

BIRZIKLATZEN DA

Debagoiengan, zaborraren %30 birziklatzen da; Foru Aldundiak 2016rako %57 birziklatzeko helburua ipini du. "Europar zabor gehien birziklatzen duen herrialdea izango gara", dio Aldundiak.

AUTOKONPOSTAJEA

Udazkenerako, 4. kanpaina gertu

Norberak etxean konposta egiteko hiru kanpaina egin ditu Mankomunitateak. Azkenekoa irailetik azarora egin zen, eta 163 konpostagailu banatu zituen; aurretik 403 zeudenez, gaur egun 566 konpostagailu daude Debagoien osoan. "Eduki izan ditugun konpostagailu guztiak banatu ditugu beti, eta erreserba-zerrenda bat daukagu; 65 lagun daude izena emanda", dio Mankomunitateko Ingurumen Saileko Kristina Iraolagoitiak. Hurrengo kanpaina bat udazkenean egiteko asmoa du Mankomunitateak, eta irailean beste 200 konpostatzeko silo izatea espero du.



Konpostatzeko siloa.

Hiri-hondakinei bakarrik dagokienez, 566 konpostagailuok urtean 137.000 bat kilo materia organiko hartu dituztela kalkulatu du Mankomunitateak; horretatik, 34.000 bat kilo konpost irtengo ziren (konpostagailuaren errendimendua %25 da).

%30 birziklatzen da; Lasagabasterren esanetan, "helburua da gutxienez %80 birziklatzea".

Edozelan ere, Ingurumen batzordeburuak ohartarazten duenez, "sistema hori ez da bakarra, eta beharbada ez du leku guztietarako balioko, baina balio dezake hemen birziklatze-tasak igotzeko. Gehiago birziklatzen bada, erraustegirik ez da behar izango, erraustegiaren lehengaia zaborra delako".

Atez ateko sistemak arrakasta izan dezan, denon ahalegina behar dela dio Mankomunitateak: "Askotan ikusten dugu plaza-tan, lorategietan... ume zein helduek zerbait jan eta zaborra lurre-ra botatzen dutela; argi dago arazo bat daukagula. Hori kontuan hartuta, egunero hondakinak bereizten hastea erronka bat da. Baina ados jartzen bagara, gero eta jende gehiagok bat egingo du". Eta bat egiten herritarrak anima ditzakeen faktore bat erraustegiaren gertutasuna izan daiteke; horri alde onik ikusten ez diotenendako, behintzat.

Debagoiengan zabor gutxi produzitzearen eta sortzen dena birziklatzearen ereduak arrakasta baldin badu, etorkizunerako asmo gehiago egon daitezke; garai baten aipatu zen Debagoiengan

konpostaje-gune bat egitea -oraingoz, Gipuzkoako bakarra Lapatzekoa da, Azpeitian-, eta horren gainean hauxe esaten du Mankomunitateko Ingurumen batzordeburuak: "Orain, ez da beharrezkoa, oso hondakin organiko gutxi batzen delako Gipuzkoan; baina gero eta horrelako planta gehiago beharko dira, eta guk planifikazio horretan sartu genuen Debagoiena. Konposta egiteko planta hori Epelen egongo litzateke; horrela, garraio-kostu txikiak izango genituzke. Gune hori egiten bada, hondakinaren prozesuaren inguruan hezteko programak egingo genituzke".

Usurbilgo sistemak sortu duen ika-mikaz galdetuta, Lasagabasterrek hauxe dio: "Osoko bilkuretan adostasuna baldin badago, arazo gutxi egoten da. Usurbilen herri-plataforma bat sortu da, eta kontsulta bat egingo dute; bada, hor ikusiko da. Baina kontua da askoz gehiago birziklatzen dela orain Usurbilen lehen baino".

Aldun nagusiaren iritziz, "zaborren kudeaketaren gaineko eskuduntza mankomunitateek dute. Mankomunitate batek nahi badu beste sistema bat abian jartzea, harena da erabakia. Jendeak ikusi beharra dauka horrek zer ondorio dituen".

LORAMENDI

deskontuak

5

%

INTERSPORT Arrasate

EKONOMIA > LANTEGI BERRIA DATORREN URTEAN

Grupo Elcorok Txinan lantoki berria egiteko asmoa du

Planta berria Shanghain eraikiko dute eta tamaina handiko pieza eolikoak ekoiztuko dituzte hantxe

MIRIAN BITERI > ELGETA

Grupo Elcorok datorren urtean bigarren lantokia irekitzeko asmoa du Txinan. Taldeko zuzendaritzatik azaldu dutenez, arlo eolikorako pieza handien mekanizazioa egin nahi dute horretan.

Eraiki behar duten lantoki berria Shanghaiko gunean egongo da. Instalazio berrietan zortzi milioi euroko inbertsioa egingo dute. Hainbat finantzazio iturri daude tartean: Grupo Elcorok bera, Espainiako kide bat eta Txinako inbertsio-taldea. Zuzendaritzakoek jakinarazi dute proiektua nahiko aurreratuta dagoela eta lantoki berria %100ean 2010era arte lan egingo ez badute ere, hilabete honetan bertan

bezeroekin kontratuak sinatze-ari ekin diotela.

Taldeak dagoeneko esperientzia du Txinako merkatuan. 2008an Elcoro Jiangyin Precision Machinery izeneko planta zabaldu zuen Shanghaiko erdigunetik 160 kilometrorra. Arlo eolikoko bezero garrantzitsuenetarikoa Txinan ezarri zenean erabaki zuen Elcorok ekoizpen gunea han eraikitzea.

Orain, esan bezala, bigarrena zabaldu nahi dute, tamaina handiagoko piezen mekanizazioa egiteko. Modu horretan, Grupo Elcorok Txinan gorantz ari den merkatuaren aldeko apustua egin du; kontuan izan behar da, horren harira, herrialde horretan kontsumitzen den energiaren %0,17



2008an, Elcoro Jiangyin Precision Machinery lantegiaren inaugurazioa. GRUPO ELCORO

baino ez dela energia berriztagarrietatik irteten, eta azkenaldian merkatu horren aldeko apustu sendoa egin dute, karbonoaren errekuntzak eragindako kutsadura atmosferikoa murrizteko asmoz.

DATUA

8

MILIOI EURO

Shanghaiko eremuan egongo diren instalazio berriak eraiki ahal izateko zortzi milioi euro bideratu beharko dituzte.

ZORTZI ENPRESA

Txinako bigarren ekoizpen guneaz gain, Elcorok beste hainbat proiektu jarri ditu martxan aurtan. Urtarrilean hiru enpresa sartu ziren taldean: Bergarako Osintxu Mecanizados, Ibix 10 eta Topac Hammer. Azken horrek berrikuntza ekarri du taldera, eraikuntza eta lan publikoen arloetan murgiltzearena, hain zuzen.

Zortzi enpresek osatzen dute taldea: aurretik aipatutako hiru horiei, taldeko erreferentzia den Elgetako Elcoro Decoletaje, Orkoiengo Elcoro Automotive, Mendaroko Elcoro Trepanados, Gasteizko Combisa eta lehen aipatutako Elcoro Jiangyin Precision Machinery gehitu behar zaizkio.

AZPIEGITURAK

AHTren aurkako kanpaldia gertu dago

Gaurtik abuztuaren 2ra bitartean egingo dute Durangaldeko Izurtza herrian

M.B. > BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak urtero antolatzen duen kanpaldiari hasiera emango diote gaur, egubakoitza, Durangaldeko Izurtza herrian. Han egingo diren ekimenetan parte hartzeko gonbita egin dute; bereziki, abuztuaren 1ean, eguerdian, Durangoko Andra Mari plazatik abiatuko den manifestazioan: AHTren eraikuntza lanek Iurretako Orozketan auzoan hondatutako eremura joango da.

Gainera, bizikleta mar-txa, mendi ibilaldiak, hitzaldiak, liburuen aurkezpena eta kontzertuak ere egongo dira. Horren gaineko informazioa gura dutenek www.sindominio.net/ahtez webgunean aurkituko dute.

MUK eta Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluak akordioa sinatu dute

Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluko (CSIC, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mendeko erakundea) lehendakari Rafael Rodrigok eta Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabalak akordioa sinatu zuten martitzenean. Horren helburua da material berrien eta elikagaien arloetako ikerkuntza, garapena eta berrikuntza sustatzea. Hitzarmenak bost urteko iraupena izango du. Ondoko irudia sinadura bilketan aterata dago.



GOIENKARIA

> IKERKETA

Nanoteknologia gunea egingo dute Ikerlan- IK4 eta Microgunek

Arrasateko Garaia Berrikuntza Guneak nanoteknologia gunea berria izango du aurtan, Ikerlan IK4 eta Microguneren eskutik. Laborategiak 2.754 metro karratu izango ditu eta mikro eta nanoteknologian espezializatuta egongo da; energia eta osasunaren arloetan gainean ikerketa aurreratuak egin eta produktu berritzaileak sortuko dituzte esandako gunean. Lan horiek 6.279.734 euro balioko dute. Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak, Mondragon Taldeak, Eusko Jaur-laritzak eta Diputazioak ordainduko dute kopuru hori.


C

arrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943790182
scarrasc_1@infonegocio.com

ESKAINITZA BEREZIAK!



Sukalderako altzari eta etxetresna elektrikoak erosita 16"-ko LCD telebista opari!

KOMUNIKAZIOA > TOKIKO.TV

Sarean ipini dituzte euskarazko telebistak

Euskarazko tokiko telebistek Interneteko telebista ipini dute sarean, albisteak eta edukiak euskaldun guztien eskura jartzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Tokiko elkarteak euskarazko tokiko telebisten presentzia indartzeko Tokiko.tv ipini du abian, eta euskaldunei beste zerbitzu bat eskaini. Izan ere, gure inguru hurbilean gertatutakoen gainean dagoen kezka eta jakinmina da tokiko telebisten arrakastaren arrazoia, gure gizartean albisteen tokikotasuna asko baloratzen baita.

Proiektuaren bultzatzaileen esanetan, ordea, tokikotasuneko kostu-zerbitzu harremana oso garestia da. "Eskualdeko biztanleei bakarrik zuzentzen zaizkio lanak, baina ikusle kopurua oso urria da. Internetek gure lana mundu zabalari eskaintzeko aukera ematen digu", diote.

MUNDUKO EUSKALDUNEN ESKURA

Tokiko.tv-ren bidez, egunero lanak eta albisteak munduan barreiatuta dauden euskaldun guztien eskura jarri nahi dituzte. Gainera, telebista bakar baten ataria izan barik, Euskal Herriko euskarazko telebista guztien ataria izan nahi du, zerbitzu osoa eta egokiagoa eskainita.

Orain, 28 Kanala, Erlo Telebista, Goierri Telebista, Goiena Telebista (GOITB), Oizmendi Telebista, Ttipi Ttapa fundazioa, Topagunea elkarte eta Xaloe Telebista dira proiektuaren partaide.



Jon Berezibar, Tokiko.tv-ko editorea, edukiak gertatzeko lanean.

MAIDER ARREGI

Baina plataforma horretan tokiko telebista eta ikus-entzuzko ekimen gehiagori egin nahi diete lekua. Baita ere ikus-entzuzkoen zaleei eta edukiak partekatze gertu dagoen edonori, betiere euskaraz. "Tokiko.tv-k plataforma dinamikoa izan nahi du eta horregatik saiaturiko da ikusleen parte-hartzea bultzatzen, kamera bat duen edonori izan baitaiteke kazetari", diote bultzatzaileek.

www.tokiko.tv helbidean ikusi ahal izango dira telebistako edukiak. Tokiko.tv-tik edukia-

ren berri ere azaldu dute: "Webgunera sartu eta *player* edo leiho nagusi bat agertuko da. Hor kargatuko da edukirik berriena, albistegi edo erreportajea. Nabigazioan behera egin eta une honetan dauden zortzi kanal nagusiak agertuko dira. Bat aukeratuz gero, horretan ere *player* nagusia ageri da eta azpian, kanalak eskaintzen dituen azpikateak: albistegia, kirolak eta kanal bakoitzaren beste azpikate bereziak; elkarrizketak eta saio bereziak, kasu. Egunero kargatuko dira bideoak edo saioak".

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

'Kobazulo'-ra indarrez sartzen garenean

Xabin eta Ane. Edo Ane eta Xabin. Berdin dio. Biak dira protagonista. Oso ondo konpontzen dira elkarrekin. Berotu, biluztu eta maitasuna egin dute: Xabinen zakiletik ateratako "zapaburuak" Aneren "kobazuloan" sartu dira. Eta 9 hilabete geroago, umetxo bat jaio da. Labur esanda, modu horretan kontatu zien nondik gatzen Irati Pagoagak Arrasateko neska-mutikoei, martitzenean. Egin Dakizuna! egitasmoaren barruan egin zuen saioa, ipuin bitartez, sexualitatea lantzeko helburuarekin. Baina ideia bat azpimarratu zuen, behin eta berriz: maitasuna egiteko bi pertsonaren arteko adostasuna beharrezkoa dela.

Adostasunik ez badago, egin den horri ez zaio maitasuna edo amodioa deitzen, bortxaketa baizik. Eta horixe gertatu da, orain gutxi, Huelvan eta Kordoban. Kasu bietan, 13 urteko neska bana bortxatu dute

zazpi eta sei laguneko mutil koadrilek, hurrenez hurren. Adin txikikoak ziren guztiak, bakar bat izan ezik. 14 urtez azpiko mutilak abusu sexualak egiten, beraz. Baina adin txikikoak direla eta... ezin zigortu. Ez dakit errudunak aurkitu eta zigortzea den irtenbidea, baina zer, orduan? Edozer eginda ere, libre? Ze gizarte mota ari gara sortzen, adin horretako umeak horrelako gauzak egiteko gai izan daitezten? Ez dakit zertan ari garen, baina ondo ez. Bi neskatila horiek ez dira, honezkero, izan direna izango.

"Adostasunik gabe egiten dena ez da maitasuna, bortxaketa baizik"

> **Eztabaida piztu da gertakarion harira. Espainiako Estatuan indarrean dagoen adin txikikoen legearen arabera, okerra egiten duenari ezin zaio erantzukizunik eskatu 14 urte edo gehiago izan ezean. Adin muga hori jaisteko eskatu du PPK.**

> **Zoritxarrez, era honetako albisteak entzuten ohitzen hasiak gaude eta baita asperitzen ere. Aurrerakuntza eta berrikuntza ditugu helburu, baina, zentzu batzuetan, hobe atzera egingo bagenu. Goazen martxan, auskalo zertara iritsiko garen!**

Ana Eriz > Mankomunitateko Turismo teknikaria

"Agian inguruko bisitari kopurua gehituko da udan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Oporrak gainean daude askorendako eta Debagoienean ere bada turistendako aukerarik. Horien berri eman digu Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Erizek.

Zer eskatzen dute turistek gurean?

Batzuk historia eta kultura ondarea ezagutzera hurbiltzen dira, beste batzuk ondare naturala...

Zer eskaintzen die Debagoienak turistei?

Eskaintza zabaltzen doa urte tik urtera eta bezero mota desberdinei zuzendurikoa da. Batzuk ondare historikoa, kulturala ezagutzera hurbiltzen dira, beste batzuk ondare naturala: kobak, mendi ibilaldiak... Gainera, eskaintza gastronomikoa ere badugu, ez dugu ahaztu behar uztailean Debagoieneko II. Jar-

dunaldi Gastronomikoak ari direla egiten; eta ostatu eskaintza ere badugu.

Turista asko espero da aurtengoa?

Egoera ekonomikoa dela-eta oso zaila da esatea aurtengo uda nolakoa izango den. Agian, inguruko bisitarien kopurua gehituko da. Urtean zehar garatu diren promozio jarduerak, gehienbat, inguruko merkatuetan egin dira.

Aurtengo turismo eskaintza berezirik gertatu duzue?

Arrikrutzen hiru bisita berezi eskainiko dira: *Arrikrutz zuzen-zuzenean*, *Arrikrutzeko kobak kanpoaldetik eta Arrikrutz barne-barnetik*. Aurrez eskatu behar da hitzordua. Leintz Gatzagako Turismo Bulegoak *Iturriko gatza mahaian gozo* bisita eskainiko du gatz museoa etaJa-



Ana Eriz.

GOIENKARIA

kion bisitatuz. Arantzazuko Gomiztegi baserriak euskal artzain mundua hurbiletik ezagutzeko aukera eskainiko du. Gainera, abuztuan hasiko dira

Bergarako Errege Mintegiko elizako indusketa arkeologikora bisitak.

Hala ere, izango da ohiko bisitak egiteko aukerarik, ezta?

Oñatiko ondarea eta Bergarako gune monumentala ezagutzeko ohiko eskaintza dago eta Arantzazun Santutegiko bisita gidatuek ordutegi zabalagoa dute garai hauetan. Gainera, mendi ibilaldiak egiteko aukera ere zabala da: 21 ibilaldi seinalizatu eta homologatu daude. Aukeren gaineko informazio gehiago jaso daiteke www.turismodebagoiena.com helbidean edo ibarreko turismo bulegoetan: Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Oñatin eta Bergaran. Eta baita Arantzazun dagoen Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentroan ere

Krisiaz, Lopezen Jaurlaritza berriaz, egoera politikoaz, zaborrez, azpiegiturez eta Gipuzkoarako egitasmo estrategikoez jar-

dun dugu, besteak beste, Markel Olano ahaldun nagusiarekin. Debagoienak dituen azpiegitura gabeziei heltzeko borondatea

agertu du. Gipuzkoako ogasuna osasuntsu dagoela dio: "Sagar ustel bat eduki dezakezu, saski osoa ustela ez egon arren".

Markel Olano > Gipuzkoako diputatu nagusia

"Ika-miken gaineratik, ekonomia arloari begira ezinbestekoa da elkarlana"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Markel Olanok (Beasain, 1965) bi urte daroatza Gipuzkoako ahaldun nagusi. Agintaldi erdia. Politika orokorreko kontuen eta bere agintaldiarekin lotutakoez egin dugu berba harekin. Goienan izan dugu bisitari oraingo astean.

Iaz baino 101 milioi euro gutxiago jaso du Gipuzkoako Ogasunak aurten, errenta aitortpenaren kanpainan. Espainiako Gobernuak zerga-gadun artean banatzeko 400 euroengatik izan dela diote Gipuzkoako Ogasuneko arduradunek. Hala da?

Zapaterok hauteskunde giroan eta botoak lortzeko helburuarekin proposatu zuen neurri hori. Ez du ondo bereizten txiroen eta aberatsen artean eta, hortaz, ez zait iruditzen oso neurri egokia. Edozein kasutan ere, herritarro ondo datorrigu diru hori aurrezte, poltsikoari begira gaudelako, batez ere krisi garaian. Baina zerga ikuspegitik, daukagun arazoa ez da horren ondorioa. Arazoa larriagoa da: jendeak zerga gutxiago ordaintzen ditu, askok lanik ez duelako; enpresek ere lan gutxiago dute eta, ondorioz, zerga gutxiago ordaintzen dituzte...; kontsumoa txikitzen egin da...

ELAk esan du politika fiskala dela aldatu beharrekoa, eta ez aurrekontua murriztu.

Zergak testuinguru bati lotu behar dira. ELAk planteatzen duena da iraultza bat, baina zerga maila zehazteko indar politikoaren arteko adostasuna behar da. ELAren planteamenduak aitzakia puntua badauka, krisiari behar den moduan eta norberak daukan ardurei ez heltzeko. Arduradun politikoez, agintariek, enpresaburuek... denok daukagu erantzukizuna.

Udalak kexu dira eurei eragiten dietelako gogorren krisiak eta diru sarrera murrizketak. Gipuzkoan, Batzar Nagusietan, proposamen bat onartuta dauka: erakunde guztion artean poltsa bat eratzea. Proposatzen da administrazio bakoitzak daukan pisuaren arabera elikatzea poltsa hori: Jaurlaritzak, %70; eta gainerakoa, udalek eta aldundiek. Gipuzkoako udalek ondo ikusten dute soluzio hori eta bere egin du Eudelek, Euskadiko Udalen Elkarteak. Ikusteko dago erkidego osorako onartzen den edo ez.

Irungo Ogasun Bulegoko zuzendariaren kontrako salaketa jarri du fiskaltzak eta Foru Aldundiak eskatu du ikerketa komisioa sortzea Batzar Nagusietan. Zertan da kontua?

Ogasunaren ikuspuntutik, legez eta etikaz kanpo egin daitezkeen hainbat portaera onartezinak dira eta horiekiko ez gara izango tolerantzak. Horrek kalte handia egiten diolako bai Gipuzkoako herriari, bai ogasu-

nari eta baita gure alderdiari berari. Hortaz, etxe barruan, ahal den neurrian, arakatu egin dugu eta ikerketa jarri dugu abian arlo politikoan Batzar Nagusietan, eta baita epaitegietan ere. Bakarren batek lapurtu egin badu, argi daukat horrek ordaindu egin behar duela. Hankasartzeak edo lapurretak egin daitezke, baina jendeak ikusi behar du legea irmo aplikatu behar dugula.

Borondate politikoa, hortaz, azkeneraino heltzeko?

Eta jarrera. Urratsak egin ditugu. Gauzak argitzen eta ardurak zehazten ari dira. Bestela, gerta daiteke herritarrek edukitzea ikuspegi bat erakundeekiko oso egiazkoa ez dena. Sagar ustel bat eduki dezakezu, saski osoa ustela ez egon arren. Gipuzkoako Ogasuna osasuntsu dago. Gure autogobernuaren zutaberik garrantzitsuena da, ikaragarriko ahalmen politikoa ematen digulako.

Salatu dute Gonzalez Txabarri aurreko diputatu nagusiak

GIPUZKOAKO OGASUNA

"Bakarren batek lapurtu egin badu, argi daukat horrek ordaindu egin behar duela"

GARRAIO PUBLIKOA

"Debagoienarako lehentasunezkoa bada tranbia, dirua sartuko dugu tranbia egiteko, nahiz eta gure eskuduntza ez izan"

AZPIEGITUREZ EZTABAIDA

"Ez da logikoa puntako azpiegitura eraiki ostean, kamioi guztiak N-1etik joatea"

ZABORREN KUDEAKETA

"Ezker abertzaleak hartu du gure ereduaren kontrako jarrera eta atez atekoaren aldekoa, baina uste dugu gure eredia dela onena"

legealdiko azken 6 hilabeteetan 100.000 euro gastatu izana bazkaritan eta oparitan. Zer diozu?

Batzar Nagusietan salaketa bat egon da, indar politiko batena. Epaitegietan ez da egon salaketarik. Gehiago da kritika politikoa. Nik ez dut balorazio publikorik egin nahi izan, ez lukeelako ekarpenik egingo. Nahiago dut aurrera begiratu eta, bestalde, argi daukadana da gure taldeak legealdi honetan bide berri bati ekin diola. Nik kontu emango dut egin ditudan gauzez, eta besteek eman beharko dute eurek egindakoaz.

Orain dela gutxi aurkeztu ditu Gipuzkoa Aurrerak hurrengo urteetarako proiektuak. Debagoienari zuzenean edo zeharka eragiten dio egitasmo horietakoren batek?

Gipuzkoako garraio publiko sistemaren azterketa sakona egingo dugu. Horrek badauka zerikusia Donostia inguruko metroarekin, baina, horrekin batera, argi daukagu Debagoienak, trenaren ikuspuntutik, hutsune bat daukala. Goierri eta Tolosaldea Renferen sareak batzen ditu eta Debabarrena, Euskotrenek. Baina badago lurraldearen hertz batean, zuen bailaran, hutsune bat. Horri soluzioa eman behar zaio. Debagoienak badauka zentraltasun bat Gipuzkoan hainbat ikuspegitatik, kultura edo ekonomia ikuspegitik, baina azpiegitura aldetik badauzka gabeziak eta Debagoienak eduki behar du bere azpiegitura propioa.

Beste zenbait alorretan urratsak egingo ditugu: hala, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren alorrean, batik bat biozientzia eta osasunaren aldetik, bultzada eman behar diegu orain abian dauden ekimenei. Donostia inguruan daude horietako asko, baina lurral-



Markel Olano diputatu nagusia Arrasateko

de osoan egin daitezke enpresak, proiektuak edo teknologia zentroak horretan dihardutenak, eta horri eman nahi diogu zentzu bat, dimentsio bat. Domotikaren inguruan, etxebizitza adimendu edo inteligentearen gaineko proiektu bat ere jasotzen da eta hori Mondragon Taldearen eskutik etorriko litzateke.

Zer egin dezakete Gipuzkoa Aurrerak edo Foru Aldundiak Debagoieneko tranbia bultzatzeko?



Olarte kalean, martitzenean.

XABIER URTZELAI

Bidesarien gainean eztabaida ireki nahi duzue Batzar Nagusietan, ezta?

Bai. Errepideak egin dira, baina ondo kudeatu behar dira eta horretarako, bidesariak garrantzitsuak dira. Esaterako, ez da logikoa puntako azpiegitura eraiki ostean, kamioi guztiak N-1etik joatea. Ez gabilta ondo kudeatzen. Orekatu egin behar dugu lurraldea bidesariei dago kienez. Sistema egokia behar dugu ondo kudeatzeko. Batzar Nagusietan datorren ikasturtean aurrera egingo du kontu honek.

Oraindik geratzen dira konpon-tzeko AP-1 autobidearen lanen-gatik hondatu ziren kamino-ak-eta, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Gatzagan. Noiz egingo dira konponketa lanok?

Gainean egongo gara lehen-bailehen konpon daitezkeen hondatutako kaminoak eta bestelakoak. Gure konpromisoa da epe laburrean konpontzea. Herrietatik deika ditugu alkateak.

Hondakinak jasotzeko San Markosko planta itxita dago eta birziklatzea bultzatzeko ekimenak abian dira. Zelan doaz ekimen berri horiek?

San Markos itxi genuen neurrian, gainerako zabortegiak ere ixtea da asmoa. Osasunaren eta kudeaketaren ikuspegitik sistema txarrena da zabortegiena. Legealdi honetan izan dudana satisfaziorik onena izan da San Markos ixtea, batez ere zabortegi horren inguruan bizi direnek ikusi dutelako administrazioa ari dela benetan urratsak egiten zaborraren arazoa ondo kudeatzeko. Geroz eta edukiontzi gehiago jartzeko erabakia hartu dugu; batetik, geroz eta zabor gutxiago sortzeko eta, bestetik, birziklatzea eta konposta bultzatzeko. Datorren urteari begira nahiko genuke bosgarren edukiontzi marroia lurralde osoa zabaldu. Hori lortzen badugu, izango gara Europa mailan zabor gehien birziklatzen duen herrialdea, lortuko dugu zabor guztiaren %57 birziklatzea edo konpostatzea. Sistema horren itxiera izango litzateke Zubietako errauste plantara eroatea gainerako zaborra. Ez dugu ahaztu behar, trantsizio une honetan, Bizkaiak hartzen duela Gipuzkoako zabor tona piloa, hain justu ere, sistema guztia ez dugulako itxia.

Usurbilgo atez ateko sistemari buruz ze iritzi daukazu?

Aspaldi erabaki zen Batzar Nagusietan beste eredu bat, puntakoa, guretako balekoa dena. Ezker abertzaleak hartu du gure ereduaren kontrako jarrera eta atez atekoaren aldekoa, baina gainerako alderdi guztiok garbi dugu gure eredu onena. 2013. urtean abian izango dugu sistema berria osorik.

Debagoieneko Mankomunitateak aztertu nahi du atez ateko zabor bilketaren bideragarritasuna.

Zaborren kudeaketaren gaineko eskuduntza mankomunitateek dute. Eta Gipuzkoako mankomunitateen biltzar osoak era-

baki du lehen aipatu dudana sistema ezartzea. Orain, mankomunitate batek nahi badu beste sistema bat abian jartzea, harena da erabakia. Jendeak ikusi beharra dauka horrek zer ondorio dituen. Baina birziklatze, konpostaje eta errauste plantaren sistemak aurrera egingo du. Nik garbi daukat zein den gure bidea, gure erabakia, gure sistema.

Errauskailua ezinbestekoa da?

Sistema ixteko ezinbestekoa da. Bestela, gerta daiteke Napolin gertatu dena, kudeaketa desegoki baten ondorioa. Berritot, puntako zabor kudeaketa sistema ezarriko dugu Gipuzkoan, Europa mailako aurreratuenan.

Ze balorazio egiten duzu Patxi Lopezen Jaurlaritzarena?

Elkarlanerako jarrera erabatekoa daukagu, baina gobernu hori jaio zen hankamotz, abertzaletasunaren aurka jaio zelako. Hori izan zen sozialisten nahia eta batez PPrena.

Arabako Diputatu nagusia kargutik kentzeko, PP eta PSE-EEren zentsura mozioa gauzatu delako uste duzu?

Ez nuke nahi hori gertatzea, baina PPK oso markaketa estua egiten dio PSE-EEri eta une honetan ez dut ikusten alderdi sozialista profil propioarekin aurre egiteko. Egia da, era berean, denborak aurrera egin ahala, gero eta zailagoa izango dela zentsura mozioa gauzatzea, baina ikusten dut Lopezen gobernu oso ahul.

Egonkortasuna bermatzeko EAJk egindako proposamena, sozialisten eta popularren arteko harremanak zatitzeko egindakoa dela diote batzuek.

Ekonomia egoera honek eskatzen du erakunde guztion elkarlana, alderdikeriak alde batera utzita. Jaurlaritza berriaren osaketa izan zen alderdikeria hutsa, baina instituzionalki eta politikoki aurrera agin behar dugu. Arlo politikoa ika-mikak izango ditugu, baina ekonomia arloari begira, ezinbestekoa da elkarlana. Herriarrek exijituko digute.

Zela eragin dio Gipuzkoako Aldundiari eta Batzar Nagusiei EAren eta Ezker Batuaren zatiketak?

LOPEZEN JAURLARITZA
"Elkarlanerako jarrera erabatekoa daukagu, baina gobernu hori jaio zen hankamotz, abertzaletasunaren aurka jaio zelako"

ADIN TXIKIKOAK
"Adingabeko batzuk integrazinak dira eta politika bereziak egin behar dira haiekin"

EArekin osatu genuen gobernu Foru Aldundian eta une honetan EAko diputatu eta batzarkide guztiak Alkarbiden daude. Hortaz, ikuspuntu praktikotik ez du eraginik izan. EBrenak ekartzen digu aldaketa Batzar Nagusietan eta, horregatik, elkarrizketa bultzatuko dugu, hasieran egin genuen moduan, talde guztiak.

Baduzue harremanik legez kanporatutako zerrendetako ordezkariekin?

Bai. Hasieratik esan nuen harreman horri eutsiko niola eta hala egin dut. Egia da, baita ere, ezker abertzalearen aldetik eskatzen zaizkidala zenbait urrats, neurri handi batean ez direnak bideragarriak, legea haustea eskatzen digutelako. Eskatzea zilegia da, eta hitz egiten jarraituko dugu, baina argi daukat, era berean, mugak non dauden. Alderdien Legearen aurka gaudela, politikoki txarra delako. Lege horri aurre egiteko harremanak ezinbestekoak dira alderdion artean eta, bereziki, legez kanporatuta dagoen alderdiarekin.

Zer gertatzen da adin txikiko en harrera etxeekin?

Profil jakin bateko nerabeak, magrebiarrak batik bat, etorri direla arrapaladan, oso denbora gutxian. Neurriak jarri genituen horri aurre egiteko, baina txiki geratu zaizkigu. Bestalde, segurtasun aldetik, etorri diren adin txikikoen %10 inguruk oso portara gaiztoa erakutsi du. Horrek alarma sortu du jendartearen. Adin txikikoak izanda, gainera, bada go zigorgabetasun sentazio bat. Adingabeko gutxiengo hori integrazina da eta haiekin politika bereziak egin behar dira erakunde guztien artean. Adostu nahian gabilta erakunde guztietan modelo bat, hiritarren segurtasuna dagoelako jokoan.

Lurraldebuseko txartel bakarra euro bat garestitu da.

Lurraldebus txartelak egin du %40 jaitsi busaren prezioa. Legealdi hasieratik egin dugu garraio publikoaren eta autobusen aldeko apustua. Krisi garaian ere bai. Eta arrakasta handia izan du Lurraldebusek, nahiz eta administrazioarendako esfortzu ikaragarria izan.


ARABAKO ZENTSURA MOZIOA
"PPk oso markaketa estua egiten dio PSE-EEri eta ez dut ikusten Alderdi Sozialista profil propioarekin aurre egiteko"

LURRALDEBUS
"Arrakasta handia izan du Lurraldebusek, nahiz eta diru aldetik esfortzu handia izan guretako"

Sistema egokiena zein den argitu behar dugu lehenengo. Irizpide horrekin gabilta lanean eta bost hilabete barru-edo izango dugu egitasmoa esku artean. Guretako lehenatasuneko da lurraldean edukitzea garraio sistema egokia. Ikusten badugu Debagoieneko lehenatasuneko dela tranbia, Jaurlaritzarengana joango gara eta, bestalde, lanak aurreratzea posible bada, dirua sartuko dugu tranbia egiteko, nahiz eta gure eskuduntza ez izan.

Bi hilabete dira AP-1 autobidea guztiz zabaldu zutena. Aurreikuspenak bete egin dira erabiltzaileen aldetik?

8.000 erabiltzaile dira egunero. Arlabandik 10.000 pasatzen ziren lehen, eta, beraz, zifra horietara ez da iritsi oraindik AP-1 autobidea. Lurralde osoarendako ez ezik, bailararendako sekulako ekarpena izan da komunikazioaren ikuspegitik. N-1en alternatiba da. Baina, bidesarien ikuspegitik, sistema orekatu nahi dugu.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

Trinbía

A mak askotan kontatzen zoskun, itxuria berari grazia haundia egiten zotsan: "Behin ba ei zoian andra bat autobusian Mondrauetik Aramaixo aldera, eta herritik urten orduko hasi ei jakon txoferrai esaten: "Zu, Kandido, geratuko zare Garagartzan halako lekutan?" Txoferrak kasoik be ez. Handik puntuko berriz: "Zu, Kandido, geratuko zare Garagartzan halako lekutan?" Txoferra piparra baiño serixuao. Hola hiru-lau aldiz. Halako baten,"Zu, Kandido...", eta txoferrak: "Eztaukotzu hor trinbía!??"

Trinbía gauza inportantia izan da beti. Batez be bizikletena. Baiña gaur egungo bizikleta gehixenak barik etortzen die, eta ez da izango karua dalako. Karrerako bizikletei barkatu leixue, baiña bestelakuak danak biharko leukie tinbria.

Neu be ibilli izan naiz barik trenbidian, eta badakit zelako sustuak emoten jakuen pasiaran dabitzen oiñezkuei. Eta baten bat hasarretu be egin izan jat, eta arrazoia-kin. Horregatik, hortik zihar ibilli naizen azkenengo aldixan lau tinbre erosi dittut, bat neuretako eta bestiak erregalatzeko.

Izan be oiñezkuak lehentasuna izan bihar dau beti pasialekutan. Eta bizikletadunei kontuz ibiltzia eta txirriña jotia tokatzen jakue. Baiña ez atzetik etorri eta pare-parera aillegautakuan jo, ze sustua mortala izan leike. Urrin samarretik.

Askok daukagu ikasteko beste herrialde batzutatik. Zelako inbidixia emoten daben Holandan, Danimarkan edo Alemanian milaka lagun ikusten dittuzunian eskolara, lanera edo erosketak egittera bizikletan joaten. Beren guardabarro, dinamo, tinbre eta guzti.

Ia guk tinbriakin hasi eta gero beste guztia ikasten dogun.

ustek uste

Mirari Altube

Triki-traka autobusa Gatzagara

Autobusean egin dut Gatzagatik joan-etorria egunotan. Arlabango bihurgune guztiak nituen gogoan, baina inoiz baino bidaia erosoagoa izan zen. Eta zergatik ez pasatu Gatzagatik autobidetik ez doazen autobus guztiak? Eta zergatik ez pasatu Aretxabaleta eta Eskoriatzatik autobidetik doazen autobusak? Autobideak kalte handiak eragin ditu bi herriotan, baina autobidetik doan autobusa Arrasaten hartu behar. Hori da azpiegitura handien eta herri txikien bateraezintasuna.

plazara

Ane Garcés > Institut de Ciencies de l'Espaiko astrofisikaria eta Ilatargi Astronomi Taldeko kidea

Pausorik pauso, ilargira buelta

Beti begi bistan ez bada ere, gauero zaindari daukagu ilargia, eta mendetan zehar hainbat misterio eta pentsamendu erromantikoren inspirazio izan da. Misterio eta xarma hori guztia lapurtu nahi bagenio bezala aritzen gara zientzialariok sarri, erantzunak aurkitu nahiak bultzatuta bere magiaz ahaztu eta bere baitan zer dagoen jakin nahirik.

1969ko uztailaren 20an Ameriketako Estatu Batuek, Sobiet Batasunari espazioko lehia irabazita, gizadiak garai hartan zeukan erroka handienetakoa egia bihurtu zuten; gizakia ilargira bidaltzea. Apollo 11 espazio-ontzia ilargiratu zenetik gaur egun arte etengabe egon dira ilargira biderratuak misioak. Baina 1972an, Apollo 17 misioan zihuan Eugene Cernan estatubatuarrek azkeneko ilargia zapaldu zuenetik ez da gizaki bat berriz ilargira bidaltzeko interes berezirik egon.

Duela 40 urte Neil Armstrongek "pauso txiki bat gizakiarentzat, erraldoia gizadiarentzat" esan zuenetik hamaika ilargi ziklo igaro dira eta gizakiak

hamaika pauso txiki eman ditu zientzia, teknologia eta ikerkuntzaren bidean, erroka handiagoak bilatuz. Gaur egun misio tripulatuak Marte edo eguzki sistemako beste puntu batzuetara bidaltzeko ideia poliki-poliki aurrera eramateko pausoak ematen ari da. Helburu honekin biderratu ditu NASAK ilargirako bere azkeneko bi misioak.

Duela hilabete eskas LCROSS (Lunar Crater Observation and Sensing Satellite) eta LRO (Lunar Reconnaissance Orbiter) espazio-ontzien jaurtiketa egin zen Cabo Cañaveraldik. Ilargira hurbildu dira jada eta hasi dira biak lanean.

Lehenengo zundaren helburua ilargiko poloetan uraren bila aritzea da, duela urte batzuk ilargiaren inguruan egon ziren bes-

te espazio-zunda batzuen indizioak egiaztatu nahirik. Horretarako, lehenbizi, Centaur modulua jaurtiko du ura egon daitekeen kraterrekin talka egin dezan, eta inpaktuaren ondorioz sortutako lainoa espaziotik aztertuz. Misioaren bigarren fasean espazio-ontzia bera izango da ilargiarekin talka egingo duena, eta lainoa lurretik behatu ahal izango da.

Bigarren espazio-zundak gutxienez urtebete pasako du ilargia mapeatu eta neurketak egiten, ilargiratzeko leku egokiak, ilargiaren erradiazio eremua eta bertan egon daitezkeen errekurtoak aztertu ahal izateko. Etorkizunean egon daitezkeen misio tripulatuentzat berebiziko garrantzia dauka horri guzti-ori buruzko informazio ahalik eta zehatzena lortzea.

Besteak beste, atmosfera eza-gatik eta grabitate txikiarengatik ilargia ez da eremu egokia gizakiarentzat, baina unibertso-ko ozeanoan urrunago iritsi nahi badugu, beharrezkoa da gertuen daukagun irla aztertu, ulertu eta agian bertatik etekina ateratzea.

"Unibertso-ko ozeanoan urrunago iristeko, beharrezkoa da ilargia aztertu, ulertu eta agian etekina ateratzea"

marrazkiz

Alex Ugalde



Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)
Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

Ez duzulako galtzea jasaten.

EUROLIDER
GORDAILU BERRIA

IRABAZTEKO ASKO,
GALTZEKO DEUS EZ.

%100
BERMATUTA

Errentagarritasun handiko aukerak
eta zure kapitalaren %100
bermatuta dituen gordailua.
Etorri **kutxara** eta galde iezaguzu.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

La Caixako etheen harira

Jesus Markaide
Arrasate

Dirudienez, 270 euroko errenta duten Arrasateko etheen maizterrei La Caixak egiten dien kontratuak badauka klausula bat ez datorrena guztiz bat finantza erakundeak eta Arrasateko Udalak sinatukoarekin, errentarien kaltetan eta banketxearen mesedetan. Betiere, Arrasateko hiru zinegotziren ustez.

Pentsatu nahi dut kritika borondate onez egindakoa dela eta, kasu honetan, ezadostasunak konponduko direla. Baina iradoki nahi diet Ugalde eta Rodriguez Legartza zinegotzietan (aipatutako hiru zinegotzi horietako biri), ondo egingo luketela La Caixaren aurkako kritikak leunduko balituzte; izan ere, beharrezkoa iruditzen zait gogoraraztea, Zerrajerako etxeok La Caixari eman barik, orduko beren nagusi zen Madrazori eman ez izanagatik, bi zinegotziok egin zituzten kritika gaiztoak.

Madrazok egin izan balitu, ez genukeen kontratuarekin arazorik izango, etxebizitzok 2015era arte ez bailituzkete amaituko (aurreko adibideetan oinarrituz). Eta edukiko genituzke alokairu sozialeko 150 etxebizitza gutxiago. Hortaz, gaur egungo egoera da, konpon daitezkeen akats eta guzti, haiek inposatu nahi zigutena baino askoz ere hobea.

Edozelan ere, ez daukat gogoan entzun izana, gure herriko politikarien ahotik, La Caixari eskerrak emateko berba bat ere, mondragoetarrek onuradun dituen etxebizitza batzuetan 10 milioi euro inbertitu izanagatik. Eta hau diot, jokaera zintzokoa izan ohi delako esker oneko izatea (ahaztu barik, jakina, kontratuak betetzeko daudela).

Abderraman III.a euskaraz?

Rafa Santxez Muxika, *Naparra*
Bergara

Joan zen zapatuan Mairuaren Alardea egin zen Antzuolan. Arrakasta handiz, entzun eta irakurri dudanez. Berriztatua, mistoa eta inor ez mintzeko pentsatutakoa. Bejondeiela tradizioak gorde eta duintzen denbora eta esfortzua eman duten guztiei.

Berrikuntza horien artean, Abderraman III.a mairuaren papera ei dago. Duinagoa eta, besteak beste, Errendizioaren

Antzuolako alardea

Idoia Azkarate > Antzuola

Aurten, Antzuolako Mairuaren Alardean parte hartze-ko gonbidapena luzatu didate. Hausnar egiteko denbora eskatu nien eta, azkenean, baiezkoa ematea erabaki nuen. Ez dut inoiz alarde bat ikusi; beraz, ezin konparaziorik egin. Dena dela, entseguetan bizi izan dudana giroa ilusiozkoa eta oso baikorra izan da. Talde batek ikaragarritzko lana egin du: gauzak aldatu, eguneratu eta atseginagoa egiteko. Goraipatzekoa da Antzuolako herriaren lana, zaharkituak gelditu diren baloreak gaurkotu eta ikuspegi zabalago bat landuz; bertan, kultura ezberdinen arteko elkarbizitza, genero berdintasun eta eszenaratzeko dotore bat uztartuz.

Bizitza osoan ez dut eskopeta bat soinean ibili, ezta gutxiagorik ere tiro egin; dena dela, nire irizpide antimilitarista ez da aldatzen; nire nahia dauden eskopeta guztiak parodiak egiteko bakarrik balio izatea izango litzateke.

Nire parte hartzearekin, Bidasaldeko konpainia mistoetako emakume eta gizonezkoak omendu nahi ditut. Normaltasun baten barruan, aldaketak onartzen dituen herri baten partaide izateak pozten nauen heinean. Nik ez dut gizonezkoak bezalakoa izan nahi, bakar-bakarrik aukera berdina izan nahi ditut.

berbak esateko arabieraz eta euskaraz mintzo dena. Jakina, garaiko Abderraman III.ak egingo zuen arabieraz. Baina euskaraz...?!

Ba, baliteke Abderraman III.a Kordobako Kalifa eta X. mendean Omeiatarren printzerik boteretsuena, euskal hiztun osoa ez bazen, euskara batere arrotza ez izatea. Izan ere, Eneko Aritzarekin hasitako Iruñeko errege dinastiaren senitartekoa dugu Abderraman bera ere.

Eneko Aritzaren biloba Fortun I.a Gartzes Milagroko gazteluaren borrokan preso hartu eta Kordobara eroan zuten arabiarrek 860. urtean. Errege nafarrek batera Oneka alaba ere hartu zuten gatibu. Kordoban Abdulah printzea Onekarekin ezkondu eta seme bat izan zuten: Mohamed. Eta Mohamed printzeak Muzna izeneko neska nafar esklabu batekin Abderraman III.a izan zuen. Horrela, bada, Kordobako kalifa Abderraman III.ak bere lau aitajaun-amandreetatik hiru euskaldunak zituen.

Euskaldunak berezko zentzuan diot, leinu baskoiak izanik, Iruñea-Nafarroako lehenengo errege Ariztar eta Ximenotarrak familia eta gorteko ohiko mintzaira ziur asko euskara izango zuten-eta. Beraz, ez litzateke batere arraroa amama Onekak eta amatxo Muzak Abderraman txikiari ere kontutxoak euskaraz egitea, garai hartako beste nafar guztiek ohi zuten bezala. Eta ez ziren bakarrak izan. 981ean Al-Mansur -edo Almanzor- ospetsua Antso Abarka erregearen Urraka alabarekin, Kordoban Abda *Baskoia*

ezagunagoa izan zenarekin, ezkondu eta Add Al-Rahman Santxuelo semea izan zuten. Gainera, aurretik, Al-Mansur Hixan II.a kalifaren tutorea izana zen eta honen amaren maitalea, Subh izeneko gatibu baskoiarena.

Nortasun gogorrekoa hazi zen gure Abderraman III.a, hala ere. Ez zien iparraldeko ahaide euskaldunei begirune handirik erakutsi gero. Horrela, 920. urtean Iruñeko Erresuman sartu zen Al-Andaluseko armadaren buru. Antso I.a Gartzes erregeak defentsarako deia egin zion bere jendeari eta Nafarroa osoko tropak, antzuolarrak barne, Lizarra eta Iruñearen arteko Val de Junquera izeneko lekuan bildu ziren. Denbora batean erasoak geldiaraztea lortu bazuten ere, azkenean Abderramanek sarraskia burutu zuen Deierriko lur horietan. Ez dut uste Abderramanek errenditzeko berba premiari izango zukeenik; ez arabieraz, ez euskaraz.

Dena dela, Abderraman III.ak PLrik edo hizkuntza eskakizunik ez bazuen betetzen ere, edo EGA gainditzeko gauza ote zen jakin barik, familiatik zetorkiolako, baliteke gure inguruko batzuk baino hobeto moldatzea euskaraz. Larri ibili!

Aupa, Astarloza!

Mikel Rodriguez
Arrasate

Azkeneko urteetan, Cabestany eta Olano gipuzkoarrek irabazi dute Tourreko etapa bat lehenago. Laiseka eta Mayo bizkaitarrek ere bai. Indurain

nafarrak asko irabazi zituen 90eko hamarkadan, Tourreko erabateko nagusia izan zen sasoiaren. Eta aurten lortu du Astarlozak. Eta poz handia eman dit, ikusi dudalako aurten sekula baino grinatsua-go eta lehiakorrago, behin eta berriro ahaleginduz. Eta, azkenean, lortu du.

Uste dut pelotoiko guztiak poztu direla eta txirrindularitza asko eta asko ere bai, euskaldunak ez izan arren. Lorenzo Mila ere ikusi nuen bereziki pozik, pasaitarraren jarreragatik, TVEko iluntzeko *Telediario*-an, Maria Escariori paso eman zionean. Zorionak, Astarloza; zorionak, Euskalteleko txirrindulari guztiak; eta zorionak, Gonzalez Galdeano. Zorionsu egin gaituzue.

Aurten ere joango gara

Txiki Falero eta Asier Ibaibarriaga
(ESAI) Ten Mendi Martxako Antolakuntza Taldea)
Iruñea

Aurten ere, abuztuaren 1etik 8ra, ESAI Tek antolatzen duen Mendi Martxara joango gara eta zuei ere horretarako gonbidapena egiten dizuegu. Bederatzi urte daramagu ekimen honetan parte hartzen/antolatzen, eta dudarik gabe esan dezakegu 2001ean hau antolatzeke zeuden baldintzak eta beharrak ez direla oraindik aldatu.

Urtero egiten dugu Mendi Martxa eta dagoeneko 2.000 kilometro baino gehiago ibili gara: Ipar Euskal Herriatik Hego Euskal Herrira, mendebaldetik ekialdera, aldapan gora, maldan beheara, menditik kostara... Ehun ongietorri baino gehiago eskaini dizkigute, ateak zabalik aurkitu ditugu eta jendearen parte-hartzea ezin hobea izan da.

Arlo eta garai desberdinetan antolatzen ditugu ekintzak: Selektzio Eguna, Herri Krosa, Tourreko etapak, Mendi Martxa, eta abar, eta jendearen parte-hartzea eta berotasuna hurbiletik sentitzen dugu. Ez daukagu inongo dudarik, hau da bidea.

Gure kirolariek beste herrietako kirolariek lehiatu nahi dute, baina euskaldun gisa, gure kolore, ereserki eta ohore guztiarekin, Frantziako, Luxenburgoko, Alemaniako edo Irlandako kirolariek bezala.

Euskal zaleek kiroltasunez nahi dute gure selektzioa animatu, defendatu eta sentitu, baina ez lagunarteko partidetan bakarrik, nazioarteko kirol-jardueran baizik, onarpen ofizial eta guzti, Frantzia,

Luxenburgoko, Alemania edo Irlanda bezala.

Euskal gizarteak, aukera izan duenean, garbi azaldu du Euskal Selektzioarekiko maitasuna, behin eta berriro nabarmendu du herri honetako gehiengoaren nahia eta borondatea.

EAEn, Nafarroan, Frantzia eta Espainian gobernu desberdinak izan dira. Paktuak, itunak, koalizioak, denetatik ikusi dugu. Kolore batekoak eta besteak egon dira boterean. Denek onartzen omen dituzte euskal herritarren erabakiak. Hori sakratua omen da.

Gehiengoaren erabakia ezin omen da inondik inora zalantzan jarri, eta, norbaitek egiten badu, ez omen da demokrata. Gure kasuan, ordea, ez dira kontuan hartzen herriaren gehiengo eta erabakiak.

Euskal Selektzioaren gatazka denon gatazka da; denon bultzada behar dugu amets eder hori egunen batean egia bihurtzeko; pausoka-pausoka egingo dugu bidea.

Erabaki politikoak hartu behar dituztenek ez dituzte bere kabuz hartuko, geuk bultzatu behar ditugu.

Entzungor egiten dutenek gogor eta ozen sentitu behar dute euskal gizartearen nahia eta aldarrikapena.

Batzuei berdin zaie euria edo eguzkia. Badirudi ekaitzari bakarrik diotela erreparoa.

Guk, euri zein eguzki, ekaitz nahiz enbata, mendi martxa egingo dugu.

Mendiz mendi, auzorik auzo eta herriz herri, Euskal Selektzioaren aldarrikapena zabalduko dugu eta entzun nahi ez duenari esango diogu, gaur ez bada, bihar edo etzi izango dela; herri baten ametsak, nahiak eta sentimenduak alde batera uztea ez dela jokabiderik zuzurraren.

Aurten ere astebeteko oporraldia hartuko dugu, Euskal Herriko parajeak ezagutzeko, euskalki desberdinez gozatzeko, lagun berriak egiteko. Eta, batez ere, Euskal Selektzioaren aldeko jarrera adierazteko.

Horretarako joango gara Iruñetik Bilbora, mendi martxan.

OPORRAK!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 27ra arte eta irailaren 4an argitaratuko dugu hurrengo GOIENKARIA. Edozelan ere, *Asteleheneko Goienkaria* kalean izango da oraingo astelehenean, hilaren 27an. Ondo pasa oporrrak, irakurle, eta itzulerara arte.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12




Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Aretxabaleta > 20 Oñati > 22
Eskoriatza > 23 Antzuola > 24-25 Elgeta > 25 Aramaio > 26 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Kanpatorpeko galtzada-harriak saldu egingo ditu Udalak > **12**



> **BERGARA**
Doako kirol dinamizazioa izango da 8-14 urte artekoendako > **16**



> **OÑATI**
Oraingo, 103 denda daude izena emanda abuztuko laguntzetarako > **22**



> **ANTZUOLA**
Jai batzordea pozik dago jaietan parte-hartze handia egon delako > **25**

ARETXABALETA > KIROL ETXEA

Udalak ipinitako muga-prezioa baino %18 merkeagoa da proiektu irabazlea

OBRAK Astelehenean onartu zuen Udalak, gehiengoz, lanak Galdiano enpresari esleitzea

AURREKONTUA Proiektu irabazlearen lanak 11,3 milioi kostatzen dira; Udalaren muga 14koa zen

IRAILEAN Lanak irail erdialdean hasiko dira eta 20 hilaren barruan bukatuta egon beharko dute

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Aretxabaletako udalbatzak astelehenean esleitu zituen kirol etxe berriko lanak: Galdiano enpresak egingo ditu, haren proposamena hobetsi du eta lehiaketan jasotako proiektuak baloratzeko sortu zen taldeak, eta osoko bilkuran gehiengoz onartu zen esleipen hori. Alde bozkatu zuten Aralarrek (hiru boto), PSE-EEK (bi boto) eta Ezker Batua-Berdeek (boto bat); abstenitu egin ziren EA eta EAJ (bina boto). Galdiano aurkeztutako proiektuak 11.399.288,90 euroko kostua du.

Orain, 15 eguneko epearen barruan, Galdiano tramite batzuk egin eta dokumentazio bat aurkeztu behar du Udalean, eta Inaxio Garrok, alkateak, behin betiko esleitu dizkie lanak.

Osoko bilkuran, EAJ eta EAko zinegotziek bigarren geratu zen proposamenaren alde egin zuten, merkeagoa zela argudiatuta; alkateak esan zuen ez zela soilik diru-irizpidea begiratu, eta Jose Mari Segoviak, udal apare-jadoreak, esan zuen bien arteko

aldea 200.000 euro ingurukoa zela. Horrez gain, alkateak gogorazi du lizitazioa 14 milioi eurotan atera zuela Udalak eta Galdiano-ren proposamenak ia %18ko jaitziera dakarrela muga horrekin. Lehiaketara aurkeztu ziren 19 proiektuetatik, merkeena 10,6 milioikoa zen, eta garestiena, 13 milioikoa.

Udalak gura du lanak "irail erdialdean" has daitezela. 20 hila-beteko epea izango du Galdiano enpresak lanok bukatzeko.

942.000 EUROKO DIRULAGUNTZA
Finantzaketari dagokionez, zehaztasun gehiago azaldu ziren osoko bilkuran. Batetik, Kutzak Udalarari 8.265.000 euro mailegatu-ko dizkio, eta 15 urtera behar-eran hasieran uste zen moduan 12 urtean ordainduko du Udalak. Foru Aldundiko Gizartekintza-aren bitartez, 942.000 euroko dirulaguntza jasoko du Udalak. Hori onartu egin zen, aldeko zortzi botorekin (zinegotzi guztienak, Eusko Alkartasunaren bienak izan ezik; horiek abstenitu egin ziren).




Itxura hori izango du kirol etxe berriak.

GOIENKARIA



Sarreraren ikuspegi bat.

GOIENKARIA



Kantxa auditorium gisa erabili ahal izango da.

GOIENKARIA

EA alderdiak, hortaz, puntu guztietan zuri bozkatu zuen. Horren zergatia da kirol etxearen proiektuaren aurka daudela, garestiegia dela eta etorkizun-ean mantenu-kostua handiegia izango dela arrazoituz.

HIRU IGERILEKU

Modu batera edo bestera, kirol etxearen obrak esleitu egin dira eta hemendik bi bat hilabetera hasiko dira. Hain zuzen, Donostiako Asier Akuriola eta Gasteizko Fernando Bajo arkitektoen diseinuaren arabera egingo da.

Beheko solairuan, harrera gela, bulegoak, aldagela batzuk eta modu askotara erabiltzeko gimnasioa –hainbat gelatan bana daitekeena– izango dira; solairu bat beherago, aldagelak, kantxa handia –bana daitekeena hura ere– eta, atzeko partean, trinketa eta rokodromoa; baita biltegiak, masaje gela, kirol medikuntzarako gelak, kirol elkarteendako bulegoak eta proiektzio gela ere.

Lehenengo solairuan, fitness gela handia, administrazio bulegoak, kantxako harmaila batzuk eta egoteko lekua izango dira; bigarrenean, makina-gela; eta hirugarrenean, aldagelak eta hiru igerileku: zazpi kaleko bat eta bi txiki, sakonera desberdinekoak; baita sauna eta lurri- nezko tratamenduetarako gela ere. Igerilekuetatik kanpoaldera pasabidea izango da ere.

Kanpoaldean, teniserako bi kantxa, paddle-eko beste bi eta futbol zelai txiki bat aurreikusten dira. Lau kantxak lurraren maila baino beheraxeago izango dira, baina estali barik.

ESANAK

"Enpresak 15 egun ditu dokumentazioa aurkezteko; datorren astean egiten badu hori, udalbatzan landu dezakegu oporrak baino lehen"

Inaxio Garro > Alkatea



Gauez, goiko itxura izango luke kirol etxeak.

GOIENKARIA

DATUA

11,3
MILIOI EURO

Galdiano enpresak egingo du kirol etxea, eta 11.399.288,90 euroko aurrekontua aurkeztu zion Udalarari lizitazioan. Bost langile kontratatuko ditu obrak egiteko, eta 20 hilabeteko epea izango du, irail erdialdean hasita.

OBRAK > URBANIZAZIO LANAK

Kanpatorpeko galtzada-harriak salgai daude irailaren 15era arte

Kanpatorpeko eta pareko aldapatxoko zorua aldatu egin behar dute eta hango galtzada-harriak birziklatu gura dituzte

UBANE MADERA > ARRASATE

Kanpatorpea kalearen eta pareko aldapatxoaren, Iturriotz kale-raino iristen denaren zorua aldatu egin behar dute. Gaur egun dauden galtzada-harriak kendu eta gainerako gune historikoarekin armonizatzeke egokiagoa den zorua ipiniko dute.

Bada, horren harira, Arrasateko Udalak iragarri gura du Kanpatorpe ingurutik kendu behar dituzten hormigoizko galtzada-harriak salgai ipiniko dituela, birziklatzea bultzatzeko.

Edozeinek eskuratu ahal izango ditu harri horiek, Udalari eskaintza eginda. Hau da, norberak ipini beharko die galtzada-harriari ustez egokia den prezioa. Irailaren 15era arteko epea dago horretarako.



Kanpatorpea kaleko eta pareko aldapatxoko harlauzak aldatuko dituzte. U.M.

BADUTE ESPERIENZIA

Arrasateko Udalak lehenago ere eginda dauka halako zerbait. Hain zuzen, 1999an, herriko gune historikoko obrak egin zituztenean ere salgai ipini zituzten galtzada-harriak, eta saldu ere, saldu zituzten.

Dena den, halako eskaintza-ren harira, Obra Saitetik azpimarratu gura izan dute birziklatzea bultzatzeko ahalegina egitea dagokiela erakunde publikoei, baina baita ere lan handiagoa eskatzen diela horrek: "Galtzada-harriak ateratzeko orduan kon-

tu handiagorekin ibili beharra dago; gero, harri horiek garbitu egin behar izaten ditugu...". Kontuak kontu, hortxe eskaintza.

PARROKIA HOBETO ARGIZTATU

Bestalde, San Juan parrokiako obra egin behar dutela aprobetxatuta, beste obra batzuk ere egingo dituzte. Adibidez, argiteria berritu egingo dute, eta hainbat saneamendu lan egin.

Hain justu, argiteriaren hari-ra, dekorazio kontuak daude tartean, Udaleko Obra Saitetik emandako xehetasunen arabera, besteak beste, San Juan parrokiaren fatxada argizatzen duten argietako batzuk ordezkatu egingo dituzte-eta.

Kontua da gaur egun elizaren fatxadan bertan daudela argiok. Bada, Udalak haietako batzuk fatxadatik kendu eta haien partez argi islatzaileak ipini gura ditu, posteetan. Modu horretan, argiztapena "hobetzeaz" gain, udalerriko erakunde nagusiak hobeto argiztatu gura du Arrasatekoa den monumentuetako bat: eliza.

Obra osoarendako 100.378 euroko aurrekontua eta bi hila-beteko epea zehaztu ditu Udalak.



Josu Uribarren. U.M.

Josu Uribarren >
Izozkigilea

"Izozkien zaporea aukeratzeko, tradizionalak gara oso"

U.M. > ARRASATE

Udan, beroarekin batera datoz izozkiak, baita Arrasaten ere. 24 urte daramatza Josu Uribarrenek herritarren ahoak gozatzeko.

08:00ak, eta izozkia eginda.
05:00etan jaikitzen naiz.

Zenbat litro egiten dituzu?

Gaur (martitzena) 100 litro egin ditut. Bestetan 110... Bai, 100 bat litro, batez beste.

Zapora arrakastatsuenak...

Betikoak: jogurt, bainilla, marrubi, txokolatzekoak-eta saltzen dira gehien.

Zenbat zapora dituzu?

Aurten, 29. Urtero aldatzen ditugu batzuk. Adibidez, meloi, marakuiatzkoak eta halakoak ere baditugu.

Zapora berri originalik egin duzu aurten?

Bai. Marrubiak ardo eta azukrearekin; lehenago postre hori sarri jaten zuten.

Eta oraingoei gustatu zaie?

Jendeak esan zuen gozoa zela, baina erosteko orduan tradizionalak nahiago izaten dituzte.

Eta zuk, zein nahiago?

Tradizionalak! Kar-kar...

Datorren urtera arte, bukatu da, akabo!

Asteon agurtu ditu Txatxilipurdik udalekuak. 306 neska-mutikok parte hartu dute, 3 eta 10 urte artekoak. Oro har, "oso ondo" ibili dira. Maite San Vicente Txatxilipurdiko ordezkariak nabarmendu du ez dela izan "aparteko arazorik", baita ere "parte-hartzea handia" izan dela eta, besteak beste, "jai berriak landu" dituztela: ur festa erraldoia, adibidez (argazkian).



AMAIA ARANTZETA

Zure sukaldea diseinatu, proiektua egin eta, gainera:



Mod: Style

3.770 €

Hozkailua, ontzi-garbigailua, labea, plaka eta kanpaia.

zure poltsikora egokitzen gara.



Muntatzea ez dago barne

ARITZ

erreformak sukaldek

Tel.: 943 07 78 73
Zerrajera kalea 1 L-2
20500 ARRASATE

- Sukaldeen zaharberitzeak
- Gremioen koordinazioa

MADE
IN
GERMANY



Ferreriasko Jaiak 09

Uztailaren 26a, domeka

- 9:00 Etxafleroak
- 12:00 Txistularien kalejira
- 17:00 Haur jolasak (saku lasterketa, txokolatada e.a)
- 19:00 Txistularien kalejira.
Herri poteoa
Umeentzako lasterketak.
Jokoak
- 19:00 Kaleko hildakoen aldeko meza parrokian.
- 21:00 Herri afaria.
- 23:00 Dantzaldia



KULTURA TALDEAK > ARRASATEKO KILIKI ETA ERRALDOIEN KONPARTSA

Ia 25 urte iraun duten jira eta birak, eteteko arrisku larrian

Konpartsak ia hamar urte daroatza jende berriaren bila; egun, 11 kide bakarrik dira

1985ean lehenengoz irten zirenetik herriko jai nagusietan ez dute hutsik egin

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren egoera larria da. Hori ez da berria, baina; izan ere, 10 urte inguru daroate jende falta sumatzen eta azkenaldian taldera jende berria erakarri guran dabilta.

2009ko San Juan jaietan inoiz baino agerikoago geratu da jende beharra eta txikiak betiko erraldoiei protagonismoa kentzen ari direla, haurren erraldioen konpartsak ez du-eta parte-hartze arazorik. Azken urteotan konpartsak izan duen albiste pozgarri bakarrenetarikoa izan da haurrek euren neurrira egingako erraldoiak ateratzea. Baina herriko beste kultura taldeetan gertatzen den moduan, adinean aurrera egin ahala behera egiten du parte-hartzeak. Herriko dantza taldeak dira joera horren adibide esanguratsuenak.



Sanjuanetan erraldoi txikiak euren gurasoek baino dantza gehiago egin zuten. Irudian, guztiak batera. JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

KONPARTSAK, EGOERA LARRIENA
Erraldoi eta Kilikien Konpartsari, baina, egoera larriena tokatu zaio. Hala uste du Joxerra Perezek, hasierako taldetik geratzen den konpartsako kide bakarrenetarikoak. Izan ere, Perezek jakinarazi duenez: "Hasierako urteetan 30 kide inguru ginen, eta gure konpartsak gutxienez 18-20 pertsona beharko lituzke; egun, 11 besterik ez gara". Datuak esanguratsua dira eta ondorioak, begi bistakoak. Perezek horietan

ko ondorio bat eman du ezagutzera: "Azkenekoz duela sei urte atera genituen kalera kiliki guztiak". Egund, sei kiliki eta bi zaldiko dituzte.

IA 25 URTE JIRA ETA BIRA

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak herriko jai nagusiak -Aratusteak, sanjuanak, Maritxu Kajoi eta Santamasa- girotu izan ditu 1985eko sanjuanetan lehenengoz irten zenetik. Askok uste dute erraldoiak jira eta bira jartzea ez dela lan erraza. Perezek, baina, hori argitu gura izan du: "Erraldoiak kontrolatzeak ez du konplikazio handirik, bakoitzak 60 kilo inguru dituen arren". Kilo asko dira, baina ia 25 urte hauetan, Perezek dioenez, "ez du inork lesioengatik utzi". Hori bai, aurretik bizkarreko minak zituztenek -adinean ere aurrera egin dutela ezin da ahaztu- taldea utzi behar izan dute, medikuaren gomendioak jarraituz.

Bestalde, taldean ez dago neskarik. Perezek dio gutxi batzuek probatu izan dutela, baina gero-ora utzi egin dutela.

DATUA

60

KILO, ERRALDOI BAKOITZAK

Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren lau erraldoi bakoitzak 60 kilo inguru pisatzen du. Kilo asko badira ere, Joxerra Perez konpartsako kideak dio erraldoi dantzan jartzea lan erraza dela.

TXIKIENEK, JENDE ARAZORIK EZ

Lehen esan moduan, haurren erraldioen taldeak ez du ume faltarik. Duela urte bi Arrasateko denda batek betiko erraldoiak eredu hartuta txikienendako batzuk egin zituen. Perezek adierazi du aspaldi 10 eta 16 urte bitartekoendako erraldoi ertainak egitea pentsatu zutela, baina ez zen sekula gauzatu. Duela urte bi, 6 eta 8 urte artekoendako erraldoi txikiak egin zituzten.

Orduetik hona, hainbat haurrek eta gaztetxok izugarri gozatu dute euren neurrira egingako erraldoiak dantzan jarriz.

OSPAKIZUNAK

Domekan Ferrerías kaleko jaiak izango dira

J.B. > ARRASATE

Heldu dira. Aurten ere Ferrerías kaleko jaiak ez dute hutsik egingo. Etzi, domeka, izango dira. Hala, egun osoan, alde zaharreko kale ezagun horretan festa giroa izango da nagusi, arratsaldetik goizaldera. Antolatzaileek urteroko egitaraua prestatu dute.

TXARTELAK TAMAYON SALGAI

Ferrerías kaleko jaietako ekitaldi arrakastatsuenak kalean bertan egiten den herri afaria izan ohi da. Antolatzaileek 70 lagun inguru biltzea espero dute.

Afariak luxuzko menua izango du: hasierakoak, bakailaoa, saiheskia, goxua, kafea eta kopa. Sarrerak Tamayon daude salgai, 20 eurotan; erretiratuendako, 18 eurotan.

Egitaraua

9:00 Etxafuegoak.
12:00 Txistularien kalejira.
17:00 Haur jolasak: zaku lasterketa, txokolate-jana...
19:00 Txistularien kalejira.
19:00 Herri poteoa.
19:00 Umeendako lasterketak eta jokoak.
19:00 Ferrerías kaleko hildakoan aldeko meza parrokian.
21:00 Herri afaria.
23:00 Dantzaldia.

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

Monte
tabernaMaalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

arbolapeta



**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE



LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20



Renato ikuskizunaren une bat.

GOIENKARIA

KULTURA > KALE ANTZERKIA

Amaren heriotzak askatutako zirkuzale baten istorioa

Familia giroan gozatzeko antzezlanagaur Herriko Plazan (20:00): Ganso & Cia taldearen 'Renato' kale ikuskizuna

J. B. > ARRASATE

Udazabal programak aurrera segitzen du. Gaur kale antzerkiaren txanda da, Ganso & Cia antzerki taldearen *Renato* kale ikuskizunaren txanda, hain zuzen. Antzezlanagaur Herriko Plazan izango da, 20:00etan.

Familia giroan gozatzeko moduko obra izango da, eta haurrek zein helduek ez dute aspertzeko unerik izango.

PROIEKTU BERRI BATEN EMAITZA
Renato ikuskizuna Ganso & Cia antzerki talde sortu berriaren lehen apustu handia da. 2008ko maiatzean estreinatu zen Arrigorriagako *clown* jaialdian.

Obrak Renatoren bizitza du hizpide. Protagonistak iberiar faunari buruzko entziklopediak argitaratzen dituen argitaletxe batean egiten du lan. Bizitza aspergarria daroa, amaren menpe uneoro. Ama dagoen bitartean, Renatok ezin du arropa aukeratu, ezin emakumeekin ibili; finean, ezin du bere etorkizuna eraiki. Ama hiltzen denean, gehien maite duena egiteko aukera du; eta Renatok zirkua maite du. Baina zirkuko artista izatea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula...

KALEA, ANTZOKI

Ganso & Cia antzerki taldea osatzen duten Gorka Zero eta Cecilia Paganini antzerkigileek kalea dute lan esparru. Kalea eta *clown*-a. Antzerki genero horretan eroso mugitzen dira; izan ere, ez zaie esperientziarik falta. Renatoren papera hartuko duen Gorka Zerok, esaterako, 13 urte daroatza *clown*-a lantzen, eta, besteak beste, Virginia Imaz izan du irakasle.

KIROLA > EUSKAL SELEKZIOEN ALDEKO MENDI MARTXA

Hamaika ekitaldi mendi martxa heltzen denerako

Abuztuaren 4an helduko da Arrasatera; hamaika talde eta eragilek bat egin dute ekimenarekin

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Martitzenean Kulturaten egindako prentsaurrekoan, Euskal Selektzioen Aldeko Iritzi Taldearen (ESAIT) mendi martxa Arrasatera heltzen denerako antolatutako diren ekitaldien berri eman zuten. Ekitaldion aurkezpenean Debagoieneko hainbat kirolaririk hartu zuten parte; besteak beste, Markel Irizar txirrindulariak, Josu Juan Llodio mendizaleak eta Haritz Kortabarría lasterkariak. Kirolariek gain, hainbat arrasatearrek euren atxikimendua adierazi zuten.

Abuztuaren 4an helduko da martxa Arrasatera; martxaren laugarren etapa bukatuko da gurean, hain zuzen. Zegamatik etorriko dira mendizaleak, eta

Aizkorriko maldak zeharkatu ostean, Urkulu urtegitik barrena Bedoñara helduko dira. Bertatik jaitziz, Fagor Elektronikako biribilgunean herritarrek ongietorria egingo diete. Handik, kalejiran sartuko dira herrian.

DENETARIKO EKITALDI...

Opor garai betean izango bada ere, ongietorriarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte. 19:00etan ekitaldia egingo dute Biteri plazan. Harrera ekitaldian bertolariak egongo dira -Uxue Alberdi eta Julio Soto- eta ibarreko kultura eta kirol munduko ordezkariak euskal selektzioen aldeko aldarrikapen testu bat irakurriko dute. Bestalde,

21:00etan bertso afari herrikoia egingo dute Biteri plazan bertan -eguraldia txarra bada, Uarkapen izango da-. Afarirako txartelak Basati tabernan egongo dira salgai, 12 eurotan. Gainera, egun osoan zehar ESAITen kamisetak jarriko dira salgai.

Amaitzeko, antolatzaileek herritarrek gonbidatu dituzte, batetik, abuztuaren 4an herrian izango diren ekitaldietara eta, bestetik, hurrengo egunean mendi martxarekin batera Arrasateko Elorriora arteko etapan parte hartzera. Abuztuaren 5ean Uarkapetik abiatuko dira, 9:00etan.

...ETA ATXIKIMENDU SORTA

Oraingoz herriko ia 30 kirol talde, kultura elkarte, alderdi politiko eta talde eragilek egin dute bat mendi martxarekin. Norbanakoen atxikimenduak abuztuaren 4an jasoko dira.



Martitzenean eman zuten abuztuaren 4rako antolatutako ekitaldien berri.

TXOMIN MADINA



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Zerbitzua da 8 eta 14 urte artekoentzat; abuztuko martitzen eta eguenetan izango da eta dinamizatzailea egongo da eurekin

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gaztetxoendako aisialdia kontuan hartu, eta 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoendako eskaintza berezia antolatu du Udalak abuzturako: kirol dinamizazio zerbitzua jarriko du, hain justu ere, Agorrosin Ekintza Gunean.

Zerbitzu hori izango da martitzen eta eguenetan, 16:30-18:30 orduetartean, eta gaztetxoek egin ahal izango dituzte askotariko joko eta jolasak dinamizatzailearen laguntzarekin. Ekintzok egingo dituzte igerilekuetan, berdegunean eta aretoetan.

Zerbitzu hori doan izango da, nahiz eta ezinbestekoa izango den ekintza guneko abonua edo eguneko sarrera izatea.

Udalak jakinarazi duenez, beharrezkoa ez den arren, komenigarria da izena ematea Agorrosingo sarreran, dinamizatzaileak adinaren arabera ekintzak prestatu ahal izateko. Parte-hartzaileen zaletasun eta iradokizunak ere kontuan hartuko dituzte ekintzak prestatzeko.

KANPOKO IGERILEKUA, LEPO

Gaur, egubakoitza, hilabete bete da kanpoko igerilekua ireki zutela, eta Udaleko arduradunak oso pozik daude izan duen harrerarekin. Kirol teknikari Unai Asurmendik esan duenez, "Udalak asmatu egin du igerilekuarekin, gaztetxo eta familia asko dabil".

Asurmendik emandako datuen arabera, ekainaren 25a izan zen erabiltzaile gehien zenbatu zen eguna: 1.976 sarrera egon ziren egun hartan.

Egunek aurrera egin ahala, sarrera kopurua baretzen joan dela aurreratu du Asurmendik. Hala, batez beste, 1.200-1.300 sarrera egoten direla esan du. Aste bukaeretan, berriz, kopuruak gora egiten du: 1.300-1.400 sarrera egoten dira. "Hiru sorosle daude eta zoroen pare dabilta", gehitu du Kirol teknikariak.

ERABILTZAIEN IRADOKIZUNAK

Erabiltzaileek kanpoko igerilekuaren gainean aurkeztutako

AISIALDIA > AGORROSIN EKINTZA GUNEA

Doako kirol dinamizazio zerbitzua Agorrosinen



Martitzenean egin zuen bero handiarekin, herritar ugari aukeratu zuen igerilekua arratsaldea freskoago emateko. EDU MENDIBIL

kexu eta iradokizunei dagokienez, hiru multzo nagusitan bana daitezkeela azaldu du Asurmendik: "Alde batetik, 14 parte daude erabiltzaileek egindako zauriengatik. Zauri gehienak egin dira pergola azpiko bidearen eta berdegunearen artean dagoen koskan. Saiatu garen arren, hartutako konponketa neurria ez da egokia izan eta enpresa erabiltzaileak badihardu irtenbide bila", azaldu du Asurmendi teknikariak.

Bigarren multzoa osatzen dute erabileraren gaineko kexuek: "Batzuek diote sorosleak zorrotzeak direla, beste batzuek malagueiak direla; ziburuak eskatzen ere jaso dugu iradokizunik, eta baita zuhaitzak, gerizpe gehiago...".

Hirugarren multzoan daude konponketa beharra duten gauzak: "Uste dugu jolaserako ur korrantearen bonbak ez duela indar handirik, eta hori konpontzeko harremanetan dihardugu enpresa eraikitzailearekin; baita Ipintza ondoko berdegune zatian dagoen ur putzua konpontzeko ere. Belar azpiko lurra

gehiegi trinkotu zutela uste dugu eta ura ez da iragazten".

Iradokizun eta kexuei dagokienez, denboraldia bukatzean aztertuko dituztela aurreratu du Kirol teknikariak, eta orduan

DATUA

1.976

SARRERA AGORROSINEN

Ekainaren 25a izan zen Agorrosin erabiltzaile gehien zenbatutako eguna: 1.976 sarrera egon ziren egun hartan.

ESANAK

"Udalak bete-betean asmatu du kanpoko igerilekuarekin; gaztetxo eta familia asko etortzen da"

Unai Asurmendi > Kirol teknikaria

erabakiko dutela eskatutakoak egingo diren ala ez.

URA AURREZTEKO PROIEKTUA

Eskola Agenda 21en barruan herriko ikasleek garatutako proiektua jarri dute abian astean Agorrosin Ekintza Gunean. Proiektuaren helburua da erabiltzaileek uraren garrantziaz kontzientzia hartzea eta ura aurrezteko. Horretarako bi gauza egin dituzte Agorrosinen: batetik, musikarekin batera megafonia bidez ikasleek grabatutako mezuak igorriko dituzte; bestetik, ekintza guneko dutxa guztietan ura neurritz kontsumitzeko mezua itsatsiko dute. Horrekin batera datu bat eman du Asurmendik: "Dutxako botoia sakatzen dugun bakoitzeko hiru litro ur ateratzen dira. Dutxa baterako zenbat aldiz sakatu behar diogu botoiari?"

BIBLIOPISZINA ZERBITZUA

Abuztuan jarraitu egingo du Bibliopiszina zerbitzuak kanpoko igerilekuan. Irailaren 15era arte egongo da zabalik, astelehenera egubakoitzera, 15:00-18:00 orduetartean.

JAIK

Santiago jaiak Goimendin eta Basalgon

Herri bazkaria, bertso saioak eta musika egongo dira, besteak beste

M.B. > BERGARA

Santiago jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran bi auzotan. Goimendin gaur hasiko dituzte jaiak, 21:30ean plaza egingo duten berakatzoparekin. Bihar, zapatua, meza ospatuko da 11:00etan, eta 12:30ean Joxe Agirre eta Jesus Mari Irazuk bertso saioa egingo dute. 13:00etan, berriz, umeendako jolasak egingo dira eta 18:00etan, herri kirolak.

Basalgon ere meza nagusia egingo dute bihar, 11:00etan, eta 12:30ean, Amuriza eta Peñagarikanok saioa egingo dute; bertso bazkaria ere izango da haiekin. Domekan 14:30ean bazkaria egingo dute erretiratuek eta Jai batzordekoek.

> ZERBITZUAK

San Kristobalgarbiguneak ordutegia aldatuko du

Debagoieneko Mankomunitatetik jakinarazi dute San Kristobalgarbiguneak ordutegi berezia izango duela datorren hilean, abuztuan. Astean bi egunez egongo da zabalik, martitzen eta eguenetan, goizetik bakarrik, 09:00-13:30 orduetartean.

Horrekin guztiarekin batera, Mankomunitatetik eskatzen diete herritarrei ezarritako ordutegiak errespetatzeko eta, garbiguneak itxita egonez gero, garbigunearen kanpoaldean hondakinik ez lagatzeko. Joan den urtean arazoak izan ziren horren harira.



25 URTE, 1.000 ESKER!

Zuzenean egitea ezinezkoa zaigunez, eskerrak eman nahi dizkiegu bezeroei, hornitzaileei, langileei, bizilagunei, familiari, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteari, erakunde eta abarri gurekin egoteagatik 25 urte hauetan; izan ere, zuek gabe ezin izango genuen lortu.

Erretiratu egiten garelako, itxi egingo dugu eta agurtzeko:

MEKOLALDE TABERNAN

uztailaren 30ean 19:00etan izango den lunchera
GONBIDATUTA ZAUDETE

MILA ESKER, GUZTIOI!

MEKOLALDE JATETXEA



Bergara-Eibar errepidea
Tel.: 943 76 50 18
20570 BERGARA

LANAK > BIDEBERRI-ZUBIETA GUNEA

Errekaren ezkerreko aldea eta pasealekua egokitzen hasiko dira datorren astean

Proiektuan aurreikusitakoa baino lan txikiagoa egingo dute errekararen ezkerreko aldean; pasealekuko zoladurarekin ere hasiko dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Aurrera doaz Bideberri-Zubieta eremua berriro urbanizatzeko lanak. Apirilean hasi zituzten, eta, lanetako arduradunek esan dutenez, epeak betetzen doaz eta espero dute abendurako bukatzea, aurreikusi bezala. Eguzki SL enpresak dihardu lanok egiten, Sestra enpresak egindako proiektuan oinarrituta, eta aurrekontua 906.900 euro da.

Deba errekan hasi zituzten lanak, errekararen eskuinaldean. Errepidearendako espazioa ira-

baztea izan da helburua, eta horretarako, erreka zuzenagoa egin dute, bidegurutzeko aldera duen bihurgunearen erradioa txikituta. Horrekin batera, errekararen eustorma ere berria egin dute, harlangaitzezkoa, lehen zegoena bezalakoa. Horrekin batera, *Arrantzaleendako pasabidea* deritzon bi metro zabaleko bidetxoa ere egin dute errekararen mailan, Jaurilaritzaren Ur Agentziak hala agintzen duelako.

Eustormari dagokionez, oraingoz azken muturra bukatze-



Eustorma berria bukatzeke lagako dute, makineria hortik sartuko da-eta errekararen beste aldea egokitzeko.

MONIKA BELASTEGI

ke lagako dutela aurreratu dute lanetako arduradunek, errekararen ezkerreko aldeko lanak egiteko makineria handik sartuko delako errekarara.

Errekaren ezkerreko aldearen kasuan, datorren astean hasi-

ke dira hango lanak eta proiektuan aurreikusitakoa baino lan txikiagoa egingo dute: gaur egun dagoen landaretza dagoenetan lagako dute eta dagoen ezponda egonkortu baino ez dute egingo. Hala, ez dute krainer motako

-lurrez eta harriz betetzen diren egurrezko kutxa antzekoak- tramaketarik jarriko, eta ezta ezponda berririk egingo ere.

Bideberri pasealekua zolatzeko obrarekin ere datorren astean hasiko dira.



MONIKA BELASTEGI

Asteon bota dute arketetan pozoia

Higiene Ambiental ISS enpresako langileek eguaztenean bota zuten arratoiaren kontrako pozoia arketetan, 50etik gora arketetan, eta modu horretan, uztaileko txanda bete dute. Lur azpiko sarean dagoen arratoi populazioa kontrolatzea da helburua. Pozoia oso eraginkorra da: zauria eragiten dio arratoiari eta, antikoagulantea ere badenez, odolustu egiten da.

oharrak

ZOZKETA

> **San Kristobalgotzako zenbaki saritua aterata da**

Zenbaki saritua izan da 7.200. Legorretako Bartzelona landetxean bi lagunendako egonaldia jaso du Alex Alberdik.

ORDUTEGI ALDAKETA

> **Farmaziek opor txandak egingo dituzte**

Herriko farmazien opor txandak izango dira: uztailearen 15etik abuztuaren 15era, Zabala eta Urritikoetxea; abuztuaren 16tik irailaren 16ra, Estella eta Alvarez-Mozos; eta abuztuaren 1etik 31ra, Guallar.

KINTADA

> **1944an jaiotakoek urtemuga ospatzeko irteera egingo dute**

Irailaren 12an egingo dute, 65. urtemuga ospatzeko. Enkarterrietara eta Bizkaiko kostaldeara joango dira. Izenematea da irailaren 5a baino lehen Hernandez Bodegoian (943 76 20 43)

eta Sanchez ile-apaindegian (943 76 23 70). Autobusa abiatuko da 09:00etan, autobus geltokitik.

KINTADA

> **1976an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Irailaren 25ean egingo dute. Izena emateko deitu: 606 64 22 84 (Itxaso) eta 676 87 64 08 (Mertxe).

MUS TXAPELKETA

> **Egoaisia elkarte gastronomikoan mus txapelketa jokatu dute bihar, zapatua**

Egoaisia elkarte gastronomikoan -lehen La Union taberna- mus txapelketa egongo da bihar, zapatua, 16:00etan. Izenematea zabalik dago. Horretarako deitu 652 71 39 32 telefono zenbakira.

DIRULAGUNTZA

> **Kirol taldeendako laguntzen epea da irailaren 21era arte**

Kirol taldeendako dirulaguntzetarako eskariak egiteko epea

bukatuko da irailaren 21ean. Udalak 2009. urtean 110.000 euro bideratu ditu laguntzetarako. Eskerak aurkezteko ordutegia da astelehenean egubakoitzera, 09:00-13:00, udaletxeko erregistro orokorrean. Dirulaguntza horien oinarriak eskura daitezke www.bergara.net helbidean.

LEHIAKETA

> **Azokako pareta margotzeko graffiti lehiaketa deitu du Udalak**

Hilaren 27an bukatuko da izenematea. Udaleko Kultura Sailak deitu du eta helburua da azokan hutsik dagoen 7,05x8,2 neurriko pareta margotzea. Hala, lehiaketara aurkeztutako lanen artean epaimahaiak aukeratzeko graffiti margotuko dute egileek pareta horretan. Graffitiaren zirriborroa aurkeztuko da 34x29 zentimetroko neurrian, formatu bertikalean eta euskarri gogorrean. Aurkeztuko da kultura etxean edo kultura@bergara.net helbidean.

Kayak Taberna

Abuztuan zabalik

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



EGUERDIAN eta GAUEAN

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

MUSIKA > PIKULITXA ROOT'S

Pikulitxa Root's jaialdia bihar, reggae gaua Gorlako kantinan

Emon, Lutxana Crew, Dingwash eta DJ Kale Nagusiko Sound Sister taldeek joko dute, 21:00etan hasita

Reggae musika entzuteko, afaltzeko eta gaua hantxe pasatzeko jaialdia Gorlako kantinan

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Pikulitxa Root's jaialdia egingo dute bihar, zapatua, Gorlako kantinan. Reggaearekin batera hitz egin, dantzatu, gozatu, afaldu eta gaua pasatzeko urteroko hitzordua.

GERO ETA REGGAE GEHIAGO

Iñaki Gabilondo ibili da aurtan ere Pikulitxa Root's jaialdia antolatzen. "Konturatu naiz gero eta reggae gehiago entzuten duela jendeak, reggaezaleak ugaritu egin direla, eta hori pozgarria da niretako. Aurtengo jaialdia antolatzeko, adibidez, talde bat baino gehiago etorri da Gorlan jotze-



Emon taldeko kideak Angiozarren ateratako argazkian.

GOIENKARIA

ko prest dagoela esateko; Bilboko Lutxana Krew taldea, adibidez. Hurrengo jaialdian jotzeko ere badaude taldeak", dio Iñaki Gabilondok.

Lutxana Krew taldearekin batera, urtero etortzen den Hendaiako Dingwash taldea, Zumaia-ko DJ Kale Nagusiko Sound Sister eta Bergarako Emon taldeak

joko dute. "DJak aspaldiko kantuak jartzen ditu, pieza zaharrak", zehaztu du Gabilondok.

Bestalde, Bergarako Emon taldea ere gogoz dago Pikulitxa Root's jaialdian jotzeko. "Geure burua eskaini genuen. Sekulako parajea da Gorla reggaea jotzeko eta entzuteko, toki paregabea. Gure grabazio bat utzi genion

antolatzailari eta hark deitu zigun gero guri", kontatzen du Emon taldeko Ainhoa Billarrek. "Nahi barik gero eta reggae gehiago egiten dugu, gustatu egiten zaigu. Orain arteko piezez gain, berriren bat ere joko dugu Gorlan. Sorpresa bat ere egongo da, agian", jarraitu du.

ILARGIARI BEGIRA

Pikulitxa Root's jaialdia musika emanaldi bat baino gehiago dela dio Iñaki Gabilondok, antolatzailak: "Musika, jendea, ilargia, natura... dena batzen da. Jaialdia bera antolatzeko ilargiari begiratzen diogu; ilargi beteari. Aurtan abuztuaren 7an izango da ilargi betea, eta data hori ez dela oso aproposa, zapatu honetara aurreratu dugu. Behin tokatu zen ilargi betea uztaileko zapatu baten, eta orduantxe egin genuen jaialdia. Ederra izan zen".

Pikulitxa Root's bihar, zapatua, gauean egingo dute. 21:00etan hasiko da lehenengo taldea jotzen. "Jendea, hala ere, lehenago etortzen da, askok gaua hantxe pasatzen dute, furgoneta barruan, lo egiteko dendan, edo zelaian bertan lo-zakua botata. Bestalde, afaltzera etortzeko asmoa izanez gero aurrez abisatzea eskertuko genuke, urte baten 100 lagun inguru izan ginen-eta", dio Gabilondok.

PINTURAK

Mikel Garateren margoak Aroztegin

O.E. > BERGARA

Mikel Garate margolari azkoitiarraren erakusketa dago zabalik Aroztegi aretoan gaurtik, egubakoitza.

Tamaina ezberdinetako 40 lan inguru ekarri ditu Garatek Bergarara. "Koloretuak dira margo denak eta formato ezberdinetan daude. Irudien antolamendua parametro ezberdinetan neurtzen hasi nintzen duela bost urte, eta ordutik hona egindako lanak ekarri ditut", zehaztu du azkoitiarrak. "Lehen ere egona naiz Aroztegin, baita ikusle moduan ere, eta areto egokia da, irekia", jarraitu du. Erakusketa abuztuaren 9a arte egongo da zabalik.



Mikel Garateren pintura bat. MLK



Enara Minguez eta Maider Osa, prentsaurrekoan.

ARANTZAZU EZKIBEL

ABUZTUA > MUSIKA, ZINEMA ETA ANTZERKIA AIRE ZABALEAN

Azken urteetan baino eskaintza kultural zabalagoa izango da aurtengo abuztuan

O.E. > BERGARA

Abuzturako Udalak prestatu duen kultura egitaraua aurkeztu dute Enara Minguez Kultura zinegotziak eta Maider Osa Kultura teknikariak. "Oporretako ohiturak ere aldatu egin dira eta abuztuan ez da hutsik egoten Ber-

gara. Bestalde, egoera ekonomiko dela-eta, aurtan aurreko urteetan baino jende gehiago egongo da, ziurrenik, abuztuan herrian. Horregatik, bi arrazoi horiengatik, pentsatu dugu egitarau zabalagoa izango dela", azaldu du Enara Minguezek.

MUSIKA ETA ZINEMA

Horrela, aire librean egingo dituzten jazz eta blues kontzertuak eta zinema dira abuztuan egingo dituzten ekitaldietako batzuk. Zinema herriko plazan izango da, eguenetan, 22:00etan. Abuztuaren 20an, esaterako, Aizpea Goenagaren *Sukalde kontuak* filma emango dute. Musika kontzertuak, berriz, Espoioan izango dira, abuztuaren 5ean, 19an eta 26an. Horiek ere, 22:00etan. Lehen kontzertua Miguel Salvador Project taldeak emango du. Hilaren 24an, Hortzmuga taldeak *Olympicas 2012* kale antzerkia egingo du herriko plazan, 22:00etan.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskoziuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

EDEL

TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

> FUTBOLA

Realeko zale talde berria egin nahi dute Bergaran

Lehenengo mailara igotzeko bidean, Realak Bergarako zale talde berri baten bultzada izango du 2009/2010 denboraldian.

Talde berri horretako kide izango nahi duenak Erreki erretegiara joatea baino ez du, 12:00etatik 15:00etara edota 18:00etatik 20:00etara. Bestela, 696 124 076 (Xabi) telefono zenbakira deituta ere posible da talde berriaren izena ematea.

Realeko jarraitzaileen taldea sortzeko lanetan dabilzaten asmoa da irail amaierarako taldea osatzea. Ez dute presaka ibili nahi, eta asmoa ez da sekulako jendetza batzea, baina bai 40 lagun inguruko koadrila batzea Reala animatzeko.

> TXIRRINDULARITZA

Arantzeta Asturiasen lehiatuko da domekan Euskadiko selekzioaz

Lokatza taldeko Xabier Arantzeta ziklista antzuolarrak Espainiako gazte mailako txapelketan hartuko du esku domekan, hilaren 16an.

Jon Aiestaran eta Iker Leonet hautatzaileen esanetara egingo du lan Arantzeta, eta Antzuolakoak seguruenik Haritz Orbe eta Ibai Salas taldekideendako egin beharko du lan. Hala ere, Sumofic taldeko ziklista pozik dago selekzioarekin Asturiasera joateko aukera izango duelako.



Iñaki Usabiaga zazpigarrena izan zen bakarkako saioan.

UGALDE

PIRAGUISMOA > BETI BUSTI

Eslalom txapelketatik zilarrezko dominarekin

Espainiako eslalom txapelketan lehiatu ziren Beti Bustiko kideak, eta bigarren postua lortu zuten Seo de Urgell-eko kanal olinpiarrean

XABIER URTZELAI > BERGARA

Taldeko kategorian zilarrezko domina eskuratu zuten joan den astean Bergarako kadete mailako piragunistek Espainiako txapelketan. Seo de Urgell-eko (Lleida) kanal olinpiarrean egin zuten txapelketa eta Aritz Gimbertek, Iñaki Usabiagak eta Patxi Ugaldak osatu zuten hiruko taldea.

Hain zuzen, taldeko ordezkari Kuxik adierazi du zilarrezko domina horrek meritu bikoitza duela: "Izan ere, gu errekan entrenatzen gara, baina kanal olinpiarrean ur korranteak bestelakoak izaten dira, eta ondo ibiltzeko espresuki entrenatu behar izaten da hor. Kontua da kanal olinpiarrean entrenamendu ordu

bakoitzeko 190 euro kobratzen dizkigutela, eta guk ezin diogu gastu horri aurre egin. Hala, sekulako meritua dauka Bergarako mutilek asteburuan lortutakoak".

Bakarkako eslalomean moduan, taldekakoan piragunistek zirkuitu bati egin behar izan zioten aurre, baina zazpi segundoko tartea baino ez zuten ate bakoitzetik igarotzeko. Hala, Bergarak bi talde aurkeztu zituen modalitate horretarako, lehenengo aipatutako talde txapeldunordearekin batera zazpigarren postu

tuan sailkatu zen Iraitz Alkorkak, Josu Mentxakak eta Eneko Iturrospek osatutako taldea.

BAKARKAKOAN ERE BAI

Taldekako modalitatean lehiatzearekin batera, Bergarako piragunistak bakarka ere lehiatu ziren, C-1 kategorian. Hala, bakarka lortu zuten postu onena Patxi Ugaldereana izan zen, kadete mailan laugarren. Eta, oso tarte txikiagatik ez zuen podiumean egotarik lortu. Lasterketa bereko final handian Iñaki Usabiaga zazpigarren sailkatu zen, eta kategorian berean Aritz Gimbert ez zen domekako finalerako sailkatu, zapatuko kanporaketan kanal olinpiarra jaitsi ostean hamargarren izan zelako; hain justu, finaletik kanpo geratu zirenen artean lehena. Gazte mailan, berriz, Josu Mentxakak ere maila polita erakutsi zuen, final nagusian bosgarren sailkatuta. Eta, senior mailan, bakarkako saioan Iraitz Alkorta hemeretzigarrena izan zen eta Eneko Iturrospek hogeigarren postuan amaitu zuen txapelketa.

Lleidan egindako txapelketatik pozik itzuli dira Beti Bustiko kideak, berrehun piragustaren artean aurreko postuetan ibili zirelako, eta taldeka ere sailkapen ona lortu dute: guztira, Estatu mailako hogeitau talde inguru izan ziren lehian, eta bergararrak bosgarren sailkatu ziren.

ASTEBURUAN, SORT-ERA

Beti Bustikoak aste barruan ibili dira hurrengo hitzordua prestatzen. Hain zuzen ere, oraingo asteburuan Lleidara egingo dute berriz ere bidaia, Sort-era: "Infantil mailako Beñat Lizarralde eta Jokin Labaien lehiatuko dira, baina oraingoan errekan ibiliko dira, Noguearan, eta ez kanal olinpiarrean".

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

SANTOS



DESKONTUAK
Renove plana etxetresnetan

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

trinmer
telecomunicaciones

tdt televisión digital terrestre

Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com



Etxera
eramaten dugu
Edaria, postrea eta
tabakoa eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €



943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

BERGARA
Margoak

Certificado ISO 9001 por

BVQi

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

JAIK > ANDRAMAIXAK

Loquillo, errekortadore eskola eta Bielorrusiako ikuskizunak jaietan

Gose taldearen kontzertuak hasiko ditu jaiak eta Loquillo izango da Andramari egunean, plazan

Bigantxen aurrean errekorreak egiten erakutsiko diete gaztetxoei Kurtzebarriko jolasgunean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Egunotan banatuko du Kultura Sailak Andramaixetako egitaraua. Yera Sanchez aretxabale-tarraren irudia izango du gainean eta Maddi Bengoetxearen esaldia barruan: *Hobe ezetz esaten ausartzia, gero eztau balixo ta damutziak!* Poltsikoko egitaraua ere banatuko dute.

GOSE ETA LOQUILLO

Abuztuaren 14tik 17ra bitartean ospatuko ditugu Andramaixak eta 92.000 euro inguruko aurrekontua dute jaiak. Nobedadeen artean bi kontzertu dotore ditugu: Arrasateko Gose taldearena -bigarren aldiz Andramari jaietan- abuztuaren 14an eta Loquillo abeslari ezagunarena Andramari egunean.

Balmoral diskoa aurkeztu zuen iaz Loquillok eta hara eta hona ibili da tarte honetan, biran: Madril, Bartzelona, Valentzia, Argentina, Peru, Uruguai...

Latindar Grammyrako izendatua egon zen, gainera, espainolez egindako rock disko onenaren sailean. Musika munduan 30 urte daramatzen Loquillok bi orduko ikuskizuna eskainiko du, herriko plazan.

ERA ASKOTAKO IKUSKIZUNAK

Ikuskizunei dagokien ere badaude nobedadeak; izan ere, Bielorrusiatik datozen akrobatik zirkuko akrobazien erakustaldia egingo dute herriko plazan, abuztuaren 16an. Bielorrusiatik datorren beste talde bat ere izango da Andramari bigarren egunean: Talaka taldeak balleta eskainiko du eta bertako produktuen azoka egingo dute, bitartean.

Bestalde, Trapu Zaharra taldeak *Lehiaketa* antzezlan eskainiko du kalean, abuztuaren 15ean, eta umeek Potxin eta Patxin pailazoak izango dituzte abuztuaren 16an eta *Ipuin Lapurra* txotxongilo emanaldia, 17an.

Loquillo abeslariak *Balmoral* diskoko kantak ekarriko ditu.

KULTURA SAILA

Eta gaztetxoek gustuko duten ikuskizuna izango dute: errekortadoreen eskola ibiltaria. Abuztuaren 16an da Kurtzebarri eskolako jolasgunean, eta bigantxen aurrean zelan egin errekorreak erakutsiko diete adituek; baita ikasitakoa praktikan jarri ere.

BETIKO EKITALDIK

Nobedadeekin batera betiko ekitaldiak izango dira: 30. mus txapelketa, iaz hasi zuten elizbira,

profesionalen pilota partiduak -Belloso eta Oteitza, Olaetxe eta Eskuderoren aurka, eta Berasaluzeko VIII.a eta Ibai Zabala, Sarailegi eta Mendizabal II.aren aurka-, 71. Leintz Bailarako txirindulari lasterketa -ibilbide aldaketarekin-, paella erraldoia, sokamuturra eta beste hainbat.

Mitarte kalean lanak egiten dabilta, baina Udalaren asmoa da porlana bota eta pasatzeko moduan uztea jaietarako.

oharrak

ZINEMA

> 'Fuga de cerebros' filma

Gaur, egubakoitza (21:30), eta astelehenean (16:00) *Fuga de cerebros* filma eskainiko dute Zariaia aretoan. Sarrera 2 euro.

ZINEMA

> 'Sukalde kontuak' filma

Eguaztenean (hilaren 29an, 21:30ean), egubakoitzean (hilaren 31n, 21:30ean) eta astelehenean (abuztuaren 3an, 16:00etan), Aizpea Goenagak zuzendutako *Sukalde kontuak* filma eskainiko dute Zariaia aretoan. Sarrera, 2 euro.

IKASTAROA

> Artearen gaineko ikastaroa

Hilaren 27an, 29an eta 30ean (11:00-13:00) artearen gainean hausnartuko dute Txema Valdecantos adituarekin. *¿Arte o qué?* izenburupean artelanak ulertzeko argibideak emango ditu Arkupen. Izena emateko aurrez deitu behar da.

DEIA

> Osoko bilkura astelehenean

Astelehenean, hilak 27, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak (18:00).

LIBURUTEGIA

> Abuztuaren 10etik 23ra itxita

Udako ordutegia dauka Udal Liburutegiak: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan: 10:00-14:00; martitzen eta eguenetan: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Abuztuaren 10etik 23ra bitartean, ostera, itxita egongo da.

KZGUNEAK

> Abuztuan itxita

Hainbat ikastaro egiten dabilta KZgunean uztailean: astelehenean, zuhaitz genealogikoak egiten irakatsiko dute (11:00-13:00) eta martitzenean, blogen gaineko kontuak (11:00-13:00). Abuztuan guztian itxita egongo da.

> JAIK

Santixau jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Goroeta auzoko bizilagunek

Kanpai errepikak jota eta txikiteoa eginda (19:00) hasiko dituzte gaur Santixau jaiak Goroetan. Bihar, Santiago eguna, meza nagusia izango dute (12:30) eta ondoren mokadutxo. Gauean, oster, afaltzeko elkartuko dira auzotarrak (21:00) Txome akordeoilaria lagun dutela. Domekan, meza izango dute (12:30) eta arratsaldean umeendako jolasak (17:00) eta mus eta briska txapelketak (18:00).



MIRARI ALTUBE

Jaialdiarekin agur udalekuei

Atzo, hilak 23, esan zieten agur udaleku irekiei herriko 230 neska-mutikok. Gazteria Zerbitzuko arduradun eta begiraleek pozik jardun dute udalekuetan, eta ez dute inolako arazorik izan. Eguraldia lagun izan dute, gainera, ur inguruan ibiltzeko inoiz baino aproposagoa. Herriko plazan jaialdia eginda bukatu dituzte aurtengo ekitaldiak.

AUTOBIDEA

Autobideko lanen erruz kaltetuei babesa

Udalbatzaren babesa eskatu zuten lurjabeek, eta aho batez eman zieten

M.A. > ARETXABALETA

Autobideko lanek kalteak eragin dizkieten lurjabeek idatzia aurkeztu zuten asteleheneko ezohiko osoko bilkuran udalbatzaren babesa eskatzeko. Luis Otadui eta Jesus Osinaga izan ziren idatzia aurkeztu zutenak, gainerako jabeak ordezkatzen zituztela.

2005eko martxoan erabaki zuten komisi bat sortzea lanei jarraipena egiteko, baina ez duela funtzionatu esan zuten. Bidegirekin hainbat aldiz elkartu direla jakinarazi zuten konponketa lanak bideratzeko, "baina jarritako epeak ez dituzte betetzen". "Ezintasun" horren aurrean babesa eskatu zioten udalbatzari eta behar den erakundetan kalteak jasandakoen eskaerak defendatzeko.

ENPRESAREN BERRIRIK EZ

Alkateak jakinarazi zuen Bidegiren eta Udalaren arteko harremana ona dela eta asmoa ez dela haren aurka egitea, aretxabaletarren interesak defendatzea baizik. EAJko Arritxu Olidenek gaineratu zuen Bidegiko Borja Jauregirekin egin zuela berba eta arazoa dela konponketa lanak egin behar zuten enpresaren berririk ez dutela. Neurriak hartuko dituztela esan zion Jauregik, eta lanak behar bezala bukatu. Aho batez onartu zuten udalbatzak lurjabeen interesak babestea.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

Arlutz taberna



ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Ezkutu

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE



Bokatak eta plater konbinatuak

Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40

IOSU

taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

Dorleta

BAR DORLETA

Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA



hemen bada

ORROR

UDALA > ETXEBIZITZA

Bidebarrieta kaleko etxe sozialaren alokairurako izenematea zabalik dago

Eskaerak udal bulegoetan aurkez daitezke abuztuaren 1a baino lehen

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Udalak Bidebarrieta kaleko 22. zenbakian hutsik duen etxebizitza soziala alokatzeko deialdia onartu zuen uztaileko osoko bilkuran. Deialdia hilaren 17ko aldizkari ofizialean kaleratu

zuten, eta eskaerak aurkezteko epea zabalik dago abuztuaren 1a arte. Eskaerak udal bulegoetan aurkez daitezke.

Bidebarrieta 22, 1-G deritzoten etxea alokairuan hartu gura dutenek Oñatin erroldatuta egon edo han bizi beharko dira. Bestalde, eskatzaileen eta bizikidetzaren unitatearen urteko sarrerak ezingo dira izan Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata baino 1,7 aldiz handiagoak. Gainera, eskatzaileek beste hainbat baldintza bete behar dituzte bizi diren etxea

aintzat hartuta. Hain zuzen ere, premiazko ekintzen, birmoldaketen edo ezbeharren ondorioz etxea galdu ondoren behin-behineko etxean bizi direnek; etxebizitza prekarioa dutenek; familiako beste kide batzuekin edo lagunekin bizi direnek; errentan bizi direnek; edo 36 metro koadrotik beherako etxean bizi direnek egin dezakete eskaera.

BALDINTZAK

Etxea alokairuan hartzeko puntuaketa handiena duen pertsona-

ri bost urteko kontratua egingo diote, eta derrigorrez etxean bizi beharko da. Gainera, ezingo du egin inolako hobekuntza lanik etxe barruan eta gastu arruntak oraindu beharko ditu: besteak beste, argia, ura, telefonoa eta gasa. Bestalde, errenta hilabete bat lehenago ordaindu beharko du, hilaren 1etik 5era, eta atariko bileretan parte hartu beharko du. Eraikin osoaren jabea Udalaren arren, funtzionamendua jabetza horizontaleko komunitateen berbera izango da.

Udalak, bere aldetik, etxearen kontserbazio gastuak ordainduko ditu.

ETXE BAKARRA HUTSIK

Udalak zazpi etxebizitza sozial erosi zituen Bidebarrieta kaleko 22. eta 24. zenbakietan. Horiek guztiak alokairuan eman ditu etxea erosteko edo alokairua ordaintzeko arazoak zituzten herritarren artean. Egun etxe bakarra dute hutsik, Bidebarrieta 22. zenbakiko lehen solairuko G etxea, hain zuzen ere.

JAIAK

Madalenako jaiak dira gaurtik domekara

Gorritik eta bere abereek saioa egingo dute bihar, 18:00etan

M.B. > OÑATI

Madalenako auzotarrek jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte. Egitarau zabala osatu dute: poteoa, erromeria, auzo-afaria eta animalien erakustaldia egingo dituzte, besteak beste.

Jaiak 19:00etan hasiko dituzte Madalenaren jaietsierekin. Ondoren trikipoteoa egingo dute bertsolarien laguntzarekin. 21:00etan auzotar guztiak bilduko dira afaltzeko. Miren, Agur eta Gorrika taldeak jarriko du musika 22:30etik aurrera. 00:00etan Bitz eta Nealta Folak kontzertua egingo dute.

BERAKATZ-ZOPA

Bihar, meza egingo dute 12:00etan. 18:00etan Gorritik erakustaldia egingo du animaliekin. Gauean musika eta berakatz-zopa (05:00etatik aurrera) izango dira protagonistak.

Domekan, Madalenako umeek Torreuzokoen kontra herri kirolak egingo dituzte. 16:00etan mus txapelketa egingo dute jaiak bukatzeko.

oharrak

DANBORRADA

> Danborrada nagusirako izenematea hilaren 29ra arte

Irailaren 28an egingo dute nagusien danborradan dantzari edo danbor-jole modura irten gura dutenek kultura etxean edo gaztelekuan eman behar dute izena.

IRTEERAK

> Arrikruzteko irteeragehiago egingo dituzte aste bukaeran

Arrikruzte zuzen-zuzenean delako irteera egingo dute bihar, 10:30ean euskaraz egingo dute eta 11:00etan espainolez. Bisitan parte hartu gura dutenek alde aurretik deitu behar dute 94 08 20 00 telefonora. Bestalde, abuztuaren egingo dituzte irteera gehiago: Arrikurtz zuzen-zuzenean abuztuaren 1ean, 15ean eta 29an; Arrikurtz kanpotik abuztuaren 8an eta 22an eta Arrikurtz barne-barnetik abuztuaren 9an eta 23an.

Gainera, ohiko bisitak egingo dituzte martitzenetik domekara arte.

ZERBITZUAK > LAGUNTZAK

Abuztuan zabaldu gura duten negozioen izenemate epea astelehenean itxiko dute

Behin-behineko izenematean 103 merkatarik eman zuten izena

Abuztuan egun osoz zabalitzen dutenek %100eko laguntza jasoko dute

M.B. > OÑATI

Bigarren urtez, Oñatiko Udalak dirulaguntza emango die abuztuan negozioa zabalitzen duten dendarietara eta tabernarietara. Behin betiko izenemate epea astelehenean itxiko dute. Behin-behineko izenematean 103 merkatarik eman zuten izena. Hain zuzen ere, 53k esan dute abuztu osoa goizez eta arratsalde zabalduko dutela; 20 merkatarik 15 egun zabalduko dute goiz eta arratsalde; eta gainerako 33ek hil osoa zabalduko dute, baina goizez bakarrik. Orain, bakoitzak zenbat diru jasoko duen jakinda azken erabakia hartu beharko du. "Udalak iazko diru kopuru bera gastatuko du, baina banaketa era proportzionalean egingo dute. Hortaz, merkatarik bakoitzak badaki egin duen aukeraketarengatik zenbat diru jasoko duen", esan digute Txanda Dendarien elkarteak.

Krisi garaian egon arren eta inbertsioetarako diru gutxi izan arren, udalak 48.000 euro bideratuko ditu laguntzetara.



Abuztuan kaleak bizirik egoteko laguntzak emango ditu Udalak.

MIREIA BIKUÑA

ALDAKETAK

Iaz, gutxienez hamabost egunetan denda zabaldu zuten guztiek 600 euro jaso zituzten laguntza modura. Aurten, merkatariek dirulaguntzen deialdiak hiru aldaketa ditu iazkoarekin alderatuta: alde batetik, abuztu osoan goizean eta arratsaldean zabalitzen dutenek laguntzaren

%100 jasoko dute; beste alde batek, goizean eta arratsaldean, baina hamabost egun bakarrik zabalitzen dutenek %55eko laguntza jasoko dute. Azkenik, hil osoan baina goizez zabalitzen dutenek laguntzaren %45 jasoko dute.

"Aldaketak egin ditugu, jakinik iaz merkatarik batzuek negozioa zabaldu baina laguntza barik

geratu zirela. Baldintza berriekin, aukera gehiago ematen diegu merkatariei eta norberak ondoren datorkion ordutegia aukeratu du. Iaz baino 27 merkatarik gehiago eman dute behin-behineko izena. orain ikusi beharko dugu zenbat animatzen diren negozioa zabalteko", esan digu alkate Lourdes Idoiak.

GAZTEAK > AISIALDIA

Eingeinke: herriko "pasibotasuna" bertan behera uzteko mugimendua

Bariku arratsaldeetan biltzen dira ludoteka aldamenen dagoen lokalean; bertan, bakoitzari bururatzeko zaizkion ideiak aztertzen dituzte

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Gaur egun herrian dagoen "pasibotasunarekin" amaitzeko eta ekintzen bidez kaleak "dinamizatze" asmoa du Eskoriatzako gazteek, eta horretarako, Eingeinke izeneko mugimendua sortu dute. "Edonori zabalik" dagoela eta, hortaz, gazteei bururatzeko zaien edozein ideia aztertzen dutela jakinarazi dute. Hori bai, proposamen horiek euskara "oinarri" hartuta izan behar dute.

Idea aspaldikoa bada ere, apiril aldean lanean jarri ziren herriko zenbait gazte. Batetik, eskoriatzarrei zerbaite mugitzen



Eingeinke mugimenduaren ikonoa margotuz herrian zerbaite mugitzen hasi dela iragarri gura izan dute.

MIRIAN BITERI

hasi zela oharazteko asmoz, Eingeinkeren ikonoa marraztu zuten herriko hainbat kaletan. Bestetik, Udalera jo zuten loka-

la eskatzeko: "Kalera begira egin behar ditugun ekimenak zehazteko eta behar bezala antolatze-ko tokia behar genuen-eta". Uda-

lak ludoteka aldameneko lokala utzi die.

Lokala eskuratu eta jarraian ekin zioten bilerak egiteari. Bari-

kuetan elkartzen dira, 18:30ean. Bakoitzak buruan dituen ideiak botatzen ditu batzar horretan. Dena den, ideiak jasotzeko beste bide bat ere badute: www.eskhoriatza.com webgunean duten blogaren bidez. Hara iristen diren proposamenak barikuetako bilere- tan aztertzen dira gero.

EKIMENAK

Dagoeneko hasi dira ekintzak antolatzen. Ekainaren 6an egin zen Ferixien bertso poteoa antolatu zuten; eta Axtroki argazki taldearekin batera, egun horretan egin zuten argazki lehiaketan ere gertu ibili ziren. Orain, uda dela eta erdi geldirik daudela onartu badute ere, iragarri dute laster irteera bat egiteko asmoa dutela eta irailetik aurrera lanean gogotsu jarriko direla berriro.

Gazteek, azkenik, azpimarratu gura izan dute Eingeinke mugimendua ez dela bakarrik oraingo garaietara mugatzen; datozen belaunaldiei begira ere sortu dutela azaldu dute.

UDALA > DATOZEN ASTEOTARAKO ORDUTEGIAK

Abuztuan ordutegi berezia izango dute udal zerbitzuek

Udaletxea eta Ibarraundi zabalik egongo dira goizetan; liburutegiak eta kultur etxeak abuztu osoa emango dute itxita

M.B. > ESKORIATZA

Abuzturako astebete baino ez da falta eta Eskoriatzako Udalak hilabete horretan udal zerbitzuek izango duten ordutegien berri eman du asteon. Abuztua-

ren 1etik 31ra bitartean udal- txera joan behar duenak jakin behar du goizez egongo dela zabalik, astelehenetik barikura arte; 10:00etatik 13:30era, hain zuzen ere.

Ibarraundi museoa ere bisitariak hartzeko gertu egongo da datozen asteotan. Horrek ere astegunetan izango ditu ateak zabalik, goizez: 09:00etatik 14:00etara. Bestalde, Udaletik jakinarazi dute abuztu osoan itxita egongo direla Udal Liburutegia eta kultura etxea.

KIROLDEGIA

Kiroldegiari dagokionez, aipatu dute abuztu osoan zabalik egongo direla kanpoko eta barruko igerilekuak honako ordutegietan: barrukoa astelehenetik barikura, 09:00etatik 21:00etara; zapatuan, 10:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 09:30etik 14:30era.

Kanpokora, berriz, astelehenetik zapatara bitartean, 10:00etik 20:00etara joan ahalko da; eta domekan eta jaiegunetan, berriz, 10:30etik 14:30era.



Ibarraundi astegunetan egongo da zabalik, 09:00etatik 14:00etara.

M.B.

LENIZ
ESKORIATZA



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyekto-reen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45

Pedro Iturbe > Alkatea

"Aurreko agintaldiko aurreikuspen faltak Udalarari eragin dio ekonomia arloan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Udal gobernu berria osatu eta legealdia hasi zela bi urte pasa direnean, Udalaren funtzionamenduz eta egindako lanen gainean jardun dugu Pedro Iturbe alkatearekin.

Nolakoak izan dira agintaldiko lehen bi urteak?

Lan askoko urteak, gogorak, baina gure balantzea positiboa da. Sartu ginen apartheid egoeratik, Udalaren egoera, inbertsioak, proiektuak ezagutu gabe eta moldata egin ginen. Gainera, Madrildik Justiziak gure lana baldintzatu nahi du. Baina abian zeuden inbertsioak txukun amaitu eta zerbitzuak abian ipini ditugu.

Agintaldirako aurreikusita-ko asmoak bete dituzue?

Bai; azpiegiturak hobetzeko beharra ikusi eta horretan dihardugu. Herritarren parte-hartzerari ateak itxitako agintalditik etorri, ateak zabaldu eta jendearen hitza kontuan hartu da. Herritarrei aukera emanez gero, euren kezka eta zalantzak egunero helarazten dizkigute eta horrek erraztu egiten digu Udalaren lan jarduna.

Aurrekoen hainbat lan amaitzea egokitu zaizue, ezta?

Bazirudien guztiz lotutako inbertsioak zirela, baina ohartu gara ezetz. Salatzekoa da aurreikuspenik eza eta herriari ez entzun izana. Aurreko agintaldiko aurreikuspen falta nabariaren ondorioz, 800.000 euro inguruko akatsa zegoen, eta horrek Udalarari eragin dio ekonomian. Ezagutza falta horrek baldintzatu du gure lana, baina txukun amaitu eta herria gustura dagoenez, pozik gaude.

Kalegoiko eta Eztalako proiektuek pisu nabarmena izan dute.

Kalegoi jaietarako zabaldu zen. Eztalan ere belarra ipinita dago eta falta da inguruko pista asfaltatzea. Aukera aprobetxatzen, eta hala egin da.

Krisiaren eraginez, hainbat proiektu alboratu dituzue. Nahikoa neurri da?

2009 hasieran, soberakinekin baserrietarako ur saneamendua eta auditoriumeko harmailak egitea zen asmoa, baina, prebentzio moduan, ez dira egingo. Lantzen dihardugu likidazio aurreikus-

"Herritarren kezkek eta zalantzek pistak ematen dituzte Udalaren lan jardunerako"

"Nahi dugu agintaldia amaitu aurretik eskolako aterpearen gaia bideratuta utzi"

pena eta horrek esango digu zein neurri hartu. Likidazioaren eta foru fondoko diru ekarpenaren arabera izango da hurrengo urteko aurrekontua, baina sarre- ra guztien beherakadak eragina izango du arlo gehienetan.

Udalak baserri auzoetarako badu proiekturik?

Agintaldi honetan uren inguruko diagnostia eta lehen fasera- ko exekuzio proiektua egin arren, egoerak aginduta gelditu da. Putzu septikoen inguruan aurreikusten da mantenua egitea. Gainontzean, bideak konponduko dira.

Herriko trafikoa mugatzeko hartutako neurriak ez dira bete. Gogorragoak hartuko dira?

Sentsibilizazio kanpaina egin eta emaitza onak izan arren, luze- ra lehengora bueltatu da egoera eta pentsatzen dihardugu zer egin horri erantzuteko. Sagastiko birl- bilguneari dagokionean, asteon onartu dute Diputazioan arau aldaketa, eta irailerako Errepide- etako diputatuarekin geratuta gaude birbilgunearen gainean berba egiteko; ea posible den agin- taldia amaitu aurretik egitea.

Kirol instalazioak berritzen ere lan handia egin da.

Frontoia egoera eskasean zegoen eta txukundu egin genuen; futbolari gazte askok kanpora jotzen zuen baldintza hobetan jokatzeko, eta lortu genuen Federa- zioiko eta estatu fondoko lagun- tzekin zelaia txukuntzea; Behoko auzoko kirolgunea egin ostean, eskolako estalpearen gaia dago mahai gainean. Gimnasiari dago- kionez, berriz, negoziatzen dihar- dugu hainbat enpresarekin.

Herri arteko azpiegiturak, bidegorriak edo AHTk ere eman dute zeresanik.

Matzerrekatik Bergararako bidegorria egin dezaten eskatzen ari gara. AHTren gainean betiko- ak tematuta daude antzularrei kaltea besterik egingo ez diren proiektuan: zarata, ingurumena, ongizatea... Udaletik saiatuko gara proiektua amai ez dadin.

Hurrengo bi urteetarako zein proiektu aurreikusi dituzue?

Finantza egoerarekin tentuz ibili behar dugun arren, nahi dugu agintaldia amaitu aurretik aterpearen gaia bideratuta uztea.



Pedro Iturbe alkatea, asteen, udaletxearen aurreko aldean.

IRATI AGIRREAZALDEGI

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOAK

Basili Ormazabal

EAJ-PNV

"Ondo legoke herritarrekin plan estrategikoa egitea geroa gertatzeko"

"Agindu ziguten udal garden eta partaidetza zabalekoa, bi urteotan, minimora iritsi eta udal presidentzialista bihurtu da. Legealdia hastear zela, iragarri genuen, oraingoan, aurrekoek hasi eta hain kritikatuak izan ziren proiektuak jarraituko eta amaituko zirela. Kostata, berandu eta kale batzuekin (museoa, baserrietako urak, kontsultoria eta gaztetxea), baina badirudi bukatzearek direla, aldakuntza nabarmenik gabe. Krisia dela medio, paradoxikoa izan arren, Zapateroren diruei esker egin dira Kalegoi eta futbol zelaia.

Geratzen diren bi urteak ez dira gozoak izango. Udaleko zorpetze handiak eta egoera ekonomikoak "finantza ingeniari- ritz" egitera eta baliabide berriak bilatzera behartuko gaitu. Bada zer egin, nahiz eta batzuetan gogoko politikak izan ez.

Bestalde, ondo legoke, gaurko egoera abiapuntutzat hartuz, herriaren partaidetzarekin epe ertain edo luze- ko plan estrategikoa egitea geroa gertatzeko: zeintzuk diren beharrak eta nola nahiko genuke 2015-2020ko Antzuola".

Pilar Etxaniz

ZUTIK-EZKER BATUA-ARALAR

"Udal talde nagusiaren jarrera irekiagoaren falta sumatzen dugu"

"Aurretik hasitako garrantziko proiektuak bukatzeak eta martxan jartzeak 2,5 milioi eurotik gorako zorra utzi digu. Krisi egoerak Antzuolari ere eragin dio, behar sozialak gehituz. Aurre egiteko beharrezkoa da udal talde guztien konpromisoa eta Eusko Jaurlaritza eta Diputazioaren gizarte mailako laguntza bereziak.

Positiboa da udal batzorde informatzaileak irekiak izatea; hala ere, udalgintzan informazioa, gehiengo legitimoa eta eskumenak erabiltzeko moduak markatzen du, besteak beste, udalaren izaera; zentzu horretan, udal talde nagusiaren aldetik jarrera irekiagoaren falta sumatzen dugu. Udalaren erronken artean daude Berdintasun Plana, gaztetxea, Narruola eta Sagastiko errotonda.

Baita ere eskubide guztien defentsa eta ideiak beste- ganako errespetuz azaltzea. Horretarako, herritarrei entzuten eta euren partaidetza bultzatzen saiatzen jarraitu- ko dugu legealdian barrena".

Francisco Morcillo

PSE-EE

"Balorazioa ez da ezkorra, baina egoera politikoa aldatu behar litzateke"

"Batzorde batzuek beste batzuek baino hobeto jardun arren, oro har, balorazio positiboa egingo nuke. Hirigintzan saiatu da adostasunetara heltzen eta horrek ekarri du Torresoroa amaitzea, Kalegoi urbanizatzea eta Eztala berritzea, eta aterpea egiteko asmoa ere hor da.

Aisialdian, kulturen, orain arteko bideari jarraitu arren, kultura zabaldu behar litzateke euskal hiztunak ez direnengana ere; jai arloan ondo jardun da; kirolean ere gazteak barnatze- ko lan egin da; Torresoroaren funtzionamendua ere ondo doa, beharbada irakurzaletasuna gehiago bultzatu behar da.

Adinekoen esparruan, erretiratuaren lokala apur bat txiki gelditu dela uste dut, baina eguneko zentroan ondo dihardute. Kritika egingo nuke, gizarte politiketan murrizketak egon direlako eta garbiketa arloan ere beharrak ikusi direlako.

Isaias Carrascoren hilketa izan zenean, mozio etiko- en harira tentsio handia izan zen. Hortaz, balorazio orokorra ez da ezkorra, baina egoera politikoa aldatu beharko litzateke".



Mairuaren Alarde berrituak jende asko erakarri du.

JOSETXO ARANTZABAL

JAIK > BALORAZIOA

Jai batzordeak dio "oso-oso ondo" joan direla herriko jaiak

Jai parte-hartzaileak izatea zen helburua, eta partaide eta ikusle aldetik, guztiz bete da hori

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuolako jaiak amaituta, Udaleko Jai batzordean balorazioa egin dute eta oso-oso ondo joan direla jakinarazi dute: "Jai parte-hartzaileak izatea zen helburua, eta ekintzetan parte hartu dutenen zein ikusleen aldetik helburua guztiz bete da".

Egunez egun izan da azpimarratzeko ekintzarik. Eguenean, jaiak hasteko modua eta ordua aldatu ziren eta begi onez hartu da jaiak goizean eta umeekin hastea; eta batukadaren arrakasta ere aipatu dute.

Egubakoitzean paella lehaketak izan zuen arrakasta. Hamar koadrilak hartu zuten parte, iazko marmitako lehaketan baino hiru gehiagok, eta giro aparta izan zen. "Gau partean, ordea, eguraldi euritsu eta hotzak jendea uxatu zuen".

Txosnetan ere izan zuen eragina egubakoitzeko eguraldiak, baina ibili da jendea eta giro polita izan da. Aurten agertokia ipintzeak taldeekiko gertutasuna eman du eta herri afarian ere giro polita izan zen.

ALARDE BERRIAREN ARRAKASTA
Zapatuan, Mairuaren Alardea "ahaztezina" izan zela dio Jai batzordeak. Mairuaren Alardea biziberritzeko taldeak ere oso balorazio positiboa egin du.

"Aldaketekin taldearen helburuak bete dira: alardearen inguruan jendeak zituen kutsu edo pertzepzio negatiboak gainditu dira eta parte-hartzaileak (200 lagun) eta ikusleak gehitu. Alardearen ondoren herrian poza eta ilusioa nabaritu ziren".

Udaleko ordezkariak, Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteko ordezkariak eta hainbat herritarrek osatutako Mairuaren Alardea Biziberritzeko Taldearen esanetan, "bide egokia hartu du alardeak, baina badaude hobetu beharreko gaiak; iraupenarena, esaterako. Taldeak lanean jarraituko du aurtengo alardea oinarri hartuta, datorren urtekoa erabat borobila izan dadin".

Domeka, jaietako azken eguna izan arren, ez zen, ordea, ekintzarik falta izan. Lehen aldiz jota nafarrak izan ziren eta jendeak gustura hartu zituen. Anelkarrek antolatutako elkartasun jaian aurreikuspenak gainditu eta jaiak berehala amaitu ziren. Larrain-dantza, berriz, inoiz baino herritar gehiagok egin zuen. "Ondarreko gaitarien lan bikaina ere ezin da ahaztu barik utzi".

Jai batzordekoek eta Mairuaren Alardea Biziberritzeko Taldekoek eskerrak eman nahi dizkiete zuzenean zein ikusle modura parte hartu dutenei.

ESANAK

"Taldeak lanean jarraituko du aurtengo alardean oinarrituz, datorren urtekoa erabat borobila izan dadin"

Alardea Biziberritzeko Taldea

JENDARTEA > ARRAUNA

Elgetako arraunzaleek prest dute denboraldia

Aste bukaeran Pedreñan eta Plentzian jokatu diren estropadetan izango dira elgetarrak, gehienak Hondarribiko trainerua animatzen

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Martxan da San Migel liga eta Elgetatik taldetxoa joango da aste bukaeran jokatu diren bi estropadak ikustera. Pedreñan (Kantabria) izango dira bihar, zapatua, eta Plentzian (Bizkaia), berriz, etzi. Hondarribiko trainerua animatzera joango dira gehienak, nahiz eta Elgetako arraunzaleen artean baden Orioko trainerua sutsuki defendatzen duenik.

EUSKAL HERRIKO BANDERA

Elgetako zaleek badute laster beste hitzordu garrantzitsu bat: San Inazio egunean, hilaren 31n, Euskal Herriko bandera jokatu da Hondarribian. Estropada bertatik bertara ikusteko aukera izango dute orduan elgetarrek; izan ere, Hondarribia Arraun Elkar-teak gonbidapen oso berezia egin die. San Migel ligako estropadetan traineru irabazleari bandera emateko erabiltzen duten bi solai-

ruko katamarana alokatu dute hondarribiarrek elgetarrendako. "Ez gara guzti-guztiak joango, baina pentsatzen dut 40 bat lagun elkartuko garela estropada hori hain toki pribilegiatutik ikusteko", adierazi du Josu de Vega elgetarrak. Esan gabe doa Hondarribiko arraunlariak Elgetan izango ditugula denboraldi amaieran urteroko bazkaria egiteko. Oraingoan, 3. sailkatuta daude San Migel ligan.

Aste bukaeran, Santixauak dira Goimendin

Berakatz-zopak eta erromeria egingo dituzte gaur Goimendin Santixau jaietako emateko. Bihar, Santixau eguna, ekintza gehiago izango dituzte: meza, soka-dantza, bertso saioak, trikitilariak, haur jokoak, herri kirolak, boleta txapelketa eta erromeria. Bisita bat egiteko moduko jaiak.



ARTXIBOA

ARANTZETA

Bost urte barru berriz elkartu nahi dute

L.Z. > ELGETA

Gustura ibili ziren arantzetarrek zapatuan Elgetan. Eguraldi bikaina izan zuten, eta, Euskal Herri osotik etorritakoez gain, Venezuelatik, Kolonbiatik eta Mexikotik ere etorri ziren, topaketari nazioarteko maila emanda.

Gauzak zein ondo joan diren ikusita, asmoa dute bost urte barru berriz elkartzeko deialdia egitea. "Familia kontuengatik Argentinatik ezin izan dira etorri, eta Alemaniatik ere etorri barik gelditu dira", adierazi du Luis Mari Arantzeta elgetarrak.

Argazki asko atera zituzten zapatuan eta asmoa da horiekin guztiekin liburua argitaratzea.

oharrak

ZOKKETA

> Mendi Kriteriumeko zozketako mendiko bizikleta jasotzeko

Domekan jokatuako Elgetako 25. Mendi Kriteriumean mendiko bizikleta zozketatu zuen, besteak beste, Elgetako Txirrindulari Elkar-teak.

Zenbaki saritua 1.459 izan zen eta lerrook idazteko unean saria jasotzeko zegoen oraindik. Sari-dunak hilabeteko epea du bizikleta erreklamatzeko.

Inor azaltzen ez bada ordeko zenbaki sarituari emango diote Orbea markako mendiko bizikleta; 2.707 zenbakidunari, hain zuzen ere.

JAIK

> Abuztuan Salvador eguna eta San Roke jaiak ospatuko dituzte

Abuztuan Salvador eguna eta San Rokeko jaiak izango ditugu Elgetan.

Salvador eguna abuztuaren 6a da, eta datorren asterako, hilaren 29rako, bilera deitu dute. Besteak beste, jai antolatu edo ez erabakiko dute, ekintzak adostuko dituzte eta lanak banatuko dituzte. Interesatuak Patxi tabernan dute hitzordua, 19:30ean.

Ezusterik ez bada, goiko kalekoek, berriz, abuztuaren 16an egingo dituzte San Rokeko jaiak. Antolatzeke daude oraindik.

abuztuko ordutegiak

ESTABLEZIMENDUA	NOIZ ITXITA	JULIAN KIOSKOA	4-27
ESPALOA	17-23	ANA LIBURUDENDA	1-31
OSTATU	15-30	UGARI-BEATRIZ	Arratsaldez
IÑAKI	17-23	ELKORO BOTIKA	Arratsaldez
BOLATOKIA	JAI EGUNETAN	ALTUBE OKINDEGIA	15-24

INBERTSIOAK > GANADUZALEAK

Ganaduzaleendako, 26.000 euroko partida

Lanak herriko lau mendi publikoetan egingo dituzte; abenduaren 31rako amaitu beharko dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

Herriko mendietan ganaduak dituztenei zerbitzuak hobetzeko inbertsioak egingo ditu Udalak. Inbertsio horiek egiteko, 26.000 euroko diru partida dauka Aramaio Udalak.

Dagoeneko hasi dira lanak egiten; izan ere, abenduaren 31 baino lehenago lanok bukatuta egon beharko dute.

UDALAK JASOTZEN DITUEN TASAK

"Guk esan genuen ganaduzaleengandik jasotzen genituen tasak sektorean inbertituko genituela berriro", azaldu du Asier Agirre alkateak. Udalak urtean, tasatan, kantitate bat jasotzen du; gutxi gorabehera, 6.000 euro. "Diputazioaren aldetik dirulaguntza bat jaso dugu, 20 bat mila eurokoa. Hortaz, Udalaren dirua eta Diputazioetik jasotako dirua inbertituko dugu lehenengo sektorean", esan du alkateak.

Inbertsioak non egin erabaki dute dagoeneko. Aramaion lau mendi publiko daude: Murugain, Tellamendi, Arangio eta Durakogain. Inbertsioak lau mendi horietan egingo dituzte. Besteak bes-

te, jarriko dituzte ganaduak ura edateko askak; ganadua txertatzerakoan, ganadua harrapatze-ko kaiolak; eta konponduko dira langa kanadarrak, eta baita itxitura batzuk ere.

BI HELBURU

Inbertsio horien helburua bikotza dela azpimarratu du alkateak. Alde batetik, ganaduzaleengandik jasotzen dituzten tasak sektore berean sartzea da helburua; eta, bestetik, ganaduzaleei ahotsa ematea. "Ganaduzaleena herriko sektore garrantzitsua da, eta mendiak garbi mantendu gura baldin baditugu, zaindu egin behar ditugu", azaldu du Agirrek.



KULTURA ETXEA

Martitzenean amaitu zituzten udaleku irekiak

Herriko ume eta gaztetxoek martitzenean egin zuten udalekuen agur jaiak. Uztailaren 8an hasi ziren udalekuekin, eta bi astez hainbat ekintza egin ostean martitzenean amaitu zituzten. Guztira 86 ume eta zortzi begirale parte hartu dute. Besteak beste, Etxaguengo errota eta bolatokia bisitatu dituzte; Otxandioko igerilekuan egon dira; eta Azkoagan ogia nola egiten dute ikasi duten. Duda barik, primeran ibili dira ume eta gaztetxoek!

> DEIALDIA

Bihar eta etzi Santikurtz ermita konpontzera joateko eskatu dute

Aixola auzoan dagoen Santikurtz ermita auzo-lanean konpontzeko deialdia egin dute. Eguraldi ona egingo duela aprobetxatuz, bihar eta etzi ermita konpontzera joango da herritar talde bat, eta laguntza eskatu dute. Hitzordua 08:00etarako egin dute Añai tabernaren aurrealdean, bai bihar eta baita etzi ere.

Norberak eraman behar du norberarentzat beharrezkoa den materiala; besteak beste, eskularruak.

> AZPIEGITURAK

Argiteria lanak egiteko proiektua onartuta, esleitzea falta da

Udalak argiteria lanak egiteko proiektua onartu du; horretarako, 321.034,47 euro bideratuko ditu. Ia auzo gehienak argiztatu-ko dira lehen fase honetan. Alkateak adierazi du lanok aurrera eraman ahal izateko mailegua eskatu dutela, eta orain Diputazioaren baimenaren zain daudela. Gero, baldintza-plegua aterako dute eta aurkezten diren enpresen artean esleituko dituzte lanok. Asmoa da irailan ateratzea lanok lehiaketara.

> BAKE EPAILEA

Blanka Mendiak izango da bake-epaile berria aurrerantzean

Aurrerantzean bake epaile berria egongo da Aramaion; hain zuzen, Blanka Mendiak izango da bake epailea, eta Migel Inuntziaga, oster, haren ordezkaria izango da. Lau urterako kargua izaten da, borondatez aurkeztutakoa. Bake epaileak astelehen goizetan udaletxetik pasa behar izaten du, eta gainontzeko egunetan ez dauka ordutegirik.

Mendiak orain arte irakaslea izan da eta orain dela gutxi erretiroa hartu du.

ASTELEHENKO
Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa Uztaileko irabazleak

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

ATXAGAREN LIBURUA



Arantxa Ugarte Bolibar
(Aramaio)

Floren Arana Barandiaran
(Arrasate)

Edurne Barrutia Urreta
(Aretxabaleta)

RIP TALDEAREN DVD-A



Jasone Uribesalgo Zugasti
(Aretxabaleta)

UMEENTZAKO LIBURUAK



Agustin Bolinaga Zubia
(Oñati)

MUNDUMIRAKO KAMISETA



Maite Beitia Abarrategi
(Aramaio)

SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA

Jose Angel Oianguren Arana
(Aretxabaleta)



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia
639 02 47 14S. Josepe, 10
943 77 01 33Kiroldegia
943 77 16 77



Eusebio Villar alkatea bulegoko mahai aurrean.

MIRARI ALTUBE

Eusebio Villar > Leintz Gatzagako alkatea

"Herrirako bi sarrerak egokitu gura ditugu Errepide Sailarekin"

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Urte bi egin ditu alkate lanetan Gatzagako Hautes-elkarteko zerrenda-buru izan zen Eusebio Villarrek. Proiektuak garatzeko dirurik eza da Udalaren arazorik garrantzitsuenen.

Bi urte pasatu dira. Zelako balorazioa egiten duzu?

Eguneroko lanak jan egiten gaituela esan behar, eta ezin pentsatu etorkizunean. Udaletxean, gainera, bi langile bakarrik ditugu eta nahikoa dute eguneroko lanari aurre egiten. Hortaz, ez dugu beste ezertarako astirik.

Udal txikiak egoera ekonomikoak baldintzatzen ditu, ezta?

Bai, udal txikietan dirua nondik lortu pentsatu beharrean izaten gara beti, dirua delako arazoa, proiektuak egiteko gertu izan arren. Hori horrela, Landa-gipuzkoa egitasmoak lagundu digu, baina ez da hain samurra kontua, emandako dirua asko izan arren, gehiago jarri behar delako. Nik uste dut Aldundian departamentu bakoitzak bere aldetik egiten duela lan, eta ez herrien beharrei begira.

Arlaban gaineko plan berezia duzu buruan hori esaterakoan?

Bai; ura eraman behar dugu Arlabanera planak aurrera egiteko. Landagipuzkoak lagunduko digu, baina Udalak ere diru asko jarri behar du; pentsa, Udalak, ahal duen guztia zorpetuta ere, ezingo dio gastuari aurre egin. Etorlur dabil proiektua egiten aurreproiektua Udalak egin

zuen-, baina finantzazioa nondik etorriko den esan beharra dago eta guk ez daukagu zer esan. 566.000 euroko aurrekontua du eta horri gehitu behar dizkiogu proiektuaren gastua eta lurjabe-ei eman beharreko ordaina. Datorren urterako utziko dugu proiektua, baina ez dakigu orduan ere egiteko gai izango garen.

Arlabango plana proiektu garrantzitsua da herrirako?

Ura Arlabanera eroatea oso garrantzitsua da, Lapikozulueta-ko iturburua lehortuta dagoelako eta orain konturatu garelako beste bat ere agortuta dagoela. Eta ura ezinbestekoa da Jakion Arlabanera joateko eta Gaztainuzketako mendi etxeendako. Bestalde, Jakionek derrigor joan behar du Arlabanera, eta lehenbailehen.

Landagipuzkoak lagunduko duen beste proiektu bat pilotalekua herritzea da.

Bai, proiektua Udalak egin da zuen eta orain Etorlurren oni-

ritziaren zain gaude. Hori jasotakoan, herritarrei emango diet lanen berri, eta asmoa da aurten hastea, urte bukaeran, edo datorren urte hasieran. Gainera, lehenbailehen egin beharreko lana da, pilotalekuaren txapela egoera txarrean dagoelako eta beste negu bat nekez iraungo duelako. Hiru bat hilabeteko lana izango da, eta tarte horretan itxita egon beharko du pilotalekuak.

AP-1en irekiera igarri duzue?

Autoen joan-etorria asko jaitsi dela Gatzagan esaten dute, baina Gatzaga zaharrean guk ez dugu hainbeste igarri, Landa eta inguruetara doazen asko pasatzen direlako; Arlabanen, behar bada, gehiago jaitziko zen.

Eta autobidearen lanek kalterik egin dute herrian?

Gatzagan lurpetik doa autobidea; hortaz, ez du aparteko eraginik izan. Lurjabe batzuei eragin die, eta laguntzen gabilta. Gure kezka beste bat da: zer gertatuko

den Gatzagako errepide zaharrek. Orain dela 200 urte egindako errepidea da eta ordutik ez da ezer aldatu, ez zabalera, ez bihur-guneak. Itxaron egingo dugu errepide horrekin ezer egiteko asmorik duten jakiteko, eta lau hilabete barru eskean joango gara. Herrirako bi sarrerak egokitu gura ditugu eta irailean helduko diogu horri Errepide Sailarekin.

Aipatutako proiektuez gain, beste lehentasunik baduzue?

Arau subsidiarioak 1986tik berriro barik ditugu, eta 10 urtera berrikustea komeni izaten da. Arazoa da herriko lurrak behe-rantz mugitzen direla eta hori begiratzeko azterketa geoteknikoa egin beharko litzateke; hala, herria norantz hazi jakiteko. Arauak berrikusteko badaude laguntzak baina azterketa geoteknikoendako ez, ondorioz gelditu dago guztia.

Saneamendu lanen hirugarren fasea egiteko daukagu oraindik, eta ur zikinak zuzenean botatzen ditugu errekarra. Hortaz, araztegi bat egitea garrantzitsua da, baina Ur Kontsorzioak ez du halako lehentasunik.

Krisia dela eta, aurrekontua murriztu duzue?

Gure aurrekontuak ez dauka murrizteko aukera handirik, baina bai; jaiak antolatzeke orduan, esaterako. Lanak egiteko 18.000 eta 24.000 euro artean izaten dugu, eta horrekin, zer egin? Geuk bakarrik ezin dugu ezer egin, eta beti besteen menpe izaten gara: Jaur-laritz, Aldundia...

"Udalak, ahal duen guztia zorpetuta ere, ezingo dio Arlabango proiektuari aurre egin"

"Asmoa da aurten hastea pilotalekuko lanak; hiru bat hilabete iraungo dute"

"Arau subsidiarioak berriro barik ditugu, azterketa geoteknikoa egin behar delako"

"Saneamendu lanen hirugarren fasea egiteko dugu, eta araztegi bat beharko genuke"

ARGINDARRA

Herritarrek ez dute izan aldaketarik zerbitzuan

Udalarendako lehen baino lan handiagoa da, eta etorkizuna erabakitzean dago

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Leintzargi SL enpresaren bitartez banatzen zuen Udalak argindarra lehen herritarren artean. Uztailearen 1a ezkerotik, CHC Energia da argindarra ematen duena. Herritarrendako ez da egon aldaketarik, baina, Eusebio Villar alkatearen esanetan, lan handia da Udalarendako: "Lehen baino lan handiagoa da eta, dirua galtzen hasiz gero, ez du merezi izango argindarra banatzen jarraitzea; hortaz, pentsatu egin behar etorkizunean zein bide jarraitu". Izan ere, Gatzagan baserri asko daude eta linea asko, mantentzen lan eta kostu handia suposatzen dutenak.

Energia herrian bertan sortuz gero, merezi izango lukeela dio Villarrek, baina horrek inbertsioak eskatzen ditu eta "Jaur-laritzak lagundu beharko luke".

> ZERGA

Ura, estolderia eta zabor zerbitzuak ordaintzeko epea

2009ko bigarren hiruhilabeteke etxeko edateko ura eta estolderia zerbitzuaren tasaren errolda onartu dute eta zabalik dago ordaintzeko epea. Ordainagiri helbideratuak ez dituztenek uztailearen 9tik irailaren 8ra bitartean ordaindu beharko dute udal-letzeko idazkaritzan.

Eta lehen seihilabeteko zabor-batze zerbitzuaren tasaren errolda ere onartu dute. Uztailearen 6tik irailaren 5era ordainduko da.

> INTERNET

Hainbat ikastaro gaur KZgunean Aitor Madridekin

Gaur, egubakoitza, Aitor Madrid begiralea egongo da KZgunean (16:00-20:00). Herritarren zalantzak argituko ditu eta horrez gain hainbat ikastaro egin. Interneten gaineko azken kontuak ezagutzeko ikastaroak dira, eta guztiak motzak -bi ordukoak-: *Skype*, *Blogger*, *Youtube*, *Wikipedia* eta *Google* tresnak.

PILOTA > EUSKAL HERRIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Bergarak zain du Euskal Herriko txapela, Zornotzan

Euskal Herriko herri arteko finala jokatuko dute bihar Zornotzan, 10:30ean

Gaur, egubakoitza, 22:00ak arte egongo dira sarrerak saltzen frontoian

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ikasturtea errematatzea, horixe falta zaie Bergarako pilotariei, Gipuzkoako herri arteko titulua-rekin konformatu ez eta Euskal Herriko garaikurra ekartzea; eta bihar egin ahal izango dute hori, Legutioren kontrako finalean.

Puntako pilota taldea dauka Bergarak, eta joan den egubakoitzeko kanporaketan erakutsi zuten zaleek eurak ere taldearen mailan dabiltzala, beste behin: "Ez genuen horrelako giro bikainik espero. Bergararen eta Iruñearen arteko finalerdia ikustera joan ginen, eta harrituta geratu ginen Bergarako pilotalekuan izan zen giroarekin. Guk ez dugu horrelakorik". Biharko finalean kontrario izango duten Legutioko pilota elkarteko presidente Josu Fernandez de Larrinoaren berbak dira.

ZALEAK FRONTOIRA ERAKARRI

Tituluak alde batera utzita, hori da Bergarako pilota elkarrekin aurtun egin duen lorpen handietako bat: zaleak frontoira erakar-

tzea; alegia, Hernaniren edo Azkoitiaren parean jartzea. Eta, Zornotzan jokatuko duten finalerako ere Bergarako taldeko ordezkari Reyes Azkoitiak beste horrenbeste espero du: "Joan den egubakoitzeko kanporaketa sekulakoa izan zen, eta pentsatzen dut biharko finalera ere jende asko joango dela taldea animatzera".

Hain zuzen, Bergaratik autobusa jarriko dute bihar Zornotzan jokatuko den finalera joateko (10:30), eta sarrerak nahi dituenak gaur, egubakoitza, 22:30ak arte izango ditu eskuragai, frontoian (5 euro). Bestela, 636 371 591

edota 670 955 716 telefono zenbakietara deituta ere lor daitezke finalerako sarrerak.

ARAU EZBERDINAK

Finalera iritsi diren bi taldeen artean bada alde nabarmen bat: Gipuzkoan herriko pilotariekin bakarrik joka daitezke txapelketa hori. Gaintzeko lurraldeetan, berriz, posible da beste herri batzuetako pilotariak hartzea: "Araban derrigorrezkoa da pilotarien %50 herrikoak izatea, herrikoak edo klubekoak", adierazi du Fernandez de Larrinoak. Eta, hain zuzen, Legutiokoarendako hori izan da txapelketan



Gazte mailako Rezusta aurrelaria, Iruñearen kontrako kanporaketan pilota astintzeko gertu

izan duten zailtasun handiena, partiduak ze pilotarik jokatu behar dituzten erabakitzea, alegia: "Taldea baten edo bestearen

kontra jokatzea baino zailagoa izaten da zeintzuek jokatu behar duten erabakitzea, eta zapatuko finalera begira ere halaxe gaude, zalantza bat baino gehiagorekin".

KONTUAN HARTZEKO

Aramaioko Ander Axpe Legutioko taldean dabil, kadetetan

Legutioko taldean Ander Axpe aramaiorak jokatzen du, kadete mailan. Axpek hiru urte daramatza Legutioko klubean, eta, denboraldian zehar hainbat partidu jokatu baditu ere, Legutioko pilota taldeko presidente Josu Fernandez de Larrinoak aurreratu du zaila izango dela Aramaiokoa finalean titular egotea:

"Kadetetan hiru pilotari ditugu, eta seguruenik Adrian Obregonek eta Ibai Fernandez de Larrinoak jokatuko dute; horrenbestez, Axpe ordezkoko gisa egongo da".

Axpek gazte mailara egingo du salto datorren denboraldian, eta aurtun Vital Kutxa txapelketan txapeldunorde izan da.

KONTRARIOEN GAINEAN

Pilotarien gainean galdetuta, Reyes Azkoitiak argi dauka Legutiok non dituen pilotari indartsuenak: "Kadete mailako Obregon oso pilotari ona da, eta ondo jokatu beharko dugu haren kontra. Eta seniorretan ere Azpiazu oso pilotari osoa da". Hain zuzen, Bergarako seniorretako bikote-

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Arexabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

arexabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

EKONOMISTAK

ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA

ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.



(22-10); atzean, Irizar bikotekidea.

JOSETXO ARANTZABAL

IKUSPUNTUA



Reyes Azkoitia

Herriko zaleak gu baino hobeto egon dira

Ikasturteko azken partidu garrantzitsura iritsi gara, eta bide luzea egin dugu honaino iristeko, hasieran pentsatu ere egiten ez genuen finalera iristeko.

Gipuzkoako herri arteko txapelketa ilusio handiarekin hasi genuen, eta Andoain izan genuen lehenengo kontrarioa. Donostia aldeko lagun batek esan zidan Andoainek talde indartsua zuela, eta haiek mendean hartzeak indarra eman zigun. Ez dakit zergatik, baina Andoainen kontrako itzulerakoan bagenekien aurrera egin behar genuela.

Ondoren etorri ziren Azkoitiaren kontrako kanporaketa, Donostiaren kontrakoa eta Hernaniren kontrako finala. Partidu batetik bestera geroago eta konfiantza handiagoa geneukan, eta finalean garaipen ederra lortu genuen -sufritu izanak ederrago egiten du garaipena-. Herritarrek egin ziguten harrera ez sinistekoa izan zen; zaleak gu baino hobeto ibili dira. Baina zera azpimarratu nahi dut, pilotalekuan kontrarioari errespetua zor zaiola, baita harmailatik ere. Joan den astean gutxiengo batek txistu egin zien Iruñekoei; hori izan da gustatu ez zaidan gauza bakarra. Gainontzean, hamarrekoa.

JUDO > ARRASATEKO TALDEAK 25 URTE

Klubaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldia bihar

Ikastaroak egingo dituzte, eta baita lehenengo judokak omendu ere

ematen. Defentsa pertsonala borroka arte sinpleena da, baina baita oso eraginkorra ere; horrenbestez, jendea anima dadila parte hartzera".

BAITA OMENALDIA ERE

Ospakizun ekitaldia, baina, ez da hor geratuko, orain dela 25 urte taldea abian jartzen lanean ibili ziren lagunak omenduko dituzte-eta: "Orduan hainbakek ez zuten lortu gerriko beltza ateratzea, gaur egun baino askoz ere zailagoa zelako. Baina orduan egindako lanagatik omendu gura ditugu".

Omenaldia jasoko dute Manu Montianok, Idoia Ariasek, Floren Batxillerrek, Victor Gonzalezek, Aitor Aranbarrik, Fernando Zabalok, Joseba Zubiaurrek, Xabier Bengoak, Josu Arabalazak eta Miren Granadosek.

X.U. > ARRASATE

Arrasateko Judo Taldeak 25 urte bete ditu aurtun, eta bihar, zapatua, ospakizun ekitaldia egingo dute: "Ate irekien jardunaldi moduko bat egingo dugu bihar. Hala, animatzen den edonor gonbidatuta dago 10:00etan Musakolako Antoña kantxan egingo dugun defentsa pertsonaleko ikastarora", adierazi du taldeko ordezkari Julio Gallekok. Erabat doan izango da, eta hasiera batean emakumezkoen zuzendutakoa da: "Ikastaro oso oinarritzak egingo dugu eta bi irakasle izango gara eskola hori



Arrasateko taldeko bi judoka, Mojategin, erakustaldia egiten.

JUDO TALDEA

an du Azkoitiak zalantza handiena; izan ere, Mugurutzak min hartuta jokatu zuen azkeneko kanporaketa: "Eta pilotari bat eskueztatik justu samar dagoenean ezin da mirari handirik egin, batez ere atzeko koadroetan jokatu behar badu".

Legutiko ordezkariak, aldiz, Bergarako pilotarien gainean egin du berba: "Kadete eta gazte mailetak atzelariak gustatzen zaizkit. Atzelari serioak dira, pilota gutxi galtzen dituztenak, kontrario gogorrak. Eta seniorretan Ander Mugurutzak sekulako

partiduak jokatu ditu. Aurrelaria izan eta atzean horrela jokatzea... Bestalde, aurrean Enekok sekulako indarra dauka, eta horretan oinarritzen da pilotan egiteko".

Denboraldiko lorpen handiena Gipuzkoako herri arteko irabaztea izan bada ere, biharko finalera iristeko pilotari bergarrek aparteko esfortzua egin dute: "Seriotasunez hartu dugu txapelketa, eta bertan jokatzeke alde batera utzi ditugu beste txapelketa batzuk. Baina, finalera iritsita, merezi izan du".

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



ZUHAITZ LARRAÑAGA



IDURRE AMOZARRAIN



OLAIA ZENGOTITABENGOA

Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da uztailaren 3an eta amaituko da irailaren 18an.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri:
 - Arrasate: Otorala Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
 - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
 - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta
 - Basabe poligonoa E-0-5, 20550 Aretxabaleta.
- Parte-hartzaileek, gehienez, 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAN eta Goiena.net-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere emango dira.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAKO artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiltzea erabakitzen, badugu egilearen izena ipiniko dugu.

Sariak

1. saria: Olympus E-420 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. Live View AF sistemarekin. / 10 milioi pixel. / Zuiko digital 14-42 mm-ko objektiboa. / Flash eta gutxi. 2,7 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.



2. saria: Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiek-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



Harpidedun egiteko:

943 08 10 50
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara



Ziarsolo, Aranes, Ugalde eta Caballero, sari banaketan.

OSCAR CARRASCAL

TENISA > UDABERRIKO TXAPELKETA

Eneko Ugaldek iazko txapeldunari irabazi dio

Hiru ordu eta erdi iraun zuen Eneko Ugalderen eta Jorge Aranesen arteko finalak

X.U. > BERGARA

Joan den domekan jokatu zituzten IV. Udaberri Tennis Txapelketako finalak, eta Eneko Ugalderen eta Jorge Aranesen arteko final lehiatsua ostean –hiru ordu eta erdi iraun zuen–, Ugaldek iazko txapeldun Aranes mendean hartu zuen.

Bi jokalar horiek izan dira txapelketan lehenengo eta bigarren, eta Iñigo Ziarsolok eta Jose Caballerok bete dituzte

sailkapeneko hirugarren eta laugarren postuak.

25 LAGUNEK HARTU DUTE PARTE

Tennis txapelketak urtetik urtera arrakasta handiagoa du, aurtengo edizioan 25 lagunek hartu dute eta esku. Hurrengo tennis txapelketa Oñatin egingo dute, San Migel jaien barruan. Irailaren 3an zabalduko dute izenematea eta irailaren 12an hasiko dute txapelketa.

ALPINISMOA > NATURGAS HORNBEIN 2009 ESPEDIZIOA

Everest estilo alpinoan eta Hornbein bidetik

Makaluko espediziotik hiru hilabete igaro direnean heldu diote Iñurrategik, Zabaltzak eta Vallejok hurrengo erronkari: Everest igo Hornbein korridoretik

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bueltan datoz eta estilo alpinoan, gainera. Makaluko espedizioak utzitako zapora gozia gozo bilakatu gura dute Alberto Iñurrategik, Juan Vallejok eta Mikel Zabaltzak. Hori egiteko ez dute askorik itxaron gura izan, abuztu amaieran abiatuko dira Himalaia aldera, eta eguraldiak laguntzen badu, iraileko lehenengo astean egingo dute Everestera (8.848 metro) igotzeko saiakera, Hornbein izeneko korridoretik.

BEHIN BAINO EZ DUTE IGO

Hain zuzen, zazpi igoera baino ez dituzte egin korridore horretatik –azkena 1991n–, baina espedizio



Naturgas espedizioko kideak, Baruntseko tontorrean.

BAT

bakarrak lortu du bide hori estilo alpinoan eta oxigeno barik igotzea –Loretan eta Troillet suitzarrak egin zuten, 1986an–. Eta, halaxe igotzen ahaleginduko dira Naturgas Basque Team espedizio kideak, soka finko barik, kanpoko laguntza barik, alturako kanpaleku barik eta oxigeno barik; hau da, tontorra lortzearekin itsutu beharrean mendia

igotzeko moduari garrantzia emanaz. Izan ere, azken urteotan galdu egin den zerbait da hori.

Hornbein korridoreak Everesteko ipar aurpegian dagoen 3.000 metroko horma zeharkatzen du. Vallejorendako eta Iñurrategirendako ez da erronka berria, 2006an ahalegindu ziren bide hori igotzen, baina orduan 500 metrora geratu ziren.



Bai Euskarari Ziurtagiria

balioa eta berrikuntza

1.600 entitate baino gehiago ziur daude



ZADORRA - ETXEA

AGURAIN

DONOSTIA



NEKATUR

ERANDIO
ARLANSOKOA
HENDAIA

SOKOA



ELKAR

IRUÑEA

IURRETA
IURRETA INSTITUTUA

MENDIA OPTIKA

GASTEIZ

LAGUNTZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuakziurtagiriaren **elkartea**

902 430026

baieuskarari.org



> **MUSIKA**
Balkan Beat Box taldearen kontzertua bihar Monterronen > 32



> **ABUZTUAN ZER**
Zinema eta musika protagonista nagusiak, uda honetan > 32

> **BEÑAT ALBERDI**
Bertsozale amorratua da Beñat Alberdi oñatiarra; gazte horri txikitatik gustatu izan zaio bertsolaritza eta bertsotan aritzea > 36



Elkano Browning Cream zapatuan Eskoriatzan

Aitzorrotz Kultur Elkartearen 'Errekan gora' programazioaren bigarren hitzordua bihar Eskoriatzako plazan

Bigarren diskoaren grabazioa amaitu dute Elkano Browning Cream taldeko kideek

Soul elektronikoa eta funkya uztartzen ditu Mikel Azpiroz donostiarrak zuzentzen duen taldeak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Aitzorrotz Kultur Elkartearen *Errekan gora* programazioaren barne, Elkano Browning Cream taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Eskoriatzako plazan, 22:30ean.

Mikel Azpiroz donostiarrak da Elkano Browning Creameko liderra eta proiektuaren koordinatzailea. Taldea gauzatu baino lehen Fran Iturbe gitarrista beragarrarekin eta Karlos Arantze-gi tolosarrarekin jardun zuen Azpirozek. Duela hiru urtetik taldeak formazio egonkorra dauka eta Azpirozekin batera Matt Harding estatubatuarrak eta Franck Mantegari frantziarrak dihardute. Disko bakarra argitaratu dute orain arte, baina bigarrenaren grabazioa amaitu dute. Mikel Azpirozek: "Donostian grabatu dugu eta udazkenean kaleratuko dugu. Bederatzi eta hamaika kantu bitartean izango ditu diskoak eta izenburua 2 izango da ziurrenik".

DISKO BERRIKO KANTUAK

Hain zuzen ere, kantu zaharren (*Demons and the bank*, *Intermission*, *Blame it on the Judge*, *Agur*



Mikel Azpiroz donostiarrak da Elkano Browning Cream taldeko liderra.



Mikel Azpiroz (sintetizatzaileak), Franck Mantegari (bateria) eta Matt Harding (gitarra eta ahotsa).



Elkano Browning Creamek bigarren diskoa aterako du udazkenean.

Jaunak...) gainbegiratu egiteaz gain, disko berriko kantuak ere eskainiko dituzte biharko kontzertuan. "Gure estilo oso erritmiko horretan jardungo dugu, inprobisazioari tartea eginez", dio Azpirozek. Debagoienean emango duten bigarren kontzertua izango da biharkoa, 2007ko martxoan Arrasateko 3.60 aretoan jo baitzuten. Azpirozek hitzetan, "ez da erraza gurea bezalako proiektu bat aurrera ateratzea, Matt Salt Lake Citykoa delako eta Franck Parisekoa. Baina saiatzen gara aldi behin elkartzen, proiektu honendako agendan lekutxo bat gordeta". Azken emanaldia apirilaren 4an egin zuten, Bartzelonako Jamboree aretoan eta aurretik, martxoan, Ekuadorretik bira egin zuten.

JAZZALDIAREKIN GOZATZEN

Orain dela hiru urte Donostiako Jazzaldian jo zuten baina aurten ikusle moduan dabil Azpiroz Jazzaldian gozatzen; "Hank Jones pianista beterranoa ikusi nahi dut, jazzaren garai handien lekukoa delako, Miles Davis edo John Coltrane-rekin jo izan duena; Abdullah Ibrahim & Ekaya eta James Taylor ere interesatzen zaizkit...". Bestetik, zer entzuten dabilen galdetu diogu: "Denetik entzuten dut, eta musika zahar asko. Oraintxe, autoan, Doctor Johnen *In the right place* diskoa entzuten nentorren... Sekulako diskoa da".

Elkano Browning Cream izena Donostiaren gaineko erakusketatik ateratu zuen Azpirozek: "Iragarki zahar bat zegoen, antza Donostiako drogeria batek *Belle Epoque* garaian-edo kalera-tutako eguzkitako krema batena: Elkano Browning Cream. Izenak erakarri ninduen erakusketatik hant ikusi nuenetik". Oraingoz ez dute eguzkitako krema hori berreskuratu eta komertzializatu. Edozein modutan, haren beharrik ez duzue izango bihar gauean. Azpirozek zera dio: "Gau polita egiten badu, ez da leku txarra Eskoriatzako plaza emanaldi baterako. Aire zabaleko emanaldiak gustuko ditut, are gehiago izarren azpian jotzeko aukera badugu...".

KONTZERTUA > 'UDAZABAL' PROGRAMAREN BARNE

Balkan Beat Box, mestizaje taldea zapatuan Monterronen

Hango eta hemengo musika estiloak nahastea da taldearen ezaugarrietako bat

Taldea 2004. urtean sortu zuten eta 'Nu Med' da haien bigarren diskoa

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Balkan Beat Box taldeak *Nu Med* diskoko kantuak aurkeztuko ditu bihar, zapatua, Monterronen, 22:30ean. *Udazabal* egitarauaren barruan antolatutako emanaldia da biharkoa eta sarrera doan izango da.

Ori Kaplan saxofoi-jotzailea da taldeko sortzaileetako bat. Haren hitzetan, "mugarik egongo ez balitz, Mediterraneo berriaren musika soinua izango zena islatzen saiatu gara *Nu Med* diskoan: juduak, Balkanetakoak, arabiarak, siriarrak, europarrak edota marokoarrak batu ditugu hip-hop oinarrien eta dance-hall abestien bitartez". Goian aipatutakoa taldearen bigarren diskoa da; zuzeneko emanaldien indarra grabazio estudioa eramaten saiatu dira Balkan Beat Box taldeko kideak.

BOST URTEKO IBILBIDEA

Taldea 2004. urtean sortu zuten. Ori Kaplanekin (Gogol Bordello kide ohia) batera, Tamir Muskat (Firewater taldeko bateria-jotzailea) eta Big Lazy izan ziren taldeko sortzaileak. Musika elektronikoa, batetik, eta Ipar Afri-



Argazkian, Balkan Beat Box taldeko kideak.

GOIENKARIA

kako, Ekialde Ertaineko, Balkanetako eta Ekialdeko Europako folk musika, bestetik, nahasten ditu taldeak. Ori Kaplanek zera azpimarratzen du: "juduek eta ijitoek urtetan zehar herrialde bereetan bizi izan dute; ijitoen musika eta juduena, beraz, gertukoak dira. Gu herrialde batetik bestera ibiltzen gara eta besteen

kantuak jotzea gustatzen zaigu. Jazarpena eta mina ezagunak dira guretako ere".

ESTILOEN FUSIOA

2005ean argitaratu zuten lehenbiziko diskoa eta kritikak harre-beroa egin zion taldeari. AEBetako *underground* zirkuituetan jarraitzaile ugari lortzera iritsi

zen BBB. Tamir Muskatek zera dio: "Ijitoa arimaren definizioa da, ez kolore edo leku batena". Bulgaria, Maroko, Espainia, Israel eta Turkiako artisten kolaborazioekin, mundu osoko estiloak uztartzen dituzte bigarren diskoan. Mestizajea aldarrikatzen dute eta sorpresaz betetako kontzertua iragarri dute biharko.



Organiks taldeak Bergaran, Espoioan joko du abuztuaren 26an.

GOIENKARIA

DEBAGOIENA > ABUZTUKO PROGRAMAZIOA

Hainbat ekitaldi abuztuan hemen geratzen direnendako

Zinema eta musika protagonista nagusiak; Oñatiko surf festa, abuztuaren 28an

E.M. > BERGARA

Abuzturako hainbat ekitaldi iragarri dituzte Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. Arrasaten, zinema izango da protagonista: Monterronen aire libreko emanaldiak izango dira hilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an. *Superagente 86*, *El incidente*, *Viaje a Darjeeling* eta *La noche es nuestra* botako dituz-

te hurrenez hurren. Emanaldiak 22:30ean izango dira.

ZINEMA ETA MUSIKA

Bergaran ere zinema emanaldiak izango dira eguenero plazan, 22:00etan, eta horrez gain kontzertuak Espoioan: Miguel Salvador Project hilaren 5ean, Casual Blues 19an eta Organiks 26an. Hilaren 24an Hortzmugaren *Olympicas 2012* kale antzerkia plazan, 22:00etan.

Oñatin, zine emanaldia izango da hilaren 28an, gaztelekuan, 17:00etan eta eta surf festaren III.ekitaldia hilaren 28an egingo dute San Anton plazatxoan.

ERAKUSKETA

Santa Ageda, Zumetaren inspirazioa

San Juan de Dios psikiatrikoko gaixoen 'Globo rojo' aldizkaria hartu du oinarri

E.M. > BERGARA

Jose Luis Zumeta margolariak (Usurbil, 1939) *Oi! Bihotz Ay! Corazón Oh! Heart* izenburuko erakusketa jarri du Bilboko Arte Ederren Museoan. *Globo rojo* aldizkarian sartutako testu eta poemetan inspiratuta sortutako *Oi! Bihotz* liburuaren zati dira Bilbon ikusgai jarritako 38 serigrafiak. Ustez surrealistentak diren berbak hartu eta errealeismorantz jo dute artistaren irudiek. Usoa Zumetak, margolariaren alabak, estapatu ditu serigrafiak.

Globo rojo aldizkaria Santa Agedako San Juan de Dios ospitale psikiatrikoko gaixoei idatzitakoa da. Zumetaren hitzetan, "beti interesatu izan zaizkit alde batera dagoen jendearen lanak, akademiatik at dagoen jendearen lanak: grafitiak, haur-pinturak, arte herrikoia...". Erakusketa irailaren 13ra arte dago abal.



Jose Luis Zumeta margolaria. I.A.

> MUSIKA

Pikulitxa Roots jaialdia zapatuan Gorlan

Bihar, zapatua, Pikulitxa Roots jaialdiaren beste ekitaldi bat ospatuko dute Bergaran, Gorlako kantinan.

Jaialdia 21:00 aldera hasiko da eta honako taldeek hartuko dute parte: Emon (Bergara), Lutxana Crew (Bilbo), Digwash (Hendaia) eta, azkenik, Kale Nagusiko Sound Sister izeneko disko jartzailearen saioa izango da.

Antolatzaileek biharkoa dantza eta sentimendu jai izatea nahi dute. Aurreko edizioak sasoi honetan egin izan dituzte eta musikazaleei hara joateko gonbita egin nahi diete.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Igandeetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15

www.larrinetxe.com

Eskaintza


- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita

Jatetxe Gida



Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39

www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

Igande gauean itxita.



Txondorra erretegia

Bizkaia etorbidea 9 / ARRASATE
Tel.: 943 79 42 76

Eskaintza

- Asteartetik Ostiralera menu berezia.
- Sagardotegiko menua.
- Menu pertsonalizatuak.
- Karta.
- Atsedeen eguna: Astelehena

Haragi eta arraina txingarretan erreta.



Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxebizitza argitsua salgai erdigunean. Bi logela eta bi komun. Nahiko berria. Berogailuarekin. 665 72 28 46.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zigarrolan. 65 metro koadro. 4. solairua. Sukaldea, bi logela, egongela, komuna eta bi terraza. Berogailuarekin. Etxea guztiz jantzita uzten da. Deitu 679 29 90 85 telefonora.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza ematen da errentan. Interesa duenak dei dezala 696 72 27 00 telefono zenbakira.

Arrasate. Estreinatzeko dagoen etxea errentan ematen da. Urribarriko eliza atzean dago. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Denek kanpora ematen dute. Igogailua eta garajea ere bai. Deitu 685 72 78 23 edo 670 84 52 46 telefono zenbakietara.

DEBA
GARAIAINMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arte kale, 89 m², ondo.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparagirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trasteleku.
- Zubiurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziagarria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearrekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berrituko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berrituko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erakuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubieta, Martokan eta San Lorentzon.**

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiurre 230 m². Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbarearekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarearekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiurre 55 m². Berritua. 84.162 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

Antzuola:

- Buztinuzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearrekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135.000 €.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Arrasate. Erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean, lau logelako pisua ematen da errentan ikasleentzat. Prezio negoziagarria. 616 50 67 28 edo 943 79 56 42

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Sukaldea, lau logela, bi bainugela, igogailua. Erdialdean eta unibertsitatetik 5 minutura. Deitu 686 20 04 72 telefonora.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. Deitu 610 01 31 80 edo 943 03 78 20 telefono zenbakira.

Arrasate. Hilean 620 eurogatik etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. Hiru logela. Deitu 665 70 75 80 telefonora.

Arrasate. Logela bateko etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Guztiz berritua eta berogailuarekin. Deitu 659 83 21 12 telefono zenbakira.

Conil. Apartamentua ematen da errentan. Deitu 615 75 11 47 edo 659 36 88 75 telefono zenbakietara.

Donostia. Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan datorren ikasurterako. Ikasleentzat. Leku oso onean. Deitu 945 31 71 58 edo 678 82 06 46 telefono zenbakietara.

Donostia. Guztiz jantzitako etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Ikasleentzat. 2009-2010 ikasurterako. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailuarekin. Deitu 626 00 68 37 edo 943 21 97 50 telefono zenbakira.

Jaca. Apartamentua ematen da errentan erdigunean, abuztuko. Kirologunea, igerileku, jacuzzi, sauna, paddle leku eta squasharekin. Deitu 609 47 86 91 telefono zenbakira.

Oñati. Eraiki berria den duplex atikoa ematen da errentan. 130 metro koadro. Jantzia. Aire girotua. Domotika. Lau logela eta bi bainugela. Deitu 610 73 34 88 telefonora.

Oñati. San Lorentzo auzoan, ETEO ondo-ondoan, etxebizitza handia ematen da errentan, ikasleentzat, datorren ikasurterako. Deitu 688 63 82 39 edo 688 63 82 28 telefono zenbakietara.

Pefiscola. Apartamentua ematen da errentan. Guztiz jantzia. Instalazio pribatuarekin: aparkalekua eta igerilekua. Hondartza eta itsas-pasealekua 30 metro-ra. Deitu 670 66 64 13 edo 943 77 19 09 zenbakietara.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Debagoienean, familia serioak etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. 671 35 22 60 edo 657 20 30 71.

Donostia. Familiako baten ospitaleratzeko dela eta, uztailean eta abuztuan etxea hartuko nuke errentan. Rosi. 649 55 48 10.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Bi logela ematen dira errentan erdigunean. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egonela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06.

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68.

Bergarako erdialdean gela ematen da errentan. 170 euro gehi gastuak. Deitu 15:00etatik 21:00etara. 670 40 74 53 edo 696 02 68 30.

3/ LOKALAK

301. SALGAI

ARRASATE

Taberna salgai txikiteo zonan.

666 40 65 19

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakume nagusia zaintzeko emakume eskalduna behar da, irailetik aurrera. 649 31 42 42.

Arrasate. Etxe-aldaketa garraioa egingo didan norbaitekin behar du. 676 89 50 13.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasaten lan egingo nuke garbitasun lanean edo nagusiak zaintzen. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 626 78 22 95.

Arrasate. Emakume eskalduna gertu etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 680 49 11 45.

Arrasate. Emakume eskalduna gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Deitu 659 82 75 18 telefonora.

Arrasate. Emakume gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663 65 78 43.

Arrasate. Neska gertu garbiketarako edo umeak zaintzeko. Deitu 678 20 77 01 telefono zenbakira.

Bergara eta Antzuola. Esperientziadun neska lan desberdinak egiteko gertu: garbiketarako, zerbitzari lanak, sukaldeko laguntzaile lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko... Deitu 943 78 71 89 edo 634 91 81 73 telefono zenbakira.

Bergara. Emakume gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Erreferentziaduna. Orduka nahiz etxean bertan bizi izaten. Deitu 630 88 54 46 telefonora.

Bergara. Garbiketarako eta jende edadetuak zaintzeko lanak (etxean zein kanpoan) egiteko gertu egongo nintzateke. Eta baita lursailetan bakarrik zein bikoteka lan egiteko ere. Roy. 697 85 28 84.

Debagoiena. Ainhoa Rezola. Eskalduna naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketarako orokorrak egiteko gertu nago. Esperientzia eta informazio daukat. Zerbitzari titulua eta esperientzia. Deitu 671 35 22 60 telefonora.

Debagoiena. Boliviarrak gaztea gertu obran, pertsona nagusiak zaintzen edo tabernen garbiketarako lan egiteko. Paperak daukat. 606 78 35 94.

Debagoiena. Emakume gaztea garbiketarako orduka edo pertsona nagusiak gertu zaindu edo gertu. Deitu 609 23 39 52 telefonora.

Debagoiena. Emakume gertu garbiketarako egiteko (etxe zein atari) edo nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Deitu 628 40 58 27 zenbakira.

Debagoiena. Emakume gertu garbiketarako egiteko. 5 euro ordua. 669 53 02 92.

Debagoiena. Emakume gertu gertu nagusiak zaintzeko. 646 77 85 31.

Debagoiena. Emakume gertu haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. Gauze ere bai. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

Debagoiena. Emakume gertu nagusiak zaintzeko, baita gauze edo ospitalean ere. Deitu 943 88 85 14 telefonora.

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu tabernari aritzeko, behebarruak garbitzeko, pertsona nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Deitu 651 52 57 24 edo 943 53 30 64 telefono zenbakira.

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientziarekin, tabernari aritzeko prest. Deitu 634 45 28 77 telefonora.

Debagoiena. Mutil euskalduna gertu desbrozadore lanak egiteko. Deitu 658 73 79 02 telefono zenbakira.

Debagoiena. Mutil gaztea edo zein lan egiteko gertu. Deitu 696 48 42 50 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu garbiketarako lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Deitu 648 33 93 68 edo 943 79 76 39 telefono zenbakira.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu 608 34 36 11 telefono zenbakira.

Erizain laguntzaile lan bila. Adinekoak edo umeak goizez zein arratsalde zainzten lan egingo nuke. Deitu 650 58 21 69 edo 943 08 20 79 telefono zenbakira.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Psikopedagogia ikaslea naiz EHU eta eskola partikularrek jaso nahi nituzke. 686 20 31 35.

Zinpeko zainzaile lanetan diharduen neska naiz eta lanpostu horretako oposizioak prestatzen lagunduko didan norbaitekin behar dut. 685 77 66 21.

6/ MOTORRA

602. EROSI

ATV bat erosiko nuke. Gutxienez 400 zentimetro kubikokoa, 2 plaza homologaturarekin, 4x4, eta abar. 629 42 25 84.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Alpine kargadorea salgai. Ondo dago, eta merke-merke. Deitu 679 10 95 23 telefonora.

Donostiako Jazzaldia. Kursaleko kontzertuetarako 2 abonua. Brad Mehlidau, Hank Jones Trio, Joe Lovano, James Taylor. 2. Ilarran. Bi abonua 200 euro (30 euro merkeago). 652 70 77 86.

Egongelako mahaia salgai. Gereziko kolorekoa. Kaxoiekin. Deitu 943 79 79 34 zenbakira.

Errepideko bizikleta salgai. Giant ORC 2 sh 105. 56 neurrikoa, 4.000 km ditu. Deitu 656 75 35 86 telefonora.

Errepideko bizikleta salgai. Giant etxekoa, 600 €. 656 75 35 86.

Gurpildun aukilari motorduna salgai. Erabili gabea. Prezio negoziagarria. Deitu 618 62 79 43 edo 943 79 65 72 telefono zenbakietara.

Karro denda. Brista modeloa. Egoera nahiko onean eta merke-merke. Krisiari aurre egiteko, hobereena oportetean joateko. 605 73 75 30.

Lursaila Angiozarren. 1.500 metro koadroko lursaila salgai, bi familiako etxea egiteko aukerarekin. 647 51 52 54.

Nokia 6124 telefono berria salgai. Vodafonekoa. 50 euro. 617 13 17 51.

Oilagorretarako txartelak. Burgoen oilagorretarako bi txartela saltzen dira 11 lagunendako koto batean. Bi herriz osatua dago eta 3900 ha ditu. Eperra eta erbia ere ehiza daitezke. 696 92 18 29.

Umeen arropa (3-6 hilabete) eta umeen artikulak salgai. Deitu 943 79 79 34 zenbakira.

Urazpiko arrantzarako tresnak: neoprenoa, berunak, aiztoa, fusila eta abar saltzen dira, merke-merke. 679 10 95 23.

803. EMAN

Umeendako aukilari-kapazoa ematen da opari. 605 73 37 39.

806. GALDU

Urrezko aliantza galdu dut; "Idoia 16-9-06" dauka idatzita. 615 73 29 44 edo 943 53 28 58.

807. AURKITU

Erloja aurkitu nuen uztailaren 18an, zapatuan, Gorlako Santutxuko iturri aldemenen. Txiflo bat dauka eta Lotus etxekoa da. 680 33 40 77.

Eskumuturrekoak. Ume baten urrezko eskumuturrekoak aurkitu nuen sanjuanetan, Arrasateko Okoretegi tabernaren terrazan. 943 79 02 97.

808. BESTELAKOAK

Autorako umeen aukilari behar nuke. 650 96 23 08.

Berogailu elektriko bat behar nuke. 650 96 23 08.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Donostiatik Soraluzera autoz joateko norbaitekin bila nabil. Donostiatik 15:00etan irtenda. Ordaintzeko gertu. 618 21 42 59.

Oñati-Gasteiz. Egunero Gasteizera joaten gara, San Prudentzian elkartuta, autobidez, Lakuara eta Ejiera. Udan 08:00etatik 14:30etara egiten dugu lan eta bestela, 17:00ak arte. 635 20 33 14.

bono fotoa



Arrasateko zein auzotan dago argazkiko eraikina?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta


AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko Luis Orobengoa Zorionak!
Erantzun zuzena: Olakua auzoan.Larchago Ardoek emandako
Ardo botila packa*
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008 bi botila. Larchago kria 2006 botila bat.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara



Maite Martin eta **Jorge Andres** arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira udaletxean. Bazkaria Gure Ametsan egingo dute eta bidaian Balira joango dira. Zorionak, familiakoak eta lagunak.




Julian Mendo eta **Lucia Duque** 1959ko abuztuaren 22an ezkondu ziren Salorinon. Urrezko ezteietan, zorionak, etxeokoen eta bereziki David, Deiane, Josu eta Malenen partetik.



Arantzazu Larrañaga bergararra eta **Patxi Rubio** iruñearra uztailaren 18an ezkondu ziren Aralarko San Migelen. Animo, Kirgizistango 7.000koa zain duzue. Zorionak, etxeokoen.



Bergarako. **Javier Madariga** eta **Anita Agirre** ezkondu zirela gaur bete dira 50 urte. Bi urte beranduago egun berean alaba M^a Eugenia jaio zen. Zorionak familiakoen partetik.



Cayo Atxa eta **Emilia Paunero** arrasatearrek uztailaren 26an 25 urte beteko dituzte ezkondu. Bihar egingo dituzte ospakizunak. Zorionak, bikote, familiakoak eta lagunak.



Manoli Conejo eta **Ismael Otero** bihar ezkonduko dira Oñatin. Bazkaria Etxe-Aundin egin eta bidaian New York eta Punta Canara joango dira. Familiakoen partetik, ondo ibili!



Antzuolako **Iñigo** eta **Rey** gaur ezkonduko dira Gasteizen. Bidaian Brasilerara joango dira. Joana, Nuria, Iñaki, Roberto, David eta Edurneren partetik, ondo pasa eta zorionsuak izan.



Eskoriatzako **Andoni Zubia-gak** eta **Amaia Isazelaia** abuztuaren 4an 25 urte bete-ko dituzte elkarrekin. Zorionak eta muxu asko! Aupa bikote! Komando Petretxema.




Oñatiko **Pedro Zabaleta** eta Angiozarko **Arrate Elortza** uztailaren 31n ezkondu ziren duela 25 urte. Zilarrezko ezteiak uztailaren 25ean ospatuko dituzte. Zorionak, etxeokoen.



Gesalibarko **Inaxio Aiastui** eta **Esther Urkia** gasteiztarra duela 25 urte ezkondu ziren. Zapatuan ospatu zituzten zilarrezko ezteiak Zelai-Zabale- en. Denon partetik zorionak!



Aretxabaletako **David Fernandez** eta **Pili Valor** uztailaren 18an ezkondu ziren Arantzazun. AEBetan egongo dira bidaian eta gero Mexikora joango dira. Zorionak, familiakoak eta lagunak.



Aramaioko **Pili Fernandez de Retana** eta **Rafael Bengoa** 1984ko uztailaren 24an ezkondu ziren. Zilarrezko ezteiak zapatuan ospatuko dituzte. Zorionak, familiakoen partetik.

ESKER ONA

Maria Aldazabal Salegi

Felix Aranzabalen alarguna

Bergaran hil zen 2009ko uztailaren 15ean, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2009ko uztailaren 24an.

URTEURRENA

Pedro Mari Muruamendiaraz Lete

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 26an, 12:50ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Luis Oianguren Barrena

Lehen urteurreneko meza uztailaren 31n, Oñatiko Agustinetan, 19:50ean. Abuztuaren 1ean, parrokian, 19:00etan eta abuztuaren 2an, Urbixako ermitan, 11:50ean.

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu inoiz ahaztuko.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Martin Arrayago Zabalo

Bergaran hil zen 2009ko uztailaren 15an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko uztailaren 24an.

URTEURRENA

Maria Elena Errasti Murguiondo

2008ko uztailaren 22an hil zen, 55 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 25ean, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Beti gure bihotzetan izango zara. Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

Elisabeth Aguirreurreta Aguirre

Zure irribarre zabala ta begien dirdira gugan dugu, Eli, zuk utzitako hutsunea inork ezin baitu estali.



Txuspis. Arrasaten, 2009ko uztailaren 24an.

ESKER ONA

Bixente Kerejeta Barrutia

Gasteizen hil zen 2009ko uztailaren 19an, 64 urte zituela.

Ondra meza domekan, uztailaren 26an, 11:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko uztailaren 24an.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Beñat Alberdi > Bertsolaria eta Kazetaritza ikaslea

"Herrietako bertso txapelketak asko baloratzen ditut, politagoak dira"

Bertsozale amorratua da Beñat. Oñatiko gazte honi txikitatik gustatu izan zaio bertsolaritza eta bertsotan aritzea. "Eskolarteko txapelketako finalean izan nintzen, oso momentu hunkigarria izan zen". Hala ere, herrietako bertso ekimenak baloratzen ditu gehienbat: "Herrietan gertuago sentitzen gara eta sentitzen dira bertsoak; bertakoak dira, bertako jendearenak".

AMAIA ARANTZETA > OÑATI

Beñat Alberdi 18 urteko gaztea da. Laster 19 urte beteko ditu, eta, horrez gain, etxetik kanpora igaro duen lehen urtea izan da hau, unibertsitatean. Esperientzia gustuko izan duela dio. Kazetaritza Bilbon ikasteaz gain, Oñatiko bertso eskolan dihardu, ikasle eta irakasle. Txikitatik hasi zen bertsolaritzan eta oraindik aurrera jarraitu nahi du, bertso eskola sustatuz eta herrian bertsolaritzarako dagoen joera bultzatuz.

Oñatin iaz jokatu zen bertso txapelketan izan zinen.


Horrela da, bai. Baina meritu propioa baino gehiago, jaialdiaren antolakuntza baloratuko nuke. Oso ondo antolatuta geunden. Bertso eskolan hiru taldetan banatuta gaude: zaharrak, gazteak eta gaztetxoak. Ni gaztetxoaren artean nengoen eta talde bakoitzetik bi soilik sailkatzen ziren finalerako eta horietako bat ni izan nintzen. Antolatzaileek eskolako talde berberak errespetatu zituzten; azken finean, zaharren taldean dagoen batek, logikoa denez, maila handiagoa dauka gaztetxoaren taldean dagoen batek baino. Eta hori, jendearen aurrean jardutean, asko nabarmentzen den gauza bat da.

Lehiaketan diharduzunean, zaila izango da bertso bat momentuan asmatu eta aurkariarena baino hobea izatea. Gainera, publikoaren aurrean urduritasunak ere paper garrantzitsua betetzen du. Zer duzu esateko horren inguruan?

Askotan, hitzaldi edo bertso bat buruz ikasiz gero, zerbait ahazten bazaizu hutsik gelditzen zara, nola jarraitu ez dakizula. Beraz, soltura hori lantzea garrantzitsua da bertsolaritzan, galduta geratuz gero ere, zer esan edo zer asmatu eduki dezazun. Hutsune hori ez da bertsolaritzan existitzen, harri batetik tiraka ibiliko bazina bezala baita bertsolaritza, muga batera iritsi arte. Muga hori, agian, ez da izango espero duzun bezalakoa, baina beti da bukaera bat, eta ez hutsune bat.

Zer iruditzen zaizkizu herrietan antolatzen diren bertso txapelketak?

Garrantzitsuak dira, bai bertso eskola bultzatzeko eta baita herria ere. Azken urteotan jende ugari gerturatu da herrian antolatu diren bertso ekitaldie-



AMAIA ARANTZETA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 18 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza ikaslea. **Zaletatsunak:** Bertsolaritza, musika eta bidaiatzea. **Gorrotatzen duzun zer edo zer?** Mundua gaur egun den modukoa. **Gomendatzeko moduko film bat:** *El efecto mariposa*. **Liburu bat:** *La ladrona de*

libros. **Musika talde bat:** Su ta Gar. **Gustuko abestiren bat:** *Egunsentia*, Kuraia. **Gustuko duzun bertsolaria:** Jon Sarasua. **Bizio bat:** Txokolata. **Bidaitezeko leku bat:** Karibea. **Bizi izateko leku bat:** Oñati! **Udarako:** Ikasi, lagunekin egon eta parranda.

tara. Horrek eragin handia izan du bertso eskolarengan eta baita herrian bertsolaritzarako zaletasuna bermatzeko ere. Gazte ugari hartu izan ohi du parte txapelketa hauetan, eta, azkenean, gazte jendeak eragina izaten du hurrengo datozen belaunaldietan, bertsolaritza eta elkarrekin parte-hartzea sustatuz.

Oñatin betidanik izan da bertsolaritzarako joera. Oñati herri bertsozalea dela uste duzu?

Jende asko dago Oñatin bertsozalea dena. Txapelketaren bat antolatuz gero, lekuak normalean bete egiten dira eta jendeak balorazio ona egin izan du, baita bertso eskolak berak ere. Frontoian antolatu izan diren ekintzetan parte-hartze handia egon da eta tabernetan leku izan duten txapelketek ere harrera ona izan dute. Hala ere, uste dut oñatiarrok tabernazaleagoak garela; hau da, tabernetan jokatzeko diren txapelketak izaten ditugula gogoko, eta ez txapelketa handi edo jendetsuak.

Zelan baloratuko zenuke Oñatiko bertso eskolak izandako garapena sortu zenetik hona?

Iaz 25 urte bete zituen bertso eskolak. Orain arte irakasle izan ditudanak izan ziren lehen harria jarri zutenak. Orain, nik ere irakasle moduan dihardut eta datozen belaunaldiek ere gurekin jarraituko dutela espero dut eta dugu guztiok. Urte asko dira zutik iraun duena Oñatiko bertso eskolak, eta guztiok espero dugu beste urte askotarako ere egina izango dela.

Zein da kantatu duzun bertso-rik gustukoena?

Autokonpasioa
Bizitzan zutabe
Bihurru da ta saia
Nahi nuke hala're
Nahiz begiak malkotan
Aurpegia grabe
Egon aingerurikan
Ederrenen pare
Irribarretsu askoz
Ederrago zaude.

Kazetaritza ikasten ari zara eta zure lehenengo urtea izan da aurtengoa herrikan kanpora, unibertsitatean. Esperientzia ona izan al da?

Bai, ezberdina eta ona. Jende guztia animatuko nuke ahal izanez gero kanpora joateko. Gauza berri asko ikasten dituzu, eta zure kabuz balio izaten.



Goiena magazinea-k oporrak hartuko ditu.

GOIENKARIA

Gaur emango dute denboraldiko azkeneko magazinea

Abuztuaren 31n itzuliko da Goienako magazinea, Arritxu Barruso aurkezlearekin

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Gaur emango dute denboraldiko azkeneko magazinea. Goiatz Aranak aurkezten duen tarreak oporrak hartuko ditu. Hala ere, ez pentsa GOITBn informazioak etetik izango duenik. Datorren astean informatiboa eskainiko dute ohiko orduetan, eta baita maga-

zinearen orduan ere. Gainera, abuztuaren zehar, egunero informatibo bat egingo dute, eguneko albisteekin eta asteak eman dituen beste albiste batzuekin. Hortaz, ibarrean gertatzen denaren berri jasotzeko aukera egongo da baita abuztuaren ere.

Goiena magazinea abuztu amaieran, hain zuzen, hilaren 31n itzuliko da ohiko programaziora Arritxu Barruso aurkezlearekin eta ohiko kolaboratzaileekin.

GOITB, 'Goiena magazinea'
> Egutero, 19:45

Oporrak, indarrak hartzeko

UBANE MADERA > ARRASATE
Udako oporraldia badatorrela-eta, Arrasate Irratian ere etenaldia egingo dute, abuztuaren 31ra arte. Hori, zuzeneko saioari dagokionez; izan ere, 107.7 sintonia ez da isilik geratuko; ohi bezala, kantu esanguratsuak entzuteko aukera izango duzue, baita abuztuaren ere. Zuzeneko *Uda giroan* irratsaioa irailean berreskuratu dute, oporretan indarrak hartuta, eduki eta opari berrieekin.

Arrasate Irratia, 'Uda giroan'

> Asteleheneetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara



JOSETXO ARANTZABAL

GOITBn abuztuaren ere saioak emango dituzte

Abuztuaren zehar GOITBk ez du oporrik hartuko. Hainbat saio emango dituzte; besteak beste, *Kantari*, erreportajeak, *Ilunpean*, *Musikantoi* eta marrazki bizidunak. Esan behar da *Kantari*-ko azkeneko saioa egubakoitzean eman zutela; abuztuaren errepikatuko egingo dituzte saioak.

GOITB, 'Kantari' > Gaur, 20:45.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Asteleheneetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda giroan.

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Asteleheneetan kirolak
Ilunpean (elkarrizketa Euskal Herriko pertsonai ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal gazte bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepassoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 irratia@goiena.com)

11:55 Arrasate Irratiko albisteak, labur.

12:05 Euskadi irrati albistegia.

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak.

14:00 Uda giroan.

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

Egubakoitza, 24	Zapatua, 25	Domeka, 26	Astelehena, 27	Martitzena, 28	Eguaztena, 29	Eguena, 30
13:15 Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.	13:15 Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis	13:15 Marrazki bizidunak Cloud Trotters.	13:15 Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
13:45 Kantari.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Itsasoari begira.	13:45 Ikusten.	13:45 Ur eta lur.	13:45 Solaskide.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Kantari.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Ikusmira.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	14:00 Elkartasun bideak.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.	14:30 Ikusten.	12:30 Ikusmira.	15:15 Mugaz kanpo.	15:10 Elkartasun bideak.	15:10 Ilunpean.	15:15 Ikusmira.
16:15 Ikusten.	15:30 Trikitraka trikiton.	13:00 Erreportajea.	15:45 Elkartasunaren bidean.	15:50 Solaskide.	15:50 Golb tb.	15:45 Mugaz kanpo.
16:45 Berriak.	16:30 Marrazki bizidunak.	13:45 Solaskide.	16:15 28 klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 28 Klip.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Erreportajea.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
18:00 Ilunpean.	18:30 Solaskide.	15:30 Kantari.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:45 Berriak.	19:00 Ikusmira.	18:15 Trikitraka trikiton.	17:35 Erreportajea.	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	18:00 Elkartasun bideak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Berbaire.	19:15 Erreportajea.	18:05 Solaskide.	18:05 Solaskide.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:45 Goiena Magazinea.	20:30 Golb tb.	19:45 Solaskide.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Kantari.	21:00 Ikusten.	20:15 wasemak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Berriak.
21:15 Goiena Magazinea.	21:30 Ilunpean.	21:15 Elkartasun bideak.	19:45 Berriak.	20:15 Solaskide.	19:45 Berriak.	20:15 Golb tb
22:15 Solaskide.	22:15 Solaskide.	21:45 Berbaire.	20:15 Ikusten.	20:45 Mugaz kanpo.	20:15 Ikusmira.	20:45 Musikantoi.
22:45 Musikantoi.	22:45 Erreportajea.	22:45 Golb tb.	20:45 Golb tb.	21:15 Berriak.	20:45 Solaskide.	21:15 Berriak.
23:45 Goiena Magazinea.	23:30 Wasemak.	23:15 Ilunpean.	21:15 Berriak.	21:45 Erreportajea.	21:15 Berriak.	21:45 Ikusmira
00:45 Emisio amaiera.	00:30 28 klip.	00:00 Itsasora begira.	21:45 28 Klip	22:15 Ilunpean.	21:45 ur eta lur.	22:15 Ikusten.
	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	22:15 Elkartasun bideak.	23:00 Lamien artean.	22:15 Erreportajea.	23:15 Erreportajea.
			23:00 Erreportajea.	23:30 Berriak.	23:45 Berriak.	23:45 Berriak.
			00:30 Emisio amaiera.	00:00 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.

telebegi

Edu Mendibil

> 'goiena.net/blogak/edu'

Hermida ilargian

Ilargia lurraren inguruan biratzen den moduan, Jesus Hermida telebistan azaltzen den bakoitzean haren inguruan biratzen dira gonbidatuak. Horixe gertatu zen asteleheneko *Regreso a la luna* saioan. Jesus Hermida Cabo Cañaveralean zegoen 1969ko uztailaren 20an, Armstrongek eta Aldrinek ilargia zapaldu zuteneko une historiko hartan. Eta horrexegatik bera ere telebistaren historiara pasa da. AEBetan lan bera egin zuen Walter Cronkite ezaguna (Hermidaren *eredua* izan omen zena) justu 40. urteurrenaren bezperatan zendu zen.

Gonbidatu mordo bat eraman zituen Hermidak astelehenean, gazteek dekoratu lana baino egin ez zuten arren. Aurpegi eza-gunek uztaileko gau hartako oroitzapenak ekarri zituzten gogora eta ezer gutxi gehiago..., elkarrizketak loreak baino. Platoan zeuden guztiak TVE-koak ziren eta promozio saioa zirudien. Zalantza batekin gertatu ziren asko: Armstrong ala Hermida izan zen ilargira iritsi zen lehena?

Uztailak 24-31

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



ARRASATE

> 'Renato' kale antzerkia eskainiko dute gaur arratsaldean plazan

Ama hil eta gero, Renato libre da beti egin izan nahi duen guztia egiteko. Zirkua egitea da haren ametsetako bat, baina zirkuko artista izatea ez da Renatok uste duen bezain erraza... Gaur, egubakoitza, Arrasateko plazan, 20:00etan.

Erakusketa



BERGARA

> Mikel Garate Aracama azkoitiarraren margo erakusketa Aroztegin gaurtik

Mikel Garate (Azkoitia, 1969) EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslea da eta, gaur, egubakoitza, margo erakusketa zabalduko du Barrenkaleko aretoan. Erakusketa abuztuaren 9ra arte izango da ikusgai, ohiko ordutegian.

Musika



ESKORIATZA

> Elcano Browning Cream taldearen kontzertua zapatuan plazan

Mikel Azpiroz musikari donostiarra buru duen taldea. Lau Behi, Parafunk eta Matt Harding Project taldeetan ibilitakoa da Azpiroz. Organoa, gitarra eta bateria dira Elkanoren oinarritzko formatua. Bihar, Eskoriatzan, 23:00etan.

Abesteko interesa duen edonorendako ateak zabalik dituztela gogoratzen dute. Honako taldeak daude: musika tailerra (4-5 urtekoendako); Goikobalu Txiki (6-12 urte); Goikobalu Gazte (12-18 urte); eta abesbatza nagusia. Argibide gehiago: 669 83 34 38 (Maialen, musika tailerra) eta 615 76 02 89 (Rakel, Goikobalu Gazte).

Lehiaketak

BERGARA

> Azokako paretarako grafiti lehiaketa

Udaleko Kultura sailak grafiti lehiaketa deitu du. Lehiaketa honen helburua da Bergarako azokan hutsik dagoen 7,05 m (horizontalean) x 8,22 m (bertikalean) neurriko pareta margotzea. Horretarako antolatu dute grafiti lehiaketa, eta lehiaketara aurkeztutako lan guztien artean, epaimahaiak aukeratutako grafitia margotuko dute grafiti horren egileek Bergarako azokako paretan. Lehiaketan 2009an gutxienez 16 urte beteko dituzten debagoiendarrek edo Debagoieneko ikastetxeetan edo unibertsitateetan ikasten dutenek hartu ahal izango dute parte, bakarka nahiz taldeka. Teknika libre izango da, eta gaia, berriz, Bergarako azoka edo azokako produktuak. 5. Grafitiaren zirriborroa 34 zm x 29 zm neurrian aurkeztu beharko da, formatu bertikale-

Musika

OÑATI

> Bitz eta Neallta Fola taldeak gaur Madalena auzoan

Neallta Folla aretxabaletarrak diskoa atera berri du. Bitz Oñatiko pun-rock taldea da.

Gaur, egubakoitza, Oñatiko Madalena auzoan. Gauerdi aldera hasiko da kontzertua.

BERGARA

> Pikulitxa Roots jaialdia zapatuan

Emon (Bergara), Lutzana Crew (Bilbo), Digwash (Hendaia) eta DJ Kale Nagusiko Sound Sister.

Bihar, zapatua, Gorlako kantuan, 21:00etan hasita.

ARRASATE

> Balkan Beat Box zapatuan Monterronen

Bulgaria, Maroko, Espainia, Israel eta Turkiako artisten kolaborazioekin, mundu osoko estiloak uztartzen dituzte Balkan Beat Box taldeko kideek.

Bihar, zapatua, Monterronen, 22:30ean.

Erakusketak

ESKORIATZA

> Felix Likiniano Herizi eskaintako erakusketa Ibarraundin

Eskoriatzako familia bateko semea, Likinianoren bizitzako pasarte adierazgarriak eta haren sormen lan batzuk batzen ditu erakusketak.

Ibarraundi museoa, irailera arte. Aste barruan zabalik, astelehenean egubakoitze-ra 09:00etatik 14:00etara.

BERGARA

> Virginia Loperaren margoak Nahikarin

Formatu ertaineko 10 bat lan zintzilikatu ditu Virginia

Loperak. Gasteizkoa da eta ibilbide luzea egin du dagoeneko margolaritzan.

Uztailaren bukaerara arte izango da erakusketa zabalik.

Ikastaroak

ARRASATE

> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldean

Txindoki dorrean (Bañez Dokorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibide gehiago: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA

> ¿Arte o qué?

Txemi Valdecantos adituak emango du ikastaroa, uztailaren 27an, 29an eta 30ean, 11:00etatik 13:00etara. Doako ikastaroa da.

Argibide gehiago Arkupe kultur etxean.

ARRASATE

> Eskulan ikastaroa eta orratz lanena, irailean

Eskulan ikastaroa Bea Arregik emango du, irailaren

15etik abenduaren 23ra, martitzenetan, 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara; orratz lanen ikastaroa Asun Mendizabalen eskutik, irailaren 17tik abenduaren 17ra, eguenero, 15:00etatik 17:30era.

Argibideak Ekin Emakume Elkartearen, 943 79 83 70 telefono zenbakian.

Deiak

ARRASATE

> Goikobalu abesbatza irailean ekingo dio ikasturte berriari

PROPOSAMENA



BERGARA

> Marta Sanchez Trio gaur Espoloian

Ostiral musikalak egitarauarekin amaitzeko, Marta Sanchez Trioren emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Espoloiko kioskoan, 22:30ean. *Lunas, soles & elefantes* izenburuko diskoa da taldearen azken lana. Brad Mehldau, Bill Evans, Keith Jarrett eta halako izen handiak dakartzkigute gogora... Jazz gaua Marta Sanchez (pianoa), Carlos Barreto (kontrabaxua) eta Andres Litwin (bateria) hirukotearen eskutik.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

- Uztailak 25 eta 26, 12:00tan euskaraz.

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

- Uztailak 24, 12tan eusk, eta uztailak 25, 13etan gaztelaniaz.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

- Uztailak 25 eta 26, 19tan gaztelaniaz

Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

- Uztailak 26, 13etan gaztelaniaz.

Kartoizko suziaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa

- Uztailak 24, 19tan gaztelaniaz eta uztailak 25 eta 26, 18tan euskaraz.

ETA GAINERA...

Elektrizitate ikuskizuna: Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia

Uztailak 25: 12:15, 13:45 eta 16:45ean eta uztailak 26: 11:45, 12:45, 16:00 eta 17:00

Planetarium Txikia:

"Bidaia espazioan zehar!" saio berriaren aurkezpena. 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten

Uztailak 24: 12:30, 13:00, 16:15.

Uztailak 25: 12:30, 13:15, 15:45, 16:15.

Uztailak 26: 12:15, 12:45, 17:00, 17:30.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

an, eta euskarri gogor baten gainean. Era berean, lana CD batean ere aurkeztu beharko da. Proiektu irabazleak 500 euroko diru saria jasoko du.

Lanak Bergarako Kultura Etxean aurkeztuko dira, uztailaren 27ko 13:00ak baino lehen. Argibide gehiago: 943 77 91 59.

ARRASATE

> **Santamas irudi lehiaketa**

Santamas komisiñutik Santamas irudi lehiaketarako deialdia luzatu dute. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia da; hain zuzen, egileek kartelaz gain eskuorrirako zein kartel bateraturako (Santamasetako ekintzarik garrantzitsuenak agertuko diren kartela) proposamena egin ahal izango dute. Lehiaketa edozein arrasatearrei zuzenduta dago eta urriaren 16 baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen. Proiektuaren oinarri izango den irudiak Arrasateko Santamas jaien adierazgarri izan behar du; jaiaren bilakera, honek herrian duen garrantzia, urteetan erabilitako irudi historikoa, etab. hartu beharko ditu egileak kontutan. Orainaldiko irudi bat proposatu eta etorkizunean adierazgarri izango den marka sortzeko irizpideak markatuko ditu.

<http://santamasirudilehiaketa.blogspot.com>. Egileek edozein galdera edo zalantza izanez gero, santamasirudilehiaketa@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

DEBAGOIENA

> **Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa**

Zugaz.com-ek martxan jarri du Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa eta jasotako argazki zein bideo guztien arteko onenarentzat Eroski hipermerkatuak emandako Wii bat oparitu dute. Azarora artean Zugazera igotako argazkiak eta bideoak hartuko dira kontua. Argazkiaren titulua euskaraz egon beharko da

Argibideak ondoko webgunean: <http://goiena.net/blogak/kantari/>

LEKEITIO

> **Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Epea irailaren 11ra arte dago zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefonoan edo www.bideobilera.com webgunean.

DEBA

> **Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru-laguntza emango duena. Biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarriketak edo ikerketak aurkez daitezke, euskaraz.

Proiektuak abenduaren 1era arte jasoko dituzte: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba. Argibideak 943 19 28 40 telefonoan.



Udako estreinaldiak

Beno, iritsi dira udako oporrak, baina zinema ez da gelditzen; hori bai, garai honetan nabarmenki baretzen da estreinaldien erritmoa, gero irailean film berri ugari izateko. Dena den, udan zinemara joateko ohitura galtzen ez dutenez, interesgarriak izan daitezkeen film batzuk aipatuko ditugu.

Up. Pixar-en animazio filmak aurtengo Cannesko festibala zabaldu zuen; oso kritika onekin, gainera. *Los increíbles* edo *Toy story*-ren egileak beti pauso bat aurrera ematen ahalegintzen dira. *Up* hiru dimentsiotan filmatuta dago eta zinema berezi batzuetan bertso hori ikusteko aukera izango da eta besteetan bertso arrunta. Estreinaldia, uztailaren 30ean.

Enemigos públicos da Michel Mannen azken filma. Bertan, hain gogoko duen zinema beltzera bueltatzen da, John Dillinger gangsterraren istorioa kontatzeko. Itxura ona dauka. Mannen filmak, nahiz batzuk borobilak ez izan, beti izaten dituzte gogoa edukitzeko eszenak: irudien indarra, horiei ematen dien erritmoa... ikusi beharreko proposamenak izaten dira. *Enemigos públicos* kamera digitalekin filmatuta dago. Estreinaldia: abuztuak 14.

Cannesen ere parte hartu du **El anticristo** Lars Von Trierren lan polemikoak. Zuzendari daniarraren proposamenak oso erradikalak izaten dira, eta batzuetan eskua joaten zaio. Filma beldurrezko generoan koka daiteke; kritika gehienak txarrak izan badira, defendatzaileak ere badituenez, izenburu erakaragarria bihurtzen da. Abuztuaren 21ean estreinatuko da.

Eta bukatzeko, Cannesko beste film bat: Isabel Coixeten **Mapa de los sonidos de Tokio**. Azken egunean estreinatu zen Cannesen, nahiko oharkabean. Kritikak onegiak izan ez badira, Tokion kokatutako amodio, sexu eta hilketa istorioak bere puntua izan dezake; hori baieztatzekeo zinemara joan behar... Abuztuaren 28a iritsiko da pantailetara.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

MONTEIRON

Fuera de carta
Egubakoitza: 22:30.

ARETXABAETA

ZARAIA

Fuga de cerebros
Egubakoitza: 21:30.
Astelehena: 16:00.
Sukalde kontuak
Eguaztina: 21:30.

EIBAR

UNZAGA

Asalto al tren Penhalm 123
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka:
17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena (ikuslearen eguna): 19:30, 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

Asalto al tren Penhalm 123
17:00, 19:45, 22:30.
Harry Potter y el misterio del príncipe
16:45, 19:40, 22:30.

Los hombres que no amaban a las mujeres
18:30, 21:30.

Brüno
16:45, 18:30.

La proposición
17:30, 20:00.

Ice Age 3: el origen de los dinosaurios
16:45, 18:35

Imago Mortis
17:30, 20:00, 22:30.

Más allá de la duda
18:15, 22:30.

No mires para abajo
20:35, 22:30.

La caja de Pandora

22:30.

Kiriku y las bestias salvajes
17:00.

Uztailaren 24tik 29ra.

FLORIDA-GURIDI

EX

17:30, 20:00, 22:30.

Háblame de amor
18:00, 20:15, 22:30.

Paisito
17:30, 20:00, 22:30.

Pagafantas
17:30, 19:30.

Un novio para mi mujer
18:00, 20:15, 22:30.

Arráncame la vida
17:30, 20:00, 22:30.

Delta
18:00, 20:15, 22:30.

Despedidas
22:00.

Uztailaren 24tik 30erain.

YELMO-GORBEIA

Harry Potter y el misterio del príncipe
17:30, 20:30, 23:30 (zapatuan); 15:45 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30 (domekatik eguaztina).

Ice Age 3: el origen de los dinosaurios (3-D emanaldiak)
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:30, 19:30, 21:30, 23:30.

Ice Age 3: el origen de los dinosaurios
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30 (domekatik eguaztina).

Ex
15:50 (zapatuan eta domekan), 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Imago Mortis
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Asalto al tren Penhalm 123

15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Brüno
20:05, 22:00, 23:45.

Paintball
16:40 (zapatuan eta domekan), 18:40.

Más allá de la duda
20:40, 22:40, 00:40.

Transformers 2: la venganza de los caídos
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:45.

Nueva York para principiantes
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

Los hombres que no amaban a las mujeres
16:15 (zapatuan eta domekan), 19:00, 21:45, 00:30.

Ángeles y demonios
00:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 22:30 (domekatik eguaztina).

Kika superbruja y el libro de hechizos
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20.

Pagafantas
16:40 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:20, 22:10, 00:00.

La última casa a la izquierda
18:10, 20:15, 22:20, 00:25.

La proposición
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

Hanna Montana: la película
16:10 (zapatuan eta domekan).

Uztailaren 24tik 29ra.
Egubakoitzean domekara.
Gauerdiko emanaldiak zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Ice Age 3: el origen de los dinosaurios

16:00, 17:30, 18:00, 19:30, 20:00, 22:00.

Brüno
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Harry Potter y el misterio del príncipe
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Asalto al tren Penhalm 123
16:00, 18:10, 20:30, 22:40, 00:45.

Transformers 2: la venganza de los caídos
16:15, 19:15, 22:15.

Ángeles y demonios
22:00.

La proposición
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

Noche en el museo 2
16:10, 18:20.

La última casa a la izquierda
15:55, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

Nueva York para principiantes
15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

Terminator salvation
20:25, 22:40.

Kika superbruja y el libro de hechizos
16:30, 18:30.

Paintball
20:30, 22:25, 00:30.

Más allá de la duda
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Uztailaren 24tik 29ra.



Pagafantas
España, 2009.
Zuzendaria: Borja Cobeaga. Aktoreak: Gorka Otxoa, Sabrina Garcíarena, Julian Lopez, Kiti Manver. 80 minutu.
Pagafantas mutiko gizajo bat da, neska lirain baten alboan ibiltzen dena. Mutikoak jai dauka neska horrekin, lagunek argi daukete ez daukala inolako "aukerarik", baina badaezpada haren ondoan jarraituko du. Neskak lagun gisa maite du eta ez du "arriku sexual" gisa ikusten.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Transformers 2

AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.
Bi urte pasatu dira Sam Witwicket unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean... abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

La última casa a la izquierda

AEB, 2009. Zuzendaria: Dennis Iliadis.
Wes Cravenek 1972an zuzendutako film baten remake-a da honako hau. Mary eta Phylis kontzertu batera joatekotan dira, Maryren 17. urtebetetzea ospatzeko. Baina hirira iritsi aurretik gaizkile batzuk bortxatu eta hil egingo dituzte. Handik gutxira, Maryren gurasoen mendekua iritsiko da...

¿Hacemos una porno?

AEB, 2008. Zuzendaria: Kevin Smith.
Zackek eta Mirik institutuan ezagutu zuten elkar, eta ez dute onartu nahikeldutasunera iritsi direla. Dirua egiteko, porno amateurreko filmak egitea erabakiko dute. Kevin Smith zuzendariaren (*Clerks*, *Mallrats*, *Persiguiendo a Amy*) komedia berria.

Millenium: Los hombres que no amaban a las mujeres

Suedia-Danimarka, 2009.
Zuzendaria: Niels Arden Oplev.
Enpresari aberats batek kazetari bati aginduko dio duela 40 urte desagertu zen ilobarekin zer gertatu zen ikertzeko. Stieg Larsson kazetari eta idazle suediarren trilogia arrakastatsuen pantaila handira iritsi da dagoeneko.

Ponyo en el acantilado

Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrinariaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

Mishima: una vida en cuatro capítulos

AEB, 1985. Zuzendaria: Paul Schrader.
Paul Schrader-ek 1985eko Canneseko Jaialdian aurkeztutako filmaren bertso berritua eta definitio altuan iritsi da zinema aretora. Yukio Mishima idazle japoniarren biografia kontatzen du. Mishimaren azken egunetik abiatzen da, 1970eko azaroaren 25etik, haren haurtzaroraino jauzi eginez.

nire aukera



Juan Luis Zubizarreta
Eskoriatzako Aitzorrotz Kultur Elkarte kidea

Zapatuan, mendiz mendi

Aitzorrotz Kultur Elkarte kide berrietako bat dugu Juan Luis Zubizarreta eskoriatzarra (48 urte).

Joan den urtean bezala, aurtan ere *Errekan gora* programazioa antolatuko dute Eskoriatzan eta bihar, zapatua, Elkano Browning Cream taldearen kontzertua izango da herriko plazan, gauez.

Kontzertura joan baino lehen, Zubizarretak badauka plana biharko: lagun batzuekin batera Eskoriatzako 18 mendiak egiteko asmoa daukate, 06:30ean aterara. Mendia da haren zaletasunik handiena. Eñaut semeak lagun-tzen dio irteera askotan.

Ibilaldi luzea bihar, beraz...

Zazpi bat orduko ibilaldia izatea espero dugu. Lauzprobost lagun aterako gara eta asmoa Aitzorrotzen bukatu eta han bazkaltzea da. Bazkarirako koadrila handiagoa batuko gara, ume eta guzti. Arratsalde partean jaitsi, dutxa hartu eta kontzertura. Ez dut Elkano Browning Cream ezagutzen, baina talde oso ona dela komentatu didate.

Nola ikusten duzu Eskoriatzako kultura giroa?

Oso ondo. Gauzak antolatzen dira eta jendearen erantzuna ere ona izaten da. Gure elkarteak ere bultzada handia eman dio herriko giroari. Gure asmoa zera da: udan egiten dugun moduan, urtean zehar ere formatu txikiko emanaldiak antolatzea: musika klasiko, folka... Orokorrean, gutxi entzuten diren gauzak.

Mendiaz gain, beste zaletasunik?

Argazkilaritza. *Mendiak.net* webgunean sartu izan ditut gauza batzuk.

Oporretan, zer?

Abuztuko lehenbiziko astera arte lan egingo dut eta bost bat egunerako-edo Pirinioetara joango gara, Echo aldera, Ozara. Hondartza? Egia esateko, harea ez dut oso gustuko... Igerilekua nahiago.

Edu Mendibil

Txina-Ertzilla sustrai bila

TESA ARCILLA Hong Kongeko kazetari ospetsua Antzuolan izan da arbasoen jaiotetxea den Ertzilla baserria ezagutzen

ARBASOAK Antzuolatik Txilera, handik Filipinetara eta gero Hong Kongera joan zen Ertzillako familia

BISITA Antzuolara bisita laburra egin dute, eta berriz itzuliko direla agindu; Ertzillakoak joango dira hara agian

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Udako oporretan ohikoak dira baterako eta besterako bisitak, baina Antzuolako Ertzilla baserrian bisita bitxia jaso dute: Tesa Arcilla -Hong Kongen izen handiko kazetaria da- eta haren senar Clement Rossignol-ena

Ibarre landetxean bi eguneko egonaldia egin dute. "Eztei-bidaian etorri eta gure seme-alabekin ingelesez berbetan ari zela esan zien hemengo baserri batean sustraiak zituela", esan digu Ibarreko Pilar Belastegik.

Ertzilla zen baserria, Ibarre landetxetik oso gertu dagoena. Ertzillako Pakita Peñagarikanok sekulako sorpresa hartu zutela esan digu: "Pilarrek deitu zigun esanez Hong Kongeko gure oinordeko batzuk zeudela Ibarren. Gaizki ulertu edo bromaren bat zela pentsatu genuen".

Hori izan da, hain zuzen ere, bisita bitxia izateko arrazoia: "Badirudi lehengo Ertzilla baserrikoak izango zirela Arcilla abizenekoak, baserria buztin lurretan dago-eta. Familia Bermeotik

Antzuolara, Olaberrira eta Tolosara zabaldu zen eta Tesa Arcilla Antzuolako oinordekoa zen. Hemendik Txilera joan zen familia 1700. urte inguruan eta handik Filipinetara; han bizi ostean joan zen Tesa Arcilla Hong Kongera. Ahizpa gazteak familiaren gaineko informazioa batu eta arbasoen bizilekuaren bila etorri da", kontatu digu Pakitak. Familiakoak ez dira, Pakitaren senarraren aitak beste bati erosi ziolako Ertzilla baserria, baina sustraiak baserri berean dituztela esan daiteke.

DENBORA LABURRA

Harridura eta pozaz gain, pena ere izan dute, denbora laburra eman dute-eta Antzuolan. Pakitak eta Pilarrek hauxe esan digute "Etortzekoak zirela jakinez gero, harrera hobea egingo geniekeen; hurrengoan beharko du".

Etxekoei hemengo argazki eta bideoak erakutsita, beste batzuk etorriko dira hurrengo bisitan, beharbada; edo, agian, Ertzillakoak Hong Kongera hango "familiakoak" ezagutzera.



BASERRIAN Clement Rossignol eta Tesa Arcilla Ertzillan, familiako Pakita, Bittor, Xabier eta Jonekin.

SORAIA ALONSO

ahobero

"Diruak nonbait egon behar du eta Jainkoak Real Madrilen eskuetan ipini zuen Kaka kontratatzeko"

Caroline Celico >
Kaka futbolariaren emaztea

Kakaren emaztea hain fededuna izanik, nola mespretxu egin Jainkoari eta haren diruari. Nahikoa probetxu aterako dio diru horri guztiori, eta, krisi garaian egon arren, fedeitsuak ez du diru hori behar-tsuenei ematera eramango.

iturri onetik

Debagoieneko mendiko bizikleta martxak elkartzeko egitasmoa abian da

Irailean hasiko dituzte Debagoieneko mendiko bizikleta martxak, eta herri bakoitzeko martxak antolatzen dituzten lagunengana asmoa da martxa horiek batzea eta Debagoieneko MTB Zirkuitua antolatzeko. Jende asko animatzen da martxa horietan parte hartzea, mendiko bizikletak zale asko dituelako Debagoienekoan; martxak antolatzeko erraztasun handiagoak izatea da helburua.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Astarloza

Tourrean etapa irabazi duelako dabil asteen denon ahotan. Baina azpimarratzekoa iruditzen zait Mikelek erakutsi duen izaera. Irabazi du asko saiatuta, mila ahaleginen ondoren, eta hori eredu ona da gauzak erraz lortzen ohituta gauden honetan. Irabazita-koan umil agertu da, bertute aipagarria harrokeria nagusi dugun garaian. Taldearekin esker oneko eta haien zordun aitortu da, elkartasunaren gorazarre bikaina eginez. Eta etapa irabazi duelako ez da loriatan ito, ondoren ere aurrean ibili da, jarraikortasuna erakutsiz.

Horri erantsi behar zaio euskaldun petoa dela, bertsozalea, *Berria*-n idazten duela egunerokoaz eta oso gurea azaldu dela aldiro. Ikusita nolako jendea dabilen medioetan, erraldoia egin zait Mikel, bere umilean.

ai, ene!



Itxura eta kolore berezidun etxea

Gero eta bizileku bereziagoak ikusten dira eta honako hau bitxia da kolore bizi eta formetan. Inor ausartuko da hor bizi izatera?

www.dogguie.com



UGARTE
AROTZEGIA - ALTZARIAK



arotz lanak orokorrean • leihoak • atek • horma-armairuak

erakusketa eta tailerra
san juan 1a • bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

altzari denda
ikerleku zeharbidea • bergara
tel.: 943 03 46 30

